

manex

XANTI
BEGIRISTAIN
MADOTZ

BOOKTEGI

BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

manex

AURKIBIDEA

Manex eta kaskabeltz handia

Manex eta karnaba

Manex likarekin

Manex txorikumeekin

Manex berriz txorikumeekin

Manex papagaitxoarekin

Manex tiragomarekin

Manex belarretan

Manex astoarekin

Manex eta elurte handia

Manex katakumeekin

Manex eta trikua

Manex eta habiak

Manex eta birigarroak

Manex mikekin

Manex aranondoan

Manex eta txorikumeak

Manex berriz kaiolarekin

Manex logelan

Manex sukaldean

Manex eta jostetak

Manex eta kisuskileak

Manex eta lera

Manex eta hormatxoria

Manex eta zuloa

Manex eta hesia

Manex eta kurriloa

Manex eta kanpadenda

Manex eta buztanikara

Manex eta sugegorria

Manex eta eskopeta

Manex ehizan

Manex eta zerrama

Manex eta txerrikumeak

Manex eta txabola

Manex eta salmenta

Manex eta babak

Manex eta gosaria

Manex eta iltzea

Txerri hiltzea

Errege magoak

Manex eta kanpotarra

Behiak eta udaberria

Manex eta katakumea

Manex eta katu zaharra

Manex eta behiak

Manexen anaia bat

Manex eta hondartza

Manex eta oilarra

Manex eta garrafoiak

Manex eta gaztak

Manex eta intxaurrak

Manex eta zekorra

Manex eta odola

Manex eta aingerutxoa

Elurtea eta ama

Manex eta animaliak

Manexen emantzipazioa

Manex eta kaskabeltz handia

Eguberrietako egun batean, Manex bihurritxoa, baserrian barna zebilen goizerdi aldean. Oporretan zegoen eta bere zorionerako, momentu hartan ere, gogotik gustatzen zitzaion gauza bat gertatzen ari zen: elurra mara-mara ari zuen, berari atsegin zitzaion bezala.

Dagoeneko baziren zenbait egun, elurra egin eta egin ari zuela. Ordurako baserriko inguruek elur-geruza polita zuten. Gauetan izotz handiak egiten zituen eta kanpoko animaliak larritzen eta estutzen hasiak ziren, janaririk ez zutelako aurkitzen.

Hori zela eta, Manex berehalaxe ohartu zen, etxeko hormen ondora hegazti asko hurbiltzen zirela babes eta jaki bila, esate baterako, zozoak, karnabak, kaskabeltzak, txantxangorriak, txepetxak, hormatxoriak, eta abar. Eta, jakina, Manex mutiko mugitu eta bizia izanik, berehalaxe bururatu zitzaion okerkeria bat egitea.

Bazekien ganbaran, nonbait, beste traste askoren artean, kaiola zahar bat zegoela, eta hartaz gogoratu zen aida batean. Zer bururatuko eta txoriren bat harrapatzen saiatzea!

Horretarako, ganbarara igo, kaiola zaharra bilatu eta aurkitu ondoren, zer trikimailu egin behar ote zuen pentsatzen hasi zen. Kaiola, zapata-kutxa baten tankerakoa zen, baina, handixeagoa. Manex segituan konturatu zen kaiolak bi ate txiki zituela, eta hortik berehala etorri zitzaion ideia interesgarri bat burura, alegia, kaiola leiho batean jarri, barruan ogi pixka bat daukala. Baina, hemen heldu da Manexen makurkeria, kaiola leihoan paratu bai, baina kanpo aldera ematen zuen atetxoa itxita utzi zuen, eta, barru aldera jotzen zuena, ordea, irekita.

Leihoa itxi eta Manex logela barruan gelditu zen lasai-lasai, zain, ikusteko ea zer jazotzen zen; mutikoa bere saltsan zegoen. Handik ez denbora luzera, kaskabeltz handi bat agertu zen leihoan, zuhurtasunez, ogiak erakarrita. Txoria kontu eta arreta handiz ibili zen, dena arakatu eta zelatatzen, bere neurriak hartzen, baina, azkenean, goseak menperatuta, txoriak ezin izan zion eutsi barrura sartzeko tentazio eta premiari. Presaka, jaten hasi zen ahal zuen guztia, urdaila ahalik eta gehiena bete, indarra berreskuratzeko eta arrisku hartatik albait lasterren ihes egin bere burua salbatzeko.

Baina, hara! Une hartantxe bertan ez zitzaion agertu bada Manex leiho erdian? Kaskabeltzak, izu-ikarak hartuta, ihesari eman zion aida batean, kanpo alderantz, baina kaiolako ate hura itxita zegoen eta ezin inola ere kalera joan. Mutikoak, ziztu bizian itxi zion barnealdekoa, eta horrelaxe harrapatu zuen kaskabeltz handi hura. Poz-pozik, etxe barrura eraman zuen Manexek kaiola

txoriarekin. Sukaldean, ura eta janari gehiago jarri zizkion, hegaztia gustura senti zedin bere etxe berrian, baina txoria erotu beharrean zebilen kaiola barruan, izu-laborriak hartuta, mokoarekin burdin harien kontra behin eta berriz joz, indar handiz, ihes egin nahian, baina lortzen zuen gauza bakarra, moko alboetan zauriak egitea eta odoljarioa sortzea zen.

Horrelaxe jarraitu zuen kaskabeltz errukarriak egun osoan zehar, kolpeka itsututa, atsedenik hartu gabe, sukaldean ikusteko argitasuna egon zen bitartean.

Manex, oheratzeko garaian, alde batetik, pozik zegoen, egun hartan eskuratu zuelako hain gogokoa zuen txori haietako bat, baina, bestetik, ez zegoen batere lasai eta konbentzituta, kaskabeltz gaixoaren portaera eta jokabide erogarria ikusita.

Biharamunean ere, eguna argitu bezain azkar, zoritxarreko txoria esnatu eta, bezperan bezalaxe, jo eta su hasi zen kaiolako burdin hariak jotzen bere buruaren, hanka egiteko helburu. Ez zuen etsitzen. Moko ondoko zauriak ireki eta handitu egin zitzaizkion. Odoljarioa gero eta larriagoa zen. Horrela eman zuen bigarren egun santu osoa ere, Manexen begiradapean, jateko eta edateko betarik hartu gabe, harik eta gauerako, kaiolako txoko batean, guztiz ahuldu eta abailduta gelditu zen arte. Manexek ez zekien ongi zer pentsatu, baina bigarren gauean ere zeharo kezkatuta oheratu zen.

Hurrengo goizean, Manex gizagaixoaren atsekabea, zoritxarra eta negarraldia, kaskabeltz handia kaiola barruan hankaz gora, hilda ikusi zuenean! Ez zegoen hura inork kontsolatzerik. Goiz osoa erabat erretxinduta eta zapuztuta pasatu zuen, malkoak bukatu zitzaizkion arte. Seguru asko, gertaera hartatik ondorioren bat aterako zuen.

Manex eta karnaba

Manexek, kaskabeltz handiarekin halako atsekabea igaro eta gero, trago txar hura ahalik eta azkarrena gainditzeko, erabaki zuen hoberena zela, berehalaxe beste saialdiren bat egitea. Biharamunean bertan, segituan erreparatu zien karnaba batzuei. Izan ere, halako txoriak, etxe ondoko horma batera ari ziren behin eta berriz hurbiltzen, landare batzuen haziak jateko. Manexi ez zitzaion inola ere pasatu xehetasun bat, alegia, landare hazidun haiek ukuiluko atetik hurbil samar zeudela, eta hori horrela, buruko makineria berehalaxe jarri zuen martxan.

Oso denbora gutxiren buruan, gogoratu zuen pertsona heldu batzuei entzundako kontu bat, hau da, galbahea erabili ahal zela txoriak harrapatzeko, eta berehalaxe oroitu zen haren teknikaz.

Ziztu bizian ukuilura jaitsi, pixka batean bilatzen aritu eta, zorioneko galbahea segidan aurkitu zuen. Garbitu eta txukundu ondoren, orduan bi gauza behar zituen mekanismoa behar bezala martxan jartzeko: lokarri luzetxo bat eta makila txiki bat. Manex azkar mugitu zen etxean barna, ukuiluan, etxebizitzan eta ganbaran. Azkenean, denbora gutxian, dena prest zeukan.

Botak jantzi, berokia soinean sartu eta gerturik zegoen kalera joateko. Kanpoan hotz zegoen eta elurra lodi. Hoztu gabe eta ahal izan zuen modurik bizkorrenean, dena jarririk utzi zuen aida batean: landare hazidunen gainean, galbahea, alde bat lurrean bermatuta eta bestea makilatxo motzaren gainean, hau zutik zegoela. Galbahea lurrera erortzen zenerako, ongi kalkulatu zuen zirrikiturik ez gelditzeko, txoriek ez zezaten ihes egin. Gero, sokatxoa makilari ongi lotu eta ukuiluko leihatilaraino luzatu zuen delako lokarria. Ukuilu barruan jarri, leihatilaren atzean, eta txoriak noiz etorriko zain gelditu zen. Handik denbora gutxira, karnaba batzuk hasi ziren hurbiltzen landare hazidunetara, errezelo pixka batekin, hori bai, baina, hala ere, galbaheari ez zioten aparteko garrantzirik eman eta berehala ekin zioten lanari, hau da, galbahe azpira sartu, landareen gainean pausatu eta haziak jaten hasi. Manexek gorputza pixka bat urduri sumatu zuen, baina, hala ere, lortu zuen bere burua hotz mantentzea, harik eta momenturik egokiena iritsi zen arte. Halako batean, hiru karnaba ikusi zituen galbahearen azpian: bat erdi aldean eta beste biak bazterretan. Orduan zela unerik hoberena erabakita, zapla! tenkatu zuen soka. Galbahea istantean erori zen elur gainera. Manex, ukuilutik atera eta ziztu bizian joan zen ikustera zer gertatu zen tresna azpian. Karnaba bat barruan zegoen harrapatuta; urduri eta oso izututa, jirabiraka hegaldatu nahian. Bazterretako beste biek, ordea, lortu zuten ihes egitea.

Manexek, kontu oso handiz, eskua bahe azpian sartu eta berehala lortu zuen txori gaixoa harrapatzea. Pozaren pozez eta lasterka, berriz ere kaiolaren bila joan zen txori eta guzti, animalia

txikitxo hura hantxe sartzeko. Kaiolan sartu ondoren, eta aurreko egunetako akats berbera ez errepikatzeagatik, erabaki zuena zera izan zen, kaiola etxeko gela ilun batean jartzea, horrela, txoria argirik gabe, iluntasunean, lasaiago egonen zelakoan, mokoka eta kolpeka aritu gabe.

Gauzak horrela, kaskabeltz handiarekin egin zuen bezalaxe, aurkitu ahal izan zuen janaria eta ura kaiola barruan paratu, eta traste gela ilunera eraman zuen; hantxe kokatu zuen kaiola karnabarekin. Manexek arreta eta jakin- min handiz jarraitu zuen txori izutiaren bilakaera. Ilunpetan, hegazti txikia isil-gordeka gelditu zen, kolpe txarrik hartu gabe. Horrela eduki zuen egun eta gau osoan, biharamun arte.

Eguna argitu zuen bezain azkar, mutikoa irrikaz eta aldi berean kezkaz joan zen gela ilunera, bere gatibua ikustea. Une hartan geldi- geldirik eta isilik zegoen, baina argia piztu bezain laster, kaskabeltza bezala hasi zen, izu- laborri kolpeka, ihes egin nahian, eta horrexegatik, zegoen bezalaxe utzi zuen berriz ere traste gelan, egun osoan zehar, ea noizbait etsi eta lasaitzen hasten ote zen. Baina, Manexen zoritxarrerako, bigarren egunsentian karnaba oso makal eta itxura txarrarekin agertu zen; eguerdirako bizitzeari utzi zion, gose, egarri eta ahuleriaren ondorioz.

Manexek berriro ere berebiziko zaputza harrapatu zuen; muzindurik gelditu zen. Auskalo zein pentsamendutan murgilduta geratu ote zen!

Manex likarekin

Manexek, kaskabeltz handiarekin lehendabizi eta karnabarekin ondoren, izan zituen porrot garratzen zaporeak dastatu eta gero, bolada luzetxo batez alde batera utzi zituen txoriak harrapatzeko gogoa eta grina, baina udaberriaren etorrerarekin batera, berriz ere, aida batean piztu zitzaion ideia horixe bera, bere buru geldigaitzean. Izan ere, udaberrian sartzearekin batera, baserri inguruko euntze gehienak hori-horiak jarri ziren, txikori belarren loreen eraginez.

Lore haien haziak, karnabek arrunt gustura jaten dituzte, eta arrazoi horrexegatik, Manexen baserriaren ondoko belardietan, berehala hasi ziren karnaba multzoak agertzen, gustura, jaki goxo hura gozamenez jateko. Baina manex ez zegoen lo, eta hura ikusita, burura aida batean etorri zitzaion likaren ideia. Izan ere, pertsona helduei aspaldian entzuna zien, bazegoela lika izeneko produktu artifizial bat, oso itsaskorra, eta txoriak harrapatzeko zeharo baliagarria zena.

Horiek horrela, egun gutxiren buruan, norbaiten bitartez lika eskuratu, eta mutikoa segituan hasi zen bere kalkuluak egiten; Manex horretan oso trebea zen. Azkenean, hauxe da egitea erabaki zuena: txikori belar loreen artean, bi makilatxo lurrean sartu, bertikalean, eta gainean beste bat horizontalean jarri, futbol atea edota langa balitz bezala. Horizontalean gelditu zen makilatxoa, likaz oso ongi igurtzi eta hornitu zuen, eta jarraian, bere burua urrutiratu eta pixka bat ezkutatzea baino ez zitzaion gelditzen.

Minutu gutxi batzuk igarotakoan, lehen karnaba taldetxoak hasi ziren iristen. Manex urduri eta irrikan jarri zen. Erne-erne begiratzen zion gertatzen zen guztiari. Txoritxo batzuk, poliki-poliki eta konfiantza osoz, inguratzen ari ziren Manexek jarritako tranpara. Halako batean, karnaba xalo bat, Manexen tresnatxoaren gainean pausatu zen. Ihes egiten saiatu
zen, baina hegoak zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta gehiago nahasten zitzaizkion lika malapartatuarekin. Manex, karnaba erabat geldiarazita zegoela ikusi bezain azkar, bere ezkutalekutik tximista moduan atera, animaliatxoarengana joan, kontu handiz hartu eta segituan etxera joan zen, txoritxoa kaiolan sartzeko.

Aurreko bi kasuetako akats berberak ez errepikatzeagatik, alegia, lehendabizi kaskabeltz handiarekin eta gero galbahean harrapatutako karnabarekin, hauxe da Manex burutsuak egin zuena: kaiola barruan, ontzitxo batean janaria jarri eta bestetxo batean ura. Jarraian, presondegi osoa arropa zahar batekin estali zion hegaztiari, kanpoko aldea ikusi gabe, lasaiago egon zedin, baina, aldi berean, argitasun pixka bat utzi zion, janari-edaria ikusi eta hartu ahal zezan, behar zuenean.

Baina, oraingo honetan ere kukuak makur jo zion mutikoari, izan ere, eta berriz ere, txori haren asmo eta gogo bakarra espetxe hartatik ihes egitea baitzen. Janaria eta ura bost axola; haiek zeharo ahaztuak zeuzkan momentu haietan, eta ez zien batere erreparatzen. Kaskabeltzaren kasuan bezalaxe, kartzelaren alde batetik bestera hasi zen mugitzen eten gabe, handik hanka egiteko zirrituaren bila, baina zirrikitua ez zuen inon ere topatzen.

Karnaba gaixoak bitartean, laztura eta izu-ikara itzel haietan, lumaje osoa behin eta berriz bustitzen zuen, Manexek edateko jarri zion edontziaren urarekin, eta horrela, egun pare baten ondoren, hotzeria hartuta, nekeak abailduta eta goseak jota, azkenean, txoritxoa gorpu bihurtu zen.

Gure mutikoa, berriro ere, jota eta porru eginda gelditu zen. Inola ere ezin zuen lortu bere helburua. Deabruaren madarikazioren bat zeukala ematen zuen. Berriz ere, haserre, negarti eta goibel gelditu behar izan zuen, beste aukera hoberen baten zain.

Manex txorikumeekin

Udaberri hartan ere, egunek eta asteek aurrera egin zuten beti bezalaxe, eta horrela, ezinbestean, udaberriaren bukaerara, eta, jakina, udaren hasierara hurbildu ziren Manexen baserrian. Mutikoak, beti bezalaxe, badaezpada ere, erne jarraitzen zituen inguruko txorien mugimenduak, eta, hala, egun batean, bat-batean ohartu zen, karnaba bikote bat bere habia iruten ari zela etxe inguruko sagarrondo batean. Bihotzak jauzi bat egin zion pozaren pozez.

Izan ere, Manexen baserri inguruan sagasti eder bat zegoen, birraitonak aspaldian jarria. Baratze eta etxearen arteko sagarrondo batean ari ziren egiten habia, hain zuzen ere karnaba haiek, goroldio, artile, liken, belar eta abarrekin; egia esan, karnaben habia oso da polita. Baserritar txikiak, egunero-egunero jarraitu zuen habia egitearen prozesu osoa, arreta eta interes handiarekin. Gero, karnaba emearen arrautzak errutearen garaia iritsi zen. Geroago, arrautzak txitatu eta txorikumeak jaiotzea. Ondoren, txoritxo jaioberriak hazteko denbora etorri zen, handitu eta gero, habiatik alde egin eta bizimodu eta abentura berri bati ekiteko.

Baina, ez pentsa ez, denbora tarte luzetxo hartan zehar Manexen burmuina geldirik, lo edota alfertuta egon zenik, ez. Alderantziz, bien bitartean bere ideiak, kalkuluak eta burutapenak garatu eta aurrera eramateko baliatu zuen. Oraingo honetan, bere asmoa, karnaben kumeak hartu –lapurtu, hobeki esanda– eta kaiolan sartzea zen.

Gauzak horrela, Manexi tenore egokia iritsi zela iruditu zitzaionean, txorikumeen gurasoak janari bila urrutian zeudela aprobetxatuta, etxera azkar-azkar joan, kaiola hartu, sagarrondora igo, txoritxoak eskuratu eta kaiola barruan sartu zituen. Berehala, zuhaitzaren enbor eta adar sendo batzuen artean kaiola ongi bermatu, eta handik ziztu bizian ospa egin
zuen, karnaba amak eta aitak jana ekarri eta eman ziezaieten. Izan ere, Manexen asmoa zera zen, gurasoek janaria ematen jarraitzea kumetxoak handitu arte, eta orduan, kaiola etxe barrenera eramatea.

Pentsatu eta gertatu. Esan bezala, mutikoaren lantegia oso ongi zihoan; primeran. Txorikumeen gurasoek eten gabe jarraitu zuten jana eta edana ekartzen deus gertatu izan ez balitz bezala, eta kaiolako kumetxoak egunetik egunera ari ziren handitzen eta sendotzen. Manexek, jakina, ez zien begirik kentzen; disimuluz, baina egunero oso sarritan begiratu eta behatzen zuen nola zihoan hazkunde aldia. Pozak txora-txora eginda zegoen; kriskitinak jotzeko moduan. Zoriontsua zen.

Egun batean, ordea, eta jada txorikumeak nahiko handituta zeudenean, mutikoa jaiki eta goizean

goiz, poz-pozik, beti bezala, sagarrondo aldera joan zen ikusteko nola zihoan bere proiektu garrantzitsua, baina, bat-batean, ia-ia bihotzekoak jo zuen, kaiola lurrean, sagarrondoaren azpian ikusi zuenean, lumaz inguratuta eta txorikume bakar bat ere gabe. Beldur- ikara eta atsekabe hartan, Manexek ingurura begiratu eta segituan ikusi zituen baserriko katuak, bazterretan, goxo-goxo etzanda eta patxada ederrean, erdi lo, sabelak beteta. Orduantxe konturatu zen zer-nolako akatsa egin zuen! Izan ere, kaiola, katuentzat oso leku irisgarri batean jarrita zuen, enborra eta adar batzuen artean, eta hortik etorri ziren Manexentzat ezbehar guztiak.

Berriz ere bihozmina eta nahigabea; sufrimendua eta pairamena. Beste behin ere konturatu behar izan zuen zeinen zaila zen txoriak edota txorikumeak harrapatu ondoren, bizirik iraunaraztea. Argi zegoen, holako zerbait lortu nahi baldin bazuen, jarraitu eta oraindik gehiago findu beharko zuela bere teknika.

Manex berriz txorikumeekin

Dagoeneko, behin baino gehiagotan esan dugun bezala, Manex baserritarra ez zen erraz etsitzen duten horietako bat, ez, alderantziz, tenkorra eta amorerik ematen ez duten horietako bat zen, ordea.

Gauzak horrela, jadanik udan sartuta, gure mutikoa berriro ere ohartu zen, etxe ondoko beste sagarrondo batean, beste karnaba bikote bat habia egiten ari zela. Beste bikote bat al zen, ala agian lehengo berbera? Horixe ez dugu jakiterik izanen. Baina kontua zera da, bi txoriek tinko jarraitu zutela lanean eta egun jakin batean bukatu zutela beren etxetxoaren eraikuntza. Gero, berriro ere etorri zen arrautzak errutea, txitatzea, kumeak jaiotzea eta hazkuntzaren prozesu osoa.

Horraino, Manexek erne baina lasaitasunez jarraitu zuen gertakari guztia, bai baitzekien horretan ez zegoela aparteko zailtasunik, aurreko kasuan frogatu zuen bezala. Beraz, estutasunik gabe itxaron eta, lehendabiziko aldian egin zuen bezalaxe, txorikumeak nahiko koskortuta zeudenean, kaiola berriz ere hartu, zuhaitzera igo, hegaztitxoak lapurtu gurasoak urruti ziren bitartean, eta espetxean sartu zituen, aurreneko saiakeran egin zuen bezala. Baina gauza bat oso presente eduki zuen, ordea, alegia, aurreko akats berbera ez errepikatzea. Horretarako, kaiola goiko adar mehe batean jarri zuen, enborretik urruti, eta gainera lokarri argal batetik zintzilik, era horretan, etxeko katuentzat ezinezkoa gertatzeko kaiolaraino iristea. Eta halaxe suertatu zen halaxe suertatu zenez; katuek behin ere ezin izan zuten kaiola ukitu.

Dena primeran zihoan. Txorikumeak ederki ari ziren handitzen, eta mutikoaren ustearen arabera, handik egun gutxi batzuetara bereganatu ahalko zuen kaiola, etxera eramateko.

Baina, zoritxarreko egun batean, eguzkiak izugarri berotu zuen egun osoan zehar eta ilunabarrerako egunduko ekaitza sartu zuen: tximistak, ostotsak, euria eta baita kazkabarra ere. Hozberoa ere asko jaitsi zuen bat-batean, eta zenbait minutuz gogotik eta indarrez bota zuen, hodeiak hustu arte.

Atertu zuenean eta denboralea urrundu bezain azkar, Manex urduri eta egonezinik atera zen etxetik, sagarrondo aldera joateko, ikusteko nola zeuden txorikumeak. Baina, susmatzen zuen hondamendia gertatua zen; bakar bat ere ez zen salbatu. Bota zuen euri eta kazkabar kopuruarekin, eta, gainera, indar bortitz harekin, karnaben kumetxoak zopa eginda gelditu ziren, gurasoen batere babesik gabe: bustita, kolpatuta, itota eta hoztuta.

Hau beste porrot bat gehiago izan zen Manex gizajoarentzat. Dagoeneko ohitzen hasia beharko zuen galtzera. Ilunabar hartan ere, Manexek ez zeukan zergatiko handirik pozik eta alai etxeratzeko.

Manex papagaitxoarekin

Uda hartan, eta ikusita Manexek zer-nolako zaletasun eta grina zeuzkan txoriren bat kaiolan edukitzeagatik, egun batean, hiriburuko izeba Gotzonek papagaitxo bat ekarri zion kaiola eta guzti: horia, berdexka, isats luzea, oihu zoliak egiten zituena eta, antza denez, erraz bezatzen edo hezten den horietako bat. Manexek pozaren pozez hartu zuen oparia, eta, gainera, izeba maitagarriak horixe esan zion, alegia, txori hura oso mantso, bare eta otzana zela, hots, kaiolatik aterata ere, ez zuela ihes egiten, beti itzultzen zela bere etxetxora, hau da, jende artean eta eskuetan ibiltzen oso ohituta zegoela, azken batean.

Horiek horrela, handik aurrera gure mutikoak ia-ia egunero hartzen eta ateratzen zuen papagaitxoa kaiolatik, berarekin jostatzeko. Batzuetan, eskuetan zerabilen; hor janari pixka bat jarri eta bertatik jaten zion hegaztiak. Beste batzuetan, sorbaldetan, eta, sarritan, baita buruaren gainean ere. Hor, txoria gustura aritzen zen Manexen iletxoekin jostaketan: mokoarekin, orain ile-sortatxo bat hartu eta aztertu, orain utzi, orain ile bakanak mokokatu eta tenkatu eta abar; horrela, luzaroan, aspertu arte. Eta egoki iruditzen zitzaionean, burutik hegaldatu eta normalean kaiolaraino joaten zen, zizparen tiroa bezala, hegalak astinduz zalaparta batean.

Baserritar gaztetxoa horrela ohitu zen ibiltzera papagaitxoarekin etxeko sukaldean, pasabideetan, logeletan, egongelan eta abarrean, lasai eta patxadaz, hainbeste, non, egun batean, kalera eramatera ere ausartu baitzen.

Egia esateko, etxe barruan, papagaitxoa oso txintxo ibiltzen zen, eta, lehenago aipatu bezala, bukaeran beti joaten zen bere kaiolara: batzuetan, gainean pausatzen zen, eta beste batzuetan, atetxoa irekita baldin bazegoen, kaiola barruraino ere sartzen zen bere kabuz. Horrek guztiak, Manexi konfiantza oso handia eman zion txoriarekiko.

Kontua da, baserri hartan, udan, ohitura zutela, eguneko belarretako lanak bukatutakoan, afari-merienda egitekoa, kanpoan, etxe ondoko sagasti azpian. Hori horrela, ilunabar goxo batean, Manexek ausardia handiz, kaiola kanporaino eraman zuen, erabakitasunez. Etxekoek, harrituta, esan zioten:

–Baina, nora hoa? Zer egin behar duk?

Eta Manexek, lasai eta uste on osoarekin erantzun:

–Ba, etxean bezalaxe, papagaitxoa kaiolatik atera.

–Baina, hanka eginen dik, ordea!– ohartarazi zioten.

–Lasai!, nik bai baitakit zertan ari naizen. Hala, bada, kaiola etxeko horman zintzilik ezarri, txoria hartu eta buru gainean jarri zuen, ohituraren arabera, etxeko guztien aurrean.

–Hi ganbaratik egina hago, motel! –esan zioten, berriz ere.

Kontua zera da, gezurra badirudi ere, txoriak hantxe iraun zuela zenbait minutuz, beti bezalaxe,

Manexen kalparrekin jostaketan eta entretenitzen, hango inguruaz erabat ahaztuta. Mutikoaren familiakoak harri eta zur. Manex bera ere, harroturik eta gero eta konfiantza handiagoan ari zen mugitzen alde batera eta bestera.

Baina, halako batean, teilatu eta sagarrondoen gainetik, karnaba talde txiki bat pasatu zen hegan, kantari eta alai. Papagaitxoa, hura ikusita, ez bat eta ez bi, zurrunbilo zalapartari baten moduan abiatu zen ziztu bizian, gainerako gauza eta pertsona guztiak hantxe ahaztuta: Manex, haren ileak, bere kaiola eta abar. Mutikoa sor eta lor gelditu zen. Ez zuen holakorik espero eta ez zekien nola erreakzionatu ere; hobeki esanda, ez zuen batere erreakzionatu. Ahoa bete hortz gelditu zen, zer egin ez zekiela.

Handik gutxira, papagaitxoa intxaurrondoan pausatu zen, karnabekin batera. Manexek, orduan, itxaropen pixka bat sumatu zuen sabelean, baina, zoritxarrez, itxaropen hark oso gutxi iraun zion, bere txoria gainerako karnaba guztiekin batean, ospa egiten ikusi zuenean. Urrutiratuz joan zen, gero eta gehiago, gero eta gehiago, azkenean, begi- bistatik zeharo galdu arte.

Manexek, badaezpada ere, luzaroan itxaron zion papagaitxoari, ikusteko ea damututa-edo itzultzen ote zen haren kaiolara, baina ez, inondik ere ez zen itzuli, eta mutikoa hantxe gelditu zen, goibel, amorratuta, lotsa gorritan, atsekabeturik eta erdi negarrez, gora begira, zerurantz, kaiola hutsik aldamenean zeukala, eta, gainera, etxekoen adarra jotze, iseka eta trufa maltzurrak jasan behar:

–Ai, babalore halakoa! –aitak, barrez.

–Sasijakintsu ustezkoa! –amak, algaraka.

–Hi haiz hi txoroa! –anaia zaharrenak, iseka eginez.

–Ergela izan behar duk hori ez jakiteko –arrebak, harpa joz.

Ilunabar hartan Manex ohartu zen, oraindik gauza asko zituela ikasteko, eta apalxeago jokatzeak ez dakarrela kalterik.

Manex tiragomarekin

Handik egun batzuetara, baserri inguruan, Manexek langa baten ondoko beste sagarrondo batean, kaskabeltz handi batzuen kumeak beren gurasoekin zebiltzala ikusi zuen, adarretan, hegaka, adar batzuetatik beste batzuetara; habiatik hegaldatu berriak. Oraindik oso gaztetxoak ziren, eta hegal kontuetan trakets zebiltzan, normala den bezala: astiro, baldarki, segurtasunik gabe eta hegaldi oso motzak egiten zituztela.

Mutikoak berehalaxe izan zuen burutapen bat, alegia, etxera joan, tirabikea hartu, larrainean ezker sakela harri koskorrez bete eta txorikumeen bila abiatu. Poliki eta kontu handiz hasi zen hurbiltzen txoritxoengana, ez izutzeko. Kumetxoak ez ziren konturatu, eta, ondorioz, ezta asaldatu ere. Baserritar gaztetxoari iruditu zitzaionean nahiko hurbildu zegoela, ordurako prestatuta zeukan tirabikea, txorikume baten aldera bideratu, arreta handiz apuntatu, ongi-ongi kalkulatu..., baina harritxoa jaurti baino lehen, hegaztitxoa beste adar batera mugitu zitzaion; zorte txarra!

Manexek egoera egonarri handiz hartu eta berriro ere saiatu zen apuntatzen. Txorikume berberarekin jardun zuen, eta tirabikea ongi bideratuta zeukala iruditu zitzaionean, hantxe bota zion legarra, baina, zoritxarrez, ez zuen jo hegaztia, ondoko adartxo bat baizik. Txorikumea arriskuaz ohartu bezain laster, alboko lizar batera joan zen bere hegaldi baldarrean. Baina, sagarrondoan bazeuden oraindik beste bi kaskabeltz kume. Haietako bat aukeratu eta hari saiatu zitzaion hirugarren aldiz harri koskorra botatzen. Patxadaz kalkulatu, apuntatu eta berriro jaurti. Eureka! Oraingoan bai! Azkenean, txorikumea harriarekin jo eta lurrera botatzea lortu zuen gure mutiko bihurriak; goitik behera eta jira- biraka joan zen txoritxo gaixoa lurreraino.

Manex pozak txoratzen, tirabikea lurrera bota, eta ziztu bizian abiatu zen txorikumea harrapatzera; lasterka. “Azkenean! Hauxe nirea duk, ba!”, pentsatu zuen bere baitan. Txoritik hurbil zegoen. Makurtzen hasi zen bere harrapakina hartzeko, baina, hara!, a zer ustekabea! Azken momentuan, lumaduna hegaldatu eta bere muturraren aurrean ez zion hanka egin, ba? Mutikoak ezin zuen sinistu ikusten ari zena; ez zuen inola ere onartu nahi gertatzen ari zitzaiona, baina, azkenean, tamalez berarentzat, ontzat hartu beste erremediorik ez zitzaion gelditu.

Eta, zer izan zen, ba, gertatu zena eta Manexek inondik inora ere ulertu ezin zuena? Zein misterio arraro izan zen hura, txorikumea hil ondoren berpiztu al zen, ba? Ez, ez, ez! Hantxe ez zen inolako ezkutukorik gertatu. Pasatu zena zera izan zen, mutikoak urduritasunarekin indar gutxiz bota ziola harrixka txoritxoari eta horren ondorioz, kaskabeltz txikia zorabiatu, txepeldu eta lurreraino joan zen goitik behera, sagarrondoaren adar eta hostoen artean, baina behin behean zegoela, soropilean, eta segundo batzuk igarotakoan, berriro ere ernatu eta hegan egiteari ekin zion, Manexen atzaparretatik ihes egiteko eta aske izan zedin.

Ordurako, Manexen eskarmentua ez zen nolanahikoa galbide eta galera haietan, baina hala eta guztiz ere, berriro ere egundoko muturrekoa hartu zuen; frustrazio galanta.

Manex belarretan

Uztaileko egun batean, goiz-partean, Manex bizi zen baserrian, belar lanetan ari ziren jo eta su, belar giroa, hau da, eguraldi eguzkitsu eta beroa aprobetxatzen ari ziren denak emanda. Mutikoak ordurako, gainditua eta nahiko ahaztua zuen tirabikearekin jasan zuen porrot txikia.

Egun hartan, baserritik goiko aldean zuten belardi aldapatsu batean tokatzen zitzaien lan egitea; izena Goiko euntzea zuen. Hain maldatsua zen Goiko euntzea, non behi gurdia orekatu eta kargatu ahal izateko, belar soroan, goiko aldean gelditzen zen gurpilaren parean, alegia, lurrean, zulo bat egin behar izaten baitzuten, gurpila sartu eta erosoago lan egin ahal izateko, gurdia behin horizontal gelditu eta gero.

Goiz hartan, Manex anai-arreba eta gurasoekin, lehendabizi, belarra zabaltzen aritu zen, eta geroago, belarrari buelta ematen, ahalik eta azkarrena lehortu zedin. Goizerdian, denek atseden polita hartu zuten, aldapa erdi-erdian, hesian bertan zegoen haritz handi baten itzal azpian, iturritxo baten ondoan. Iturburua lurrean berean zegoen eta hantxetik bertatik hartzen zuten ura pitxer baten bidez. Ura hotz ateratzen zen iturri hartan, gutxi, baina goxoa suertatzen zen, batez ere, bero handiko egunetan, egun hartan egiten zuen bezalaxe. Hala eta guztiz ere, kontu handiz ibili beharra zegoen ura pitxerrarekin hartzeko momentuan, putzu txikitxo hartan izainak bizi izaten baitziren.

Dena den, harako hartan, baserritarrek ez zuten batere arazorik izan izainekin. Ur gardena oso gustura edan zuten denek, ase arte; inor ez zen egarri gelditu. Ura edaten bukatu ondoren, haritz handiaren itzal azpian kokatu eta pausatu ziren denak, atsedenaldian jarraitzeko, eta, geroxeago berriz lanari ekiteko. Horretan ari zirela, pitxerra erabili zuen anaia batek, aldarte onean, txantxa bat egiteagatik zer bururatuko eta, pitxerrean gelditzen zen azken ur hondarra ez al zion, ba, bota Manexi goitik behera? Azken hau biziki haserretu egin zen, baina txikiena izanik, ez zuen modurik ikusten inolako mendekurik hartzeko, eta, gauzak horrela, erabaki zuena zera izan zen, lehenago ebaki eta itzulikatutako belarraren gainean etzatea, eguzkitan. Niki bustia erantzi eta hantxe etzan zen ontzen ari zen belarraren gainean.

Esan liteke mutikoa gustura gelditu zela etzanda, ahuspez, bizkarra lehortzen, goxo-goxo eta epel-epel, erdi lo. Baina, halako batean, erdi lo erdi esna zegoela, zaratatxo iraunkor txiki eta leuna entzutea iruditu zitzaion, sabelaren azpian. Burua altxatu, begiratu, eta, arraioa mila demonio!, ez al zuen ikusi, ba, sugegorri bat ateratzen, urdail azpian zituen belarren artetik? Jauzi batean zutik jarri eta oihuka hasi zen:

–Sugea, sugea! Lagundu! Azkar! –estu eta larri. Lehenago pitxerreko ura bota zion anaiak berak, jaiki, bihortzekoa hartu eta egundoko makilakada eman zion sugegorriari bizkarrezur erdi-erdian. Sugea bizirik, bai, baina ibili ezin zela gelditu zen, bizkarrezurra hautsita. Geroxeago, buruan beste hainbat kolpe emanda, azkenean, sugegorri gaixoa hilotz gelditu zen. Manexen anaia hark berak, suge hila bihortzekoarekin hartu eta euntzean goitik behera, bortizki jaurti zuen, urrutira. Zoritxarreko sugegorria hantxe joan zen airean, hegan, nonbait erori eta galdu zen arte.

–Ai, ai, ai, oilobustia halakoa! –bota zion lehengo anaiak berak Manexi.

Manexek, orduko hartan ere isil-isilik gelditu behar izan zuen, txintik ere esan gabe, eta beste guztien aurrean gainera, koldar baten moduan.

Manex astoarekin

Urte hartako udazken hasieran, hau da, belarretan izandako azken ustekabekoa gertatu eta handik aste batzuetara, mutikoa berriz ere adoretuta zegoenean arratsalde batean, beren baserri ondoan, auzokoaren belar soro batean, haren asto beltza ikusi zuen Manexek. Asto zaharra euntze maldatsu batean ari zen belarra lasai-lasai jatean; bakarrik, patxadan eta bakean. Pentzearen aldapa ikusita, baserritar txikiak pentsatu zuen, beharbada ez zela batere zaila izanen asto beltzaren gainera igotzea.

Halaxe, ba, harantz abiatu zen segituan mutikoa. Langan barna sartu eta pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen hasi zen, lasai eta bestela bezala. Gertu samar zegoenean, Manex goxo-goxo hasi zitzaion hizketan belarriluzeari, ez uxatzeko. Lau hankadunak ez zuen zirkinik ere egin.

Hori horrela, mutikoak hurreratzen jarraitzeko aprobetxatu zuen.

–Potx, potx! –esan zion, samurtasunez.

Asto zaharrak bazkatzen segitu zuen, deus gertatu izan ez balitz bezala. Hori ikusita, baserritar txikiak konfiantza hartu, astoaren bizkarra laztandu “potx, potx!” esaten zion bitartean, eta momentu egokia iruditu zitzaionean, jauzi arin eta azkar batez, astoaren bizkar gainean jarri zen aida batean.

Asto beltzak berdin-berdin jarraitu zuen bere eginkizunetan, jaten, patxadatsu, bizkar gainera hosto arin bat erori izan balitzaio bezalaxe.

–Hau egina zegok! –pentsatu zuen Manexek bere baitan, dagoeneko lasaituta.

Bi hankekin, sabelean kolpetxo batzuk ematen hasi zitzaion astoari, “arre, arre!” esanez, ibiltzen has zedin; martxan jartzeko.

Asto beltzak berean jarraitu zuen, belarra jaten, burua goratu gabe. Mutikoak berriz:
–Arre, arre, astoa! –ahoarekin soinu zoli egoki bat egiten zuen bitartean, astoa abia zedin. Hala ere, momentuz ez zuen deus ere lortu; animalia belarriluzea geldirik. Mutikoa dagoeneko urduritzen eta kezkatzen hasita zegoen, asto zaharra gaizki ote zegoen; gaixorik- edo.

Baina, halako batean, lau hankaduna esnatu, erreakzionatu eta jauzika hasi zen lasterka, dozena bat

ezparak aldi berean eztenkatu izan balu bezala. Burua jaitsi, bizkarra astindu eta ostikoak ematen hasi zen bat- batean; nonbait, berandutxo izan bazen ere, bizkar gainean sumatu zuen zamak ez zion batere graziarik egin.

Manex gizagaixoa, horrek guztiak zeharo ustekabean harrapatu eta hantxe joan zen pikutara, hankaz gora, lurreraino. A zer bizkarrekoa hartu zuena, Jainko maitea! Eta hala ere, esan liteke nahiko zorte ona izan zuela, astoak ez ziolako ostikoz jo edota gorputza zapaldu.

Hori guztia gertatu eta gero, mutikoak berehala asto zaharra hantxe bertan utzi eta etxera abiatu zen apal eta batere harrokeriarik gabe. Etxean sartu eta mutu gelditu zen; isil-isilik. Inori ez zion hitz erdirik ere esan. Gauen, umil-umilki afaldu eta ohatzera. Gau hartan bai gustura hartu zuela ohea Manexek!

Manex eta elurte handia

–Manex, gaur elurra mara-mara ari dik! Gelditu lasai ohatzean, eskolara joateko eguraldi txarra baitago. Gaur ez zarete joanen –esan zion amak goiz batean semeari, jaikitzeko garaian. Izan ere, eskolaraino iristeko bi bat kilometro egin behar izaten zituzten oinez, eta dena euntze, gurdibide, zubi eta bidezidorretan barna.

A zer mauka, Manexena! Huraxe bai gustura entzun zuela mutikoak! Alegia, eskolarik ez eta gainera elurra! Zer gehiago eskatu ahal zuen?

Garai hartan, orain dela 50 bat urte, baserri haren inguruetan, elurte ugari eta handi samarrak botatzen zituen ia-ia urtero, salbuespenak salbuespen. Baserritar txikiak oso gogoko zituen elurtzak, neurri handi batean, beharbada, horrexegatik, alegia, elur- erauntsiak egiten zituenetan, amak baimena ematen zielako sasieskola egiteko. Eta, bai, elurra egiten zuen bakoitzean, Manex segundorik ere galdu gabe saiatzen zen aprobetxatzen denbora guztia; dena emanda! Arrunt gustukoa izaten zuen batez ere, elur ugari atertu gabe nola egiten zuen ikustea. Landak eta mendiak nola joaten ziren pixkanaka-pixkanaka zuritzen, elur geruza handitzen eta gizentzen. Aukera zuen guztietan kalera atera eta elurrarekin jostatzen zen, bakarrik edota anai-arrebekin. Batzuetan, panpinak eta irudiak egiten, beste batzuetan, batez ere aldapa handietan, elur gurpil antzeko bola erraldoiak egiten eta goitik behera botatzen, eta beste une batzuetan, pilotakadaz. Momentu batzuetan, Manexek berak ematen zituen pilotakadak, baina, beste askotan, berari tokatzen zitzaion kolpeak jasotzea, batik bat, gogoan edukita bera zela anai- arrebetan gazteena, eta, ondorioz, baita txikiena ere.

Baserrian bazuten elur lera bat, zurezkoa, anaia zaharrenek lehenagotik egina, eta, hartan ere hagitz gustura aritzen zen Manex gora eta behera, besteek uzten ziotenean, jakina. Zorioneko egun hartan, baserritar txikia jaiki zenerako bazeuden 15 zentimetro elur baino gehiago, eta, esan liteke egun osoan ia-ia ez zuela batere atertu, horregatik, gauerako oso elur geruza handia jarri zuen, 60ren zentimetro; mutikoa, pozak txoratzen hura ikusita! Baina, horrenbeste bota baino lehen, goizean eta bazkal aurrean ere bete-betean aprobetxatu zuen egoera hura, bakarka eta taldeka, gorago azaldutako moduan. Leran ibiltzen ere eman zuen bere denbora, libre harrapatzen zuenean, noski. A zer gozatua egun hartakoa!

Eta horrela, mutikoa ohartu orduko, gau iluna iritsi zitzaion eta etxean errenditu behar. Afaldu eta ohatzera joan zen, gogoratuz zeinen egun bikaina pasatu zuen.

Oheratu zenean, oraindik elurra mara-mara ari zuen eta horrek bultzatu zuen esna ere amets egitera, hau da, pentsatzera biharamunean ere eguraldiak berdintsu jarraituko zuela, eskolara ere, bezperan bezalaxe, piper baimendua eginen zuela, eguna jostaketa batean emanen zuela elurretan etxe inguruan, berriro ere elurra sapa-sapa botatzen ikusi eta miretsiko zuela eta abar, eta abar. Baina, bai zera! Biharamun goizean, amatxo bere logelan sartu zenean, oso ezberdina zen zerbait entzun zuen, bere zoritxarrerako:

–Tira, Manex, jaiki hadi, gaur elurrik ez dago eta! Eskolara ez joateko aitzakiarik ez zegok.

–Zeeer? Nolaaa? Zer diozu, ez dagoela elurrik? – erantzun zion semeak asaldatuta, begietako

makarrak garbitu baino lehen.

Mutikoa ziztu bizian jaiki, leiho ondora joan eta egun hartako errealitate gordina ikusi zuen bere bi begiekin. Izan ere, bera ohartu ez bazen ere, gauerdi aldean, haizea aldatu, giroa mendebaldu eta zeharo epeldu egin zuen. Horren ondorioz, gau osoa eman zuen euria barra-barra egiten eta, jakina, aurreko egunean pilatutako elur gehiena lurmendu eta urtu egin zen; hondar gutxi eta txiki batzuk baizik ez ziren gelditzen. Harrigarria bazen ere, halaxe gertatu zen. Manexek ezin zuen sinistu ikusten ari zena. Etxe ondoko errekatxoa ere erabat handituta zihoan, zarata izugarri handia eginez eta ur uherrekin.

Mutikoak, ezinbestean, bere burua prestatu, gosaldu eta zorroa hartuta, eskolara joan behar izan zuen bere anai-arreba batzuekin, euntze, gurdibide, zubi eta bidezidor guztiak zeharkatuz. Goiz hartako aldartea, aurpegiera eta umorea oso bestelakoak izan ziren bezperakoekin alderatuta, baserritar txikiaren baitan. Eutsi eta aurrera!

Manex katakumeekin

Manex bizi zen baserrian katu ugari izaten zituzten beti, sei edo zazpi gutxienez, etxe inguruko bazterrak animaliaz garbiak edukitzeko, izan ere, katuek saguak, satitsuak, satorrak, sugeak, ziraunak, muskerrak, sugandilak, matxinsaltoak, txoriak, tximeletak, arkanbeleak, kakalardoak eta abar jaten edo behintzat hiltzen baitituzte. Katu gehienak gainera emeak izaten ziren etxe hartan, eta, noski, horrek esan nahi du baserri hartan katakume asko jaiotzen zirela, urtean behin, behetik jota, udaberri aldean, gehiagotan ez baldin bazen behintzat.

Gauzak horrela, baserri hartan, askotan, bat- batean topatzen ziren sei, zazpi edo zortzi katakumerekin, eta, jakina, denak aurrerako utziz gero, urte gutxitan etxean katuak pilatuko lirateke erruz. Eta, zein zen, ba, garai hartan arazo horri ematen zioten aterabidea? Ba, konponbidea, ona ala txarra, ankerra ala ez, animaliatxo txiki haiek gehienak akabatzea zen. Garai hartan Euskal Herrian ez zegoen animaliak babesteko elkarterik, giza talderik edota erakunderik, eta horrelaxe jokatzen zen; orduan guztiz normala zen eta halaxe jarduten zen. Beste alde batetik ere, ez zen batere erraza katakume haiek inori ematea, ia-ia mundu guztiak katuak zituelako bere etxean.

Hori horrela izanik, ba, baserriko mutikoa zain egoten zen ea amak edo aitak noiz esaten zion:

–Manex, katakume gehiegi ditiagu. Utzi kateme bakoitzari ume bana eta gainerakoak akaba itzak, bai, maitea!

Hori entzunda, mutikoa poz-pozik jarri eta berehala hasten zen bere jardunean. Ganbarara igo eta soberan zeuden katakumeak, inolako eskrupulurik gabe lapurtzen zizkion bere amari. Baina, lehenik eta behin, kumetxo guztiak aztertzen zituen, bere ustez, katutxorik egokiena salbatzeko.

Katakume haiek txiki-txikiak izaten ziren, jaioberriak, begiak oraindik ere ireki gabe izaten zituzten eta ilea motx-motxa. Hainbat koloretakoak izaten ziren: xuriak, beltzak, gorrixkak, arreak, ñabarrak eta abar. Eskuetan hartzerakoan, beren gorputz bero-beroak sumatzen zituen Manexek. Esan bezala, gorputzak ñimiñoak zeuzkaten, baina, hala ere, lodiak eta bete-beteak, alegia, beren amaren esneaz ongi elikatuak zeuden seinale.

Hala, bada, katu ama errukarriari aukeratutako ume bakarra utzita, ukuilura jaisten zen Manex gainerako kumeekin eta han porlanezko zoru puska on bat bilatzen zuen, edo, bestela, larrainean harlauza egoki bat. Erabaki ondoren non akabatuko zituen katakumeak, banaka-banaka bortizkeria handiz jaurtitzen zituen zoruaren aurka, bere indar guztiekin. Kask entzuten zen eta eskuarki une berean hiltzen ziren animaliatxo koitaduak. Eta behin ganbarako guztiak akabatu eta gero, gauza bera egiten zuen ukuiluan aurkitzen zituenekin; seko uzten zituen aida batean, modu berean, inolako arretarik gabe. Kontu jakina da: haurrek zer ikusi, hura ikasi.

Egun hartan behinik behin, baserritar txikiak gustura bukatu zuen bere jardunaldia; harro bere buruaz, lana ongi burutu izanaz asebeteta. Katakumeak behintzat ez zituen bota bizirik errekara, beste leku askotan egiten omen zuten bezalaxe. Zerbait bada.

Handik hiru-lau urtetara, baserrian karabina bat erosi zuten, nahi zuenak erabil zezan, eta, jakina, Manexek ere behin baino gehiagotan hartzen zuen. Perdigoiak eta balinak jaurtitzen zituen; oso

gustukoa zeukan. Horrela, bada, egun batean, katakume batzuk akabatu behar zituenean, bururatu zitzaion ea zer moduz moldatuko ote zen karabinarekin tiroak emanda.

Gauzak horrela, animaliatxo errugabe bat hartu, larrainera eraman, karabina kargatu eta ordurako lurrean utzita zeukan katakume babesgabeari, tiro egin zion hurbiletik, ongi apuntatu ondoren. Katutxo gaixoak garrasi egin zuen, baina ez zen hil, nahiz eta oso gaizki zaurituta gelditu. Manex urduritzen hasi zen, ez baitzuen horrelakorik espero. Karabina berriro kargatu eta berriz ere jaurti zion beste balin bat keinatu ondoren, hurbilagotik. Katakumeak berriro ere egin zuen kexuren bat, baina bizirik zirauen. Mutikoari ez zitzaion batere gustatu han gertatzen ari zena. Egonezin eta urduriago jarri zen, argi eta garbi nabaritzen baitzuen zorigaiztoko katutxoa nola ari zen sufritzen, eta horrelakorik ez zuen nahi inondik ere.

Etsipen eta larritasun haietan, karabinari beste balin bat sartu eta oraingo honetan bertatik bertara eman zion tiroa animalia txikitxoari, buruan. Hiru zauri zituen dagoeneko, odoleztatuak, baina oraino ez zekien seguru bizirik ala hilda ote zegoen katu urrikalgarria, horrexegatik, azkenean, badaezpada ere, eskuaz hartu eta harri baten aurka bota zuen bere indar guztiekin, bortizki bota ere.

Orduan, bai, azkenik ematen zuen katakumea erabat hilda zegoela. Manexi oso luzea eta mingarria gertatu zitzaion ekintza hura; arrunt gaizki pasatu zuen, asko sufrituta. Nekez ahaztuko zitzaion noizbait igarotako infernu hura. Gogotik damutu zitzaion, eta horrexegatik, bere buruari zin egin zion, sekula santan ez zuela berriz ere erabiliko halako metodoa, katakumeak akabatzeko.

Manex eta trikua

Trikuak baditu hiru izen ofizial gutxienez, eta, Manexen baserrian horrelaxe deitzen zioten, baina Euskal Herriko beste lurralde batzuetan kirikino eta sagarroia ere esaten diote. Antza denez, trikuak gauzaleak dira, eta iluntzen duenean ateratzen omen dira janari bila. Besteak beste, honako animaliatxo hauek ditu bere menu barruan: barraskiloak, bareak, intsektuak, harrak, txoriak, sugeak eta abar. Norbaitek ukituz gero, berehala kiribildu egiten dira kirikinoak, beren burua babesteko; pilota bat bezala jartzen dira, inork kalterik egin ez diezaien.

Trikuak oso animalia bitxiak dira, esate baterako, azpiko aldean hankak eta atzaparrak ezkutatuta dauzkate ile gogor eta latz samar batzuekin, isatsa eta belarri txikiak ere gorderik, eta era berean zango motzak. Muturra kono egiturakoa daukate; zorrotza. Baina, gorputzaren gaina eta alboak arantzaz inguraturik dute, morkots baten moduan, beren burua ezkutatzeko.

Udaberriko goiz batean, Manex baserri inguruko errekatxoaren ondoan zebilen zer suma, eta, halako batean, zer ikusiko eta trikukume bat topatu zuen, oinez, bere martxan lasai-lasai zihoana, antza denez, berandu samar, eguna aspalditxoan argituta baitzegoen. Lasai-lasai, noski, mutikoa agertu zen arte; baserritar txikia sumatu bezain azkar, bildu-bildu eginda jarri baitzen, zer gerta ere. Manexek egundoko jakin-mina zeukan aspalditik ezagutzeko nolakoak ziren trikuak azpitik eta barrutik; ezin zuen irudikatu, trikuak beti kiribildu egiten baitzitzaizkion, pixka bat hurbilduz gero.

Hala, bada, goiz hartan, kume hura ustekabean topatutakoan, Manexi begitandu zitzaion aukera polita izan zitekeela, saiatzeko ikusten ea nolakoa ote zen triku txiki haren azpiko aldea. Horretarako, zer bururatuko eta, makilatxo bat hartuta, animaliatxo gaixoa zanpatzen eta behartzen aritu zen, hankak ikusteko. Tripaz gora jarri eta hankatxoak aterarazten saiatzen zen makilarekin, baina pixkatxo bat ikusi orduko, trikua berriz ere pilota biribil bat bezala jarri eta mutikoak ezin izan zion barrualdea ikusi.

Minutu batzuk igarota eta oharturik modu hartan ezin zuela lortu nahi zuena, orduan hankekin eta makilatxoarekin erreka bazterreraino eraman zuen triku bolatxoa, arrastaka eta bultzaka, eta geroxeago uretan sartu. Makilarekin beherantz zanpatzen zuen, itolarri hartan hankak eta burua ager zitzan. Pixka bat agertzen zituenean, Manex ahalegintzen zen azpiko aldea ikusten, baina biratu bezain azkar, berriz ere berehala ezkutatzen zituen hankak, isatsa eta burua, eta Manex, orduan, lehen baino irrika handiagoarekin gelditzen zen trikuaren barrualdea behatzeko.

Egia esan, mutikoari ez zitzaion bururatu trikua tripaz gora jartzea makilarekin murgiltzerakoan,

horrela, zabaltzen zenean, nahi zuena errazago ikus zezan, baina, ez, lehendabiziko aldian bezalaxe saiatu zen behin eta berriz, amorratuta, bihozgabe jokatuz, gero eta suminduago, bere helburua lortzearren. Baina, inola ere ez zuen erdiesten nahi zuen jomuga, eta eskuratzen zuen gauza bakarra zera zen, triku txikia gero eta gehiago itoaraztea, halako moduan, non Manexek beldur sentitu baitzuen kume hura hantxe bertan hil eginen ote zitzaion.

Gauzak horrela, baserritar txikia, izututa, ohartu zenean zer egiten ari zen animaliarekin, triku gaztetxoa uretatik atera eta aske uztea erabaki zuen berandu baino lehen, eta, jarraian damu sakona sumatu zuen kontzientzian; oso gaizki sentitu zen, eta zin egin zion bere buruari, sekula santan ez zuela halako ankerkeriarik berriz errepikatuko.

Manex eta habiak

Udaberri aldean, Manexek, eskolara joan eta itzultzen zen bitartean, bere ibilbidea gauza ugari egiteko aprobetxatzen zuen. Haietako bat habiak bilatzea izaten zen. Joan-etorri haietan mota askotako habiak aurkitzen zituen gainera, konparazio batera, birigarro, karnaba, txepetx, hormatxori, zozo, galeper habiak eta abar. Baina, gure gaztetxoa ez zen horrekin konformatzen, ez, aurkitu eta ikusteaz gain oso gogoko izaten baitzuen topatutako habiaren jarraipen xehea egitea, hau da, esate baterako, habia nolakoa zen, arrautzak zein koloretakoak ziren, txorikumeek zer itxura zuten, zenbat ziren, zenbat denbora kostatzen zitzaien haztea eta hegaldatzea, eta bat eta beste; hori guztia jakitea gustatzen zitzaion.

Hala ere, ez dezagun pentsa lan hura oso erraza zela, ez, inola ere ez, zeren eta habiak oso leku ezberdinetan egon ahal baitziren, adibidez, batzuk, euntzeetako lurrean egon zitezkeen, belarren artean, beste batzuk, sasi txiki batzuen barruan, beste batzuk, ordea, hesien barnean, bestetzuk, zuhaitzetako adarretan, horma txikietan, handietan, teilatu- hegaletan eta abar, eta abar. Beraz, denek ez zuten erraztasun berbera behatuak gertatu ahal izateko; batzuk oso errazak ziren, baina, beste batzuk, ordea, arrunt zailak. Hortaz, bada, kuxkuxean aritzeko erraz samarrak ziren habia haiekin saiatu egin behar.

Gauzak horrela, udaberriko egun argi eta goxo batean, baserritar txikiak, eskolarako bidean, zozo habia bat topatu zuen; pozak txoratzen jarri zen. Ederra zen: ongi ehundua eta polit apaindua. Hesi baten adar batzuen artean zegoen, ikusteko erraz samarrekoa. Hurbildu zenean, zozoak izututa alde egin zuen, ziztu bizian, hegan eta garrasika; protestaka. Bertatik bertara begiratu eta lau arrautza eder ikusi zituen, elkarren ondoan, habia erdi- erdian; argiak. Manexek dar-dar egin zuen hartutako zirrara eta ilusioarekin. Bitartean, habiaren jabeak, emea eta arra, hantxe zebiltzan, inguruan, hegaka, urduri, beren arbuioa adierazten eta mutikoa uxatu nahian.

Azkenean, handik gutxira, Manexek herri aldera jo zuen, habia hantxe utzita, eskolara garaiz iristeko; pozik eta alai jo ere.

Hurrengo egun eta asteetan ere antzeko moduan aritu zen mutikoa, kuxkuxean, txorikumeak noiz jaiotzen ziren ikusteko. Baina, zozo amak eta aitak ere inguru haietan jarraitzen zuten Manex ikusiz, gogaituta, nazkaturik eta asper-asper eginak.

Denborak aurrera egin zuen, baina, mutikoak, ordea, ez zuen inolako aldaketarik sumatzen, ez zuen bilakaerarik aurkitzen; berantetsia zegoen. Etsitzen hasia. Ez zuen ulertzen zer gertatzen zen.

Azkenekoz, egun batean, gai hari susmo txarra hartu zion; hura ezin zela logikoa izan pentsatzen hasita zegoen, ezta normala ere. Egunak joan, egunak etorri, eta txorikumeak ez ziren jaiotzen; arrautzen oskolak ez ziren lehertzen. Beste alde batetik ere, ordurako Manex ohartuta zegoen, hantxe jadanik ez zituela topatzen zozo ama eta aita, hasieran bezalaxe. Oso harrituta zegoen.

Azkenik, jakin-minari gehiago ezin eutsi, eta arratsalde batean, eskolatik etxerako bidean, Manexek erabakimenez habiatik arrautza bat lapurtu eta ikertu nahi izan zuen, zer gertatzen zen zorioneko arrautza haiekin jakiteko. Azala kontu handiz kraskatu eta barruan zer zeukan arakatzen hasi zen; agian txorikumea jaiotzear egonen zen. Egia esateko, mutikoak ez zekien zehazki zozoek zenbat

egun behar izaten zituzten arrautzak txitatzeko, baina, bere ustez, dagoeneko egun gehiegi zeramatzaten habian kumeak jaio gabe, gauza onerako. Segituan, sekulako kiratsa sumatu zuen. Zalantzarik gabe, arrautza hura zeharo ustelduta zegoen; hantxe ez zen dudarik txikiena ere. Geroxeago, gauza bera gertatu zitzaion bigarren, hirugarren eta laugarren arrautzarekin ere. Argi zegoen, hantxe zerbait ez zen joan normalean bezala.

Bere harridura eta kontraesan guztiekin, baserrira iritsi zenean, anaia zaharrenari gertatutakoa kontatu eta orduan ulertu zuen zer pasatu zen, anaiak dena zehaztasunez kontatu zionean, alegia, hegazti askok, kuxkuxean oso zirikatuak eta miatuak sentitzen baldin badira, orduan habia zapuztu egiten dutela, hau da, bertan behera utzi eta abandonatu betiko, eta, antza denez, huraxe izan zen Manexen habian ere gertatu zena.

Ordura arte ez zekien horren berririk, baina handik aurrera, gogoan oso ongi hartu zuen zirikatze haien arriskua. Beste ustekabe eta porrot txiki bat gehiago gure protagonista saiatuarentzat.

Manex eta birigarroak

Dagoeneko jakina da Manex ez zela erraz etsitzen duten horietako mutiko bat. Hori horrela, handik egun gutxitara, eta berriz ere baserriaren eta eskolara arteko bidean, beste habia bat topatu zuen, kasu honetan birigarroek egina, zuhaixka batzuetan.

Buruan oraindik oso presente zeukan, zozoekin gertatu zitzaiona egun batzuk lehenago, eta, horrexegatik, bere buruari zin egin zion oraingo honetan askoz ere arreta eta ardura handiagoarekin ibiliko zela, akats berbera ez errepikatzeko. Hala, bada, habia aurkitu eta gero, mutikoa luzaroan aritu zen bilatzen unerik egokiena kuxkuxean egiteko, habiaren jabeak konturatu ez zitezen.

Momentu jakin batean, alegia, bi gurasoak habiatik urrunduta zeudenean, orduan aukeratu zuen baserritar txikiak abagunea habiaraino iristeko. Esan bezala, habia zuhaixka batzuen adarren artean zegoen, garai samar, eta, gainera, behean, zuhaixkak baino lehenago eta baita inguruetan ere, sasi, elorri, ote eta asun dezente zeuden, horrexegatik, denbora luzea eta ahalegin handia kostatu zitzaizkion zuhaixketaraino ailegatzea.

Behin zuhaixken ondoan egon eta gero, beste zailtasun bat ere bazeukan zain, orain habia zegoen lekuraino igo behar zuen, barruan zer zeukan ikusi ahal izateko; bi bat metro gora, adarren artean. Hala, bada, erne eta zoli ekin zion igotzeari eta segundo batzuen ondoren, aparteko eragozpenik gabe, goraino iritsi zen.

Habiak kopa itxura dotorea zeukan, ederki josia, eta, barruan, hiru arrautza urdin eta eder ikusi zituen. Kontu handiz, deus ere ukitu eta mugitu gabe, berehalaxe jaitsi eta alde egin zuen handik, birigarro ama edo aita itzuli baino lehen. Presaka, lasterka eta isilik ibili zen, lapurrak bezala, eta, hala ere, Manexi minututxo batzuk kostatu zitzaion handik aldentzea, inguruak zeukan zailtasuna zela eta; gogoratu: laharrak, oteak, asunak, elorriak eta abar zeuden.

Mutikoak bere kalkuluak ongi egin zituen, aurreko aldian bezalaxe hanka ez sartzeko. Badaezpada ere, inori ez zion bere sekretutxoa kontatu, horrela, lasaiago ibili eta jokatu ahal izateko. Anaia zaharrenari informazioa eskatu zion, jakiteko gutxi gorabehera noiz joanen ziren txorikumeak habiatik: jaio eta 2-3 aste behar izaten omen dute hegan hasteko; horren arabera jokatu nahi zuen Manexek.

Hortaz, bada, astebete pasatu zenean, mutikoari iruditu zitzaion momentu egokia izan zitekeela

habiari beste ikustaldi bat egiteko. Oraingo aldian, ordea, zortzi bat egunez gutxienez, askoz ere zuhurtzia handiagorekin ibili zen, hots, habiara batere hurbildu gabe eta inondik ere ez zirikatzeko gurasoak, hauek ez zapuzteko kumeak.

Eta, izan ere, halaxe gertatu zen, egun batean, eskola bukatutakoan, patxadaz, habia zegoen alderdira jo eta pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen hasi zen. Hantxe zeuden sastraka, elorri, ote eta asunen oztopo guztiak gainditu eta, berriz ere, gurasoak habiatik urruti zirenean, aida batean aprobetxatu zuen txorikumeak zeuden lekuraino igotzeko. Kontu handiz ibili behar izan zuen, adarrak busti samarrik zeudelako, eta, horren ondorioz, baita pixka bat irristakorrak ere. Ziztu bizian, txitak ikusi eta ospa! Bai, hantxe zeuden; zoragarriak! Denak lepoa tente eta ahoa zabalik, janari eske, gurasoak zirelakoan. Baina, ez, oraingo honetan ez ziren gurasoak, baizik eta Manex kuxkuxeroa.

Bere borondatearen aurka, baina, bazekien handik lehenbailehen alde egin behar zuela, habia zapuztuko ez bazuten. Akabo! Hara non ikusi zuen, bat-batean, gurasoetako bat adar batean, beregandik metro batzuetara, mokoan janaria zekarrela, berari etengabe begira, oso urduri eta mehatxuka!

–Madarikatua! –oihukatu zuen Manexek larri eta estu, ahotsik gabe.

Ahalik eta azkarrena saiatu zen ihes egiten handik. Goitik behera, presaka hasi zen jaisten eta lurretik metro batera-edo zegoenean, bustita zegoen adar batean, oin bat alde batera joan zitzaion irristatuta eta bestea bestera. Hori horrela, erori eta egundoko kolpea hartu zuen hankartean, koskabiloetan, alegia, eta, ondorioz, minaren minez, berebiziko birao eta madarikazioak esan zituen ozenki:

–Arraio mila demonio! Zorte alua! Aaaai, ai, ai, ai, ai!

Adarren artean, hantxe joan zen buruz behera lurreraino, hankaz gora, zarata handia eraginez eta habia dardararaziz, bere txori eta guzti. Lurreratzea ere ez zen inondik ere samurra izan, sastraka haien artean. Batere deborarik galdu gabe, ahal izan zuen lasterrena jaiki, eta, bere kolpe, mailatu eta oinaze guztiekin ahalegindu zen ateratzen handik, asun, lahar, elorri eta oteen artean. Azkenean, lortu zuen, baina asko kostata eta ongi ziztaturik. Bitartean, birigarro gurasoak, han ibili ziren bueltaka eta itzulika, haserre, nazkaturik eta aspertuta, Manexek alde egin eta bakea noiz emanen zien zain.

Mutikoak bere buruarengatik baino kezka handiagoa zeukan habiarengatik, ea berriz ere zapuzten ote zioten. Txorien haserrea eta amorrua ikusita, beharbada ez litzateke batere harrigarria izanen. Badaezpada ere, lehen baino lehen lekutu zen handik etxe aldera. Berriz ere sekretutxoa gorde egin zuen; inori ez zion aztarrenik ere kontatu, eta, etxekoek galdetu ziotenean ea zergatik zeuzkan hainbeste ziztada eta harramazka gorputz osoan, berak erantzun zien eskolarako bidean erori egin zela. Gezurrontzia!

Baina, beti bezala, orduan ere denborak aurrera egin zuen eta bost bat egun igarotakoan, Manexek kalkulatu zuen, birigarroen habiako txorikumeek ezin zutela falta denbora luzerik hegaldatzeko, habian azkenekoz ikusi zituenean lumaz hornitu samarrik baitzeuden. Horrexegatik, berehalaxe hasi zen bilatzen une egoki bat, habiara igo eta txorikumeak lapurtzeko, etxera eraman, lumatu eta ongi garbitu ondoren, frijituta jateko, gatz pixka batekin. Oso gustuko baitzituen.

Gauzak horrela, egun jakin batean, hirugarren aldiz oztopo guztiak atzean utzi ondoren, berriro ere iritsi zen habiaraino. Bihotza taupaka zeukan: azeleratua. Ilusioz beteta zegoen, baina, aldi berean, kezkatxo bat edo beste ere bazeukan: zapuztuta aurkituko ote zuen habia, azken egunean gertatutako iskanbilak gertatu eta gero?; txorikumeak hegaldatuta egonen ote ziren?; edota, aldiz, hantxe topatuko ote zituen hegaztitxoak, lodi- lodiak, berak nahi bezala? Segundo gutxi falta ziren jakinkizuna argitzeko.

Azkenean, habia barrura begiratu, eta, une batez, mutikoari iruditu zitzaion odola izoztu zitzaiola, izan ere, txorikumeak egon bai, hantxe zeuden, baina denak hilak, baita usteltzen hasiak egon ere.

Manexek ez zuen azalpen handirik behar izan, berehalaxe ulertu zuen azken aldian sortutako nahasmendu latzaren ondorioz, birigarro gurasoek habia zapuztua zutela.

Berriro ere porrota gure baserritar txikiak, eta etxera burumakur, goibel eta isilik joan behar.

Manex mikekin

Manexek bolada hartan, hilabeteak eta asteak zeramatzan ikusten eta behatzen miken ibilerak. Baserri hartan eta bere inguruan, mika hitzak bele-nabar sinonimoa hartzen zuen.

Bele-nabarrak oso hegazti langile finak dira. Batzuetan, habia berria egiten dute, eta, beste batzuetan, aurreko urteko habia zaharra berritu. Gauzak horrela, aisialdia dutenean hasten dira konpontzen zaharberritu beharreko habia. Batzuetan, baita Eguberriak baino lehen ere, eguraldiak laguntzen badie. Urte hartan ere, beste askotan egiten zuten bezala, eguraldiak uzten zien neurrian, Manexen baserri ondoko zuhaitz handi batean, jo eta su ari ziren bi bele-nabar lanean, adaxkak garraiatzen, habia egiten edo berritzen, bietako bat, auskalo zer zen kasu hartan, baina, dena den, zehaztasun txiki horrek Manex ez zuen batere kezkatzen.

Esan bezala, habia zuhaitz handi baten adaburu aldean ari ziren atontzen, txukun- txukun, eta, haren gainean, adaxkez egindako teilatu dotore eta guzti.

Manex, aspalditik oso zirikatuta sentitzen zen, habia bertatik bertara ikusteagatik, baina, mutikoak berak bere buruari aitortzen zion oso lantegi zaila zela, habia arrunt goian zegoelako. Hala eta guztiz ere, egun hotz batean, ezin izan zion gehiago eutsi bere jakin-minari eta hantxe abiatu zen zuhaitzean gora.

Adierazi bezala, egun hura hotza zen, eta arrazoi horrexegatik Manexek zamar bat zeraman jantzita, bere gerriko uhal eta dena; lotuta.

Zuhaitz tantaia hesi baten ondoan zegoen, eta arrazoi hura zela eta, lehenengo igoera oso erraza izan zen, baina handik aurrera, ordea, adarrak askoz ere mehe eta ahulagoak bihurtzen ziren. Mutikoa zegoen leku hartan, zuhaitzak beheko adar batzuk moztuta zeuzkan, eta hark nolabaiteko oinarri edo plataforma sortua zuen. Beraz, haraino igotzea eta pausatzea erraza zen. Arazoak handik gora hasten ziren. Manex, pentsatu eta kalkulu batzuk egin ondoren, handik aurrera behin baino gehiagotan saiatu zen igotzen, baina berehalaxe ohartu zen oso zaila eta arriskutsua zela.

Haiek horrela, amore eman eta segituan lurrera jaistea erabaki zuen. Horretarako, behar zuen adar lodi baten gainean kokatu eta prestatu egin zen hesi aldera beheratzeko. Baina, mugimendu hura egiterakoan, zamarraren gerrialdeko uhala, ebakitako adar motz batean kateatu eta hantxe gelditu zitzaigun zintzilik gure mutiko bihurria; dilindan.

Hamaika ahalegin gauzatuta ere, berehala konturatu zen, bere kabuz bakarrik, ezinezkoa zuela handik askatu eta lurrera jaistea. Beraz, bada, bere burua apaldu eta oihuka laguntza eske hasi, beste aterabiderik ez zuen aurkitu.

Hainbat minutu igarotakoan, norbaitek entzun eta segidan etxeko senide batzuk joan ziren Manex gizagaixoa erreskatatzera.

Une hartatik aurrera, bele-nabarrek bake galanta hartu zuten.

Manex aranondoan

Manexen baserri inguruetan, beste zuhaitz askoren artean, aranondo bat ere bazuten, erreka ondoan, hesi baten aldamenean.

Aranondo hark ez zuen ale askorik ematen, baina ematen zituenak oso goxo eta gustagarriak izaten ziren, eta albiste hura arrunt ongi zekien mutikoak.

Udaberri bukaera alderako, jadanik aranondoaren fruituak hasten ziren gorritzen eta oso itxura tentagarria hartzen zuten. Manex ez zen itsua eta ordurako, aurreko urteetan oso ongi ikusia zuen anai-arrebak nola igotzen ziren arbolara eta nola hartzen zituzten aranak; dastatuak ere oso ongi dastatuak zituen senideen bitartez, eta, berriz ere jateko gogoa guztiz piztua zeukan, baina, oraingo honetan, bere kabuz egin nahi zuen guztia, alegia, zuhaitzera bera igo, arana hartu eta jan.

Hala, bada, egun eguzkitsu batean, bazkalaurrean, erabaki zuen tenore egokia zela aranen bat dastatu eta goxatzeko. Inori deus ere esan gabe, eta, aldi berean, erdi ezkutuka, aranondora hurbildu eta igotzen saiatu nahi zuen, baina, orduan konturatu zen enborraren inguruan asun handiak zeudela. Ordura arte ere makina bat aldiz ikusiak zituen, ia-ia egunero, baina zailtasun horri, ordea, ez zion behin ere erreparatu orain bezala.

Horiek horrela, eta, gainera, gogoan hartuta Manex bolada hartan galtza motzak jantzita ibiltzen zela, arazo hura ez zen gauerdiko ahuntzaren eztula. Baina, hala eta guztiz ere, berehalaxe ideia on bat izan zuen, alegia, makila sendo bat hartu eta haren bitartez bidexka bat ireki landare arriskutsu haien artean. Era hartan, kontu handiz, baina zailtasun larririk gabe, azkar samar eta ezbeharrik gabe iritsi zen zuhaitzaren enborreraino. Aranondo hark, nahiko behean, adar irmo batzuk zituen eta haiei esker, gora egitea erraz gertatzen zen.

Behin goian, Manexek berehalaxe jo zuen begiekin aran gorri atsegingarri bat. Hartu eta jaten hasi. Ummm! Arrunt goxoa suertatu zitzaion. Uste baino lehenago bukatu zuen jaten, gainera. Gauzak horrela, segituan begia beste bati bota zion: mardula, gorri-gorria eta itxura bikainekoa. Aran hura, ordea, gorputzetik urruti samar gelditzen zitzaion. Mutikoak, aldiz, ezin tentazioari eutsi eta han saiatu egin behar fruta eskuratzen.

Besoa eta behatzak luzatu eta hartzeko zorian zegoenean, azken unetxoan, ez zuen, bada, oreka galdu? Gizajoa hantxe joan zen goitik behera, lurreraino, baina, jakina, asunen artean gelditzeko.

Esku eta zangoetan segituan sumatu zuen landare madarikatu haien azidoaren eragin suminkor eta jasanezina.

Ahal bezain azkar, lurretik zutitu, eta, ziztu bizian hasi lasterka eta jauzika, noraezean, izututako zaldiak bezala, bide batean zehar, herri alderantz, erresumina ezin jasanda eta honela nolabait gainditzeko.

Azkenean, noizbait, azkura bizi hura pixka bat baretu eta lasaitu zitzaionean, ausartu zen etxera itzultzera, bazkaltzeko.

Etxeko norbaitek galdetu zionean ea zertan ibili zen herrirako bidean lasterka, Manexek, entrenatzen aritu zela erantzun zion.

Erresumina, hala ere, ez zitzaion joan berak nahi bezain azkar, alajaina!

Manex eta txorikumeak

Aurreko urteetan bezalaxe, urte hartan ere, udaberriaren etorrerarekin, karnaba bikote batek baserri ondoko sagarrondo batean egin zuen bere habia. Udaberria aurrera zihoan eta, ondorioz, uda iristear zegoen. Horregatik, habiako txitak dagoeneko jaiota zeuden eta martxa politean ari ziren hazten.

Manex hantxe zebilen jirabiraka; inola ere ez zitzaion oharkabean pasatu gertaera hura. Alderantziz, ordurako bere kalkuluak egiten hasita zegoen, baina arazo larri bat zuen, alegia, joan den urteko bi porrotak oso presente baitzeuzkan buruan, lehendabizikoa, txorikumeak katuek jan zizkiotenekoa, eta, bigarrena, txoritxoak ekaitzak bustita akabatu zituenekoa. Oraingo honetan ez zituen akats berberak errepikatu nahi, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, ari zen bere buruan konponbidea pentsatzen, eragozpen horiei aterabide egokiren bat aurkitu nahian.

Katuen arriskua, nolabait esan liteke asmatu zuela saihesten, hau da, kaiola adar mehe eta iristeko zaila zen batean zintzilikatuz. Eta, ekaitzen egoera arriskugarria ekiditeko ere zera bururatu zitzaion, hots, kaiolari plastikozko azala ongi-ongi jarri eta horrela, euri eta kazkabar jasa bortitzak botako balitu ere, txorikumeak busti ez eta aurrera aterako lirateke.

Pentsatu eta egin. Denbora gutxiren buruan, kaiola plastikoz oso ongi bilduta zeukan. Kaiolaren alde batean, hala ere, leihotxo moduko bat utzi zion, alegia, tarte txiki horretan ez zion plastikorik jarri, txori gurasoek janaria eta edaria handik eman ahal izateko.

Beti bezalaxe, Manex momenturik egokienaren zain gelditu zen, eta, azkenean, noizbait, aukerako unea iritsi zela iritzi zionean, denborarik batere galdu gabe, han ekin zion lanari. Txorikumeen gurasoak habiatik urruti zirenean, janari bila joanda-edo, atondutako kaiola hartu, sagarrondora igo, habiaraino hurbildu, txoritxoak harrapatu, kaiolan sartu, eta azkeneko hau, hau da, kaiola, mutikoari iruditu zitzaion adarrik egokien eta txukunenean ezarri zuen, betiere katuentzat helezina zelakoan. Den-dena ongi egina ote zeukan ziurtatzeko, azken begiratu azkarra egin eta zuhaitzetik presaka jaitsi zen, txori gurasoek harrapa ez zezaten. Behin lurrean, eta baserri ondotik ere, berriz ere errepaso arin bat egin zien balizko oztopo guztiei, txori gurasoek ikusi gabe, noski: kaiola plastikoz ongi bilduta zeukan barrukoak ez bustitzeko, eta txorikumeak oso adar eskuragaitzean ezarri zuen, katuek ezin harrapa zitzaten.

Horiek horrela, Manex momentuz, lasai eta bare gelditu zen. Orain txoritxoak nola hazten ziren ikusi, besterik ez zeukan.

Egunak eta asteak aurrera zihoazen, eta txorikumeak ere era berean ari ziren handitzen: ongi eta lodi.
Uztail hasierako egun bat, ordea, oso bero argitu zuen: hego-haize erre eta zakarra, sargori itogarria, eta, bero sapa eta itsaskorra. Gainera, denborak aurrera egin ahala, orduan eta gehiago berotzen zuen. Eguerdirako 30ºC gutxienez izanen ziren, eta, bazkalondoan are eta gehiago oraindik; 35ºC hortxe-hortxe ibiliko ziren.

Manexek ez zuen bere burua gehiegi kezkatu nahi, baina, hala eta guztiz ere, unetxoren batez burutik pasatu zitzaion, bero kiskalgarri hura agian arriskutsua izan litekeela txori txiki haientzat.

Susmo txar hura hartuta, ilunabarra baino lehen ezinegonean eta urduri zegoen, eta, kezka hark bultzatuta sagarrondo aldera jo zuen. Lurretik begiratu eta behatu egin zuen, bai, baina kaiolan ez zuen mugimendurik sumatu, ez plastikoan zehar, ez eta plastikoan egindako leihotxoan ere. Handik gutxira, guraso bat joan zen kaiolara mokoan janaria zeramala, baina orduan ere mutikoak ez zuen deus ere ikusi, ez bururik, ez mokorik, ez hegalik, ez isatsik, batere ez! Horrek oso irudipen txarra ekarri zion mutiko urdurituari. Azkenik, beste gurasoa ere etorri eta lehenengoak egindako gauza bera egin zuen hark ere, baina, berdin, inolako mugimendurik ez!

Hori ikusita, baserritar txikia larriturik eta egonezinik, deabruak hartu izan balu bezala, zuhaitzera hurbildu eta hartara igotzeari ekin zion jo eta su. Kaiolara hurbildu ahala, txori gurasoek izututa alde egin zuten zalapartaka. Aida batean iritsi zen Manex gora. Han ikusi zuenak, ordea, egundoko samindura eta atsekabea eman zizkion. Txorikume guztiak tripaz gora hilda zeuden, beroak itota, plastikoaren eraginez, neurri handi batean behinik behin. Hartutako bihozminarekin, mutikoa ia-ia hankaz gora joan zen goitik behera lurreraino, oreka galduta.

Negarrez eta zeharo nahigabetuta, hantxe gelditu zen atsekabeturik, kaiola ondoan, bere dolua pasatzen.

Manex berriz kaiolarekin

Denborak ez dauka galgarik eta uda hark ere aurrera jarraitu zuen. Bitartean, Manexek entretenimendu asko aurkitzen zituen baserrian eta bere inguruetan, batzuetan bakarrik eta beste batzuetan familiakoekin.

Eskarmentuagatik ongi asko zekien karnaba batzuek habia beranduxeago ere egin ahal zutela. Horrenbestez, posibilitate hori ere ez zuen baztertzen, eta, badaezpada ere, beti errekamaran presente edukitzen zuen posibilitate hori. Zer gerta ere, arreta handiz miatzen zituen etxe inguruko zuhaitzetako mugimenduak, eta horrela, zorioneko egun batean ohartu zen beste sagarrondo batean, karnaba bikote batek dagoeneko habia atondua zeukala, txukun-txukun. Auskalo aurreko bikote berbera ote zen ala beste berri bat, baina kontu da habia hantxe zegoela eta oso dotore gainera.

Ohiko moduan, oraingo aldian ere, Manexek hurbiletik jarraitu zituen habia haren gorabehera guztiak, eta hala, une pozgarri batean konturatu zen txorikumeak koxkortu xamar zeudela. Berriz ere ahalegintzeko momentua zen.

Ordurako, mutikoak makina bat buelta eman zion bere buruan azken ezbeharrari, alegia, bero handiegiaren arriskuari. Pentsatu eta pentsatu, posibilitate bat probatzea erabaki zuen, hau da, kaiolako plastiko azpian kartoi iluna jartzea, horrela txoritxoei itzal handiagoa egiteko. Plastiko eta kartoiari leku batzuetan, alboetan, jakina, zulotxo batzuk ere egin zizkien, haizea errazago pasa zedin eta txitatxoak freskoago egon zitezen.

Horiek horrela, eta ustez arriskurik handien guztiei konponbidea pentsatu eta jarrita, sagarrondo aldera joan zen egokitutako kaiola eskuan harturik, laugarren aldiz saiatzera.

Prozedura guztia aurrekoetan bezalaxe egin zuen, hots, ezkutuan arbolara igo, habiara isilik hurbildu, txoritxoak hartu eta kaiolan sartu, atetxoa ongi-ongi itxi, eta, azkena eta garrantzizkoenetako bat, kaiola adar egoki batean zintzilikatu, katuek hegaztitxoak ezin zitzaten harrapatu, eta, aldi berean, kaiola toki itzaltsu batean geldi zedin.

Ingeniari on baten moduan, xehetasun guzti-guztiak ongi hausnartu eta konponbidea emana zelakoan, kaiola han utzi zuen bere biztanle txikiekin, gurasoak itzuli baino lehen. Orain itxoin beharra zegoen, ea zoriak zer berri ekartzen zizkion bukaera aldean, albiste onak ala txarrak.

Egunak joan egunak etorri, Manex beti erne eta adi; gertutik jarraitu zuen bilakaera guztia. Tartean, noiz edo noiz, etxeko katuren bat ikusi zuen kaiolaraino iritsi nahian, baina ezin. Ekaitzak eta zaparradak ere izan ziren noizbait, baina horietatik ere bizirik atera ziren karnabatxoak. Eta azkenik, egun sargori eta itogarriak ere gertatu ziren aste haietan zehar, baina ikusten denez, azken asmakizunak ere funtzionatu zuen, eta proba gogor hura ere gainditu egin zuten hegazti txikiek.

Azkenik, aste batzuen buruan, mutikoak erabaki zuen kaiola jaso eta etxera eramatea, txori gaztetxoak beren kabuz jaten hasteko gai izanen zirelakoan, eta halaxe gertatu zen, baserrira eraman, kaiola barruan janaria eta hura paratu, eta handik gutxira, beren gisara ederki hasi ziren jaten eta elikatzen.

Manex logelan

Azkenean, esan liteke lehenengo aldiz ospatu ahal izan zuela arrakasta bat Manexek. Txorikumeak arrisku guztietatik bizirik atera eta aurrera egitea, oso pozgarria izan zen mutikoarentzat; animo izugarria eman zion bere abenturatxoetan jarraitzeko.

Baserritar txikiak, kaiola bere hiru txoritxoekin, gauez sukaldera eramaten zuen, han hegaztitxoak bertatik bertara ikus zitzan eta beraiekin gozatzeko. Goizean, aldiz, jaiki bezain azkar, kaiola sukaldean hartu eta bere logelako leihora eramaten zuen, txorikumeak eguzkitan eta izadiaren aurrean egon ahal zitezen. Ordurako, karnaba kume haiek, oso ongi moldatzen ziren jateko eta edateko Manexek jartzen zizkien janariak eta ura: bakar-bakarrik, beren kabuz, gurasoen laguntzarik gabe.

Hala eta guztiz ere, mutiko buru azkarrak berehala erreparatu zion, inondik inora espero ez zuen beste gauza bati, alegia, txorikumeen gurasoek oraindik ere jarraitzen zutela kaiolara joaten, janaria eta edaria beren kumeei emateko, kaiola leihoan zegoen bitartean.

Horiek horrela, Manexek berehalaxe izan zuen burutapen polit bat, “eta kaiola logela barruan jarriko banu, zer gertatuko litzateke? Orduan ere, joanen al lirateke kaiolaraino gurasoak jana eta edana eramatera?”. Zalantza horren aurrean, mutikoak pentsatu zuen ongi legokeela proba egitea. “Agian lau txori eskuratuko ditiat tiro bakar batez!”, esan zion bere buruari, hau da, lehengo hiru kumeak gehi guraso bat, egin zuen gogoeta.

Gauzak horrela, bere buruko errota txikia berehalaxe jarri zuen martxan. Iruditu zitzaion posibilitate bat izan litekeela, kaiola logela barruko aulki baten gainean pausatuta uztea. Pixka batez, buru barruan aritu zen plana diseinatzen eta fintzen, eta horrelaxe eraman zuen aurrera bere ideia.

Hitzetik hortzera aulki bat logela erdialdean ezarri, jarraian kaiola aulki gainean jarri eta bera ohatze azpian sartu zen, ezkutaturik gelditzeko, baina, ez lehenago, leihoa erabat zabaldu eta bi atalak lokarri mehe batekin lotu baino lehen. Jakina, ohatze azpian sartzerako sokatxoa berarekin eraman zuen, ideia zera baitzen, txoritxoen gurasoetako bat sartu eta kaiola gainean pausatzen baldin bazen, orduan Manexek lokarriari bere indar guztiekin tiratuko zion, leihoa ahalik eta azkarrena ixteko, txori gaixoa harrapa zezan.

Behin ohe azpian, isilik eta geldirik geratu zen txoriaren zain. Urduri eta aldi berean itxaropentsu. Minutuak luze egitean ari zitzaizkion, ez baitzekien zer gertatuko zen. Baina, halako batean, Manex

pixka bat kezkatzen hasita zegoenean, bi gurasoetako bat leihoan agertu eta ertz batean jarri zen, mokoan zerbait zekarrela. Mutikoa kezkak larriturik eta egonezinik. Arnasari gogotik eusten zion, isil-isilik. Karnabak, une batzuetan zalantzan egon ondoren, alde batera eta bestera begiratu, eta, azkenean, erabakitasun handiz aurrera egin zuen, kaiola gainean jarri arte.

Baserritarrak, ia-ia ekintza erreflexu bat balitz bezala eta bi aldiz pentsatu gabe, bere indar guztiekin tira egin zion lokarriari eta leihoa segituan itxi zen, kolpe batez. Ziztu bizian ohatze azpitik atera, jaiki eta leiho aldera jo zuen jauzi batean. Txoriak ere gauza bera egin zuen, izututa, toki huraxe baitzen argitasun pixka bat gelditzen zen leku bakarra, gainerako guztia ilunpetan gelditu zen eta, leihoa itxi eta gero. Manexek, azkar-azkar mugitu, eta berehalaxe eskuratu zuen karnaba gaixo eta dardartia, leihoko kristal ondoan, mokoka ari zenean bere etsipenean; bihotza zeharo azeleratua zeukan koitaduak.

Mutilak hegaztiari ongi eutsi eta kontu handiz, kaiolan sartu zuen, bere kumetxoekin batera. Egun hartan ere, aurrekoan bezalaxe, zortea bere alde izan zuen Manexek. Badirudi, gauzak ongi ateratzen hasita zituela. Une hartan behintzat pozik eta zoriontsu sentitzen zen, nahiz eta ez zekien seguru zer gertatuko ote zen karnaba heldu harekin; huraxe zen bere kezkabide bakarra momentu hartan. Gogoratu beharra baitago, berak harrapatutako aurreko hiru txori helduak, kaiolan bertan hil zitzaizkiola, ez zirelako ongi egokitu. Azkeneko hau, ohituko ote zen? Auskalo! Ikusi egin behar. Gau hartan behinik behin lasai egin zuen lo.

Manex sukaldean

Txorikumeen gurasoetako bat harrapatu eta gero, behin kaiolan sartu ondoren, Manexek sukaldera eraman zituen hegazti guztiak, alegia, heldua eta hiru kumetxoak. Kaiola oraindik kartoiz eta plastikoz bilduta zeukan, zuhaitzean erabili zuen bezalaxe. Hasieran, kaiola sukaldeko horma batean zintzilikatu zuen, iltze batean, baina kaiolako leihatilak sukalde alderantz ematen zuela, eta, orduan, berehalaxe ohartu zen txori heldua ero moduan ari zela kolpeka burdin harien aurka, ihes egin nahian; ez zuen etsitzen. Nonbait, sukaldeko argitasuna ikusi eta harantz alde egin nahi zuen ziztu bizian.

Mutikoak segituan erreparatu zion gertaera hari, eta, nola edo hala, berehala aurkitu zuen nolabaiteko konponbidea: kaiola alderantziz zintzilikatu zuen, hau da, leihotxoa horma alderantz itsatsita gelditzen zela. Horrela, txori helduak ez zuen kanpoko espazioa ikusten eta pixka bat lasaitu zen.

Manexek era horretan eduki zituen lau txoriak bizpahiru astez, gau eta egun, eta horrek oso ondorio onuragarria ekarri zion: alde batetik, kumeak guztiz lasai bizi ziren, askatasunik ez zutelako inoiz ere ezagutu, eta, bestetik, harrapatutako gurasoa ere, kumeen eragina dela eta, hasi zen pixkanaka-pixkanaka baretzen; kanpoko mundua ez ikusteak ere horretan laguntza handia eman zion.

Gauzak horrela, eta denbora aurrera joan ahala, mutikoak kaiolari lehendabizi kanpoko plastikoa kendu zion, eta konturatu zen txori helduak orduan ere lasai jarraitzen zuela. Handik egun batzuetara, kaiola biltzen zuen kartoia hasi zen kentzen puskaka, hau da, egun batean zatitxo bat, beste batean bestetxo bat eta abar, pittinka-pittinka plastiko guztia desagerrarazi arte. Txori gurasoak normaltasun handi samarrez hartu zuen gertakari hura, eta, azkenerako, esan liteke, nola edo hala, onartu zuela egoera berri hura.

Sukaldeko etapa hura gainditu eta gero, baserritar txikia orduan, era berean, hau da, poliki-poliki, kaiola bere logelako leihora ateratzen hasi zen, baina modu progresiboan, hots, lehenengo egunean bost minutuz egoteko, bigarrenean hamar minutuz, hirugarrenean hamabost minutuz eta abar, karnaba gurasoak azkenean etsi zuen arte.

Horiek horrela, arratsalde batean Manexi proba bat egitea bururatu zitzaion, sukaldean. Kaiola mahai gainean jarri eta atean zehar karnaba kume bat atera zuen, ikusteko zer gertatzen zen. Gorago esan dugun bezalaxe, txorikume haiek ez zuten askatasuna sekula santan ezagutu, eta, beraz, erabateko patxadaz erreakzionatu zuen hegaztiak, kaiola barruan balego bezala: lehenik, behatz baten gainean gelditu zitzaion, gero mutikoak sorbalda batean pausatu zuen, jarraian buruan, ile artean, eta han ere karnabatxoa lasai, mutilaren iletxoekin hasi baitzen jostaketan mokoarekin. Manex segituan konturatu zen txoritxo hura zeharo otzana zela; ez zuen ihes egiteko imintziorik ere egiten. Egia esateko, ez zuen batere premiarik sentitzen.

Geroxeago, proba berbera egin zuen bigarren eta hirugarren txorikumeekin, eta ondorio bera izan zuen, alegia, hiru kumeak guztiz mantsoak eta bareak ziren, ez zuten hanka egiten eta ez ziren izutzen pertsonen artean.

Azkenik, mutikoak probatu nahi izan zuen txori helduarekin, eta egin ere hala egin zuen, baina, jakina, hark bere burua aske ikusi bezain azkar, ihesari eman zion ziztu bizian leiho aldera, eta han, aurreneko egunean bezalaxe, mokoarekin kristala jo zuen indar handiz. Karnaba gaixoa erdi zorabiatuta gelditu zen kolpe bortitzarekin, eta orduantxe aprobetxatu zuen Manexek, harrapatu eta berriz ere haren espetxe txikian sartzeko. Mutilak orduan oso ongi ulertu zuen zeinen alde handia zegoen, txoriak izadian askatasunean jaio eta hazi ala kaiola triste batean hezi eta handitzearen artean; ezberdintasuna izugarria zen. Batak eta besteak oso ondorio desberdinak zekartzaten.

Hala eta guztiz ere, baserritar txikiari zalantza eta jakin-min ñimiño batzuk gelditu zitzaizkion, hau da, ea zer gertatuko ote litzatekeen karnaba handia gauez askatzen baldin bazuen sukaldean, kanpoko argia ikusten ez zenean, alegia, soil-soilik barruko argi elektrikoa piztuta zegoenean.

Gauzak horrela, eta egoki iruditu zitzaion gau batean, ilundu ondoren, afaltzen bukatu bezain laster, kaiola hormatik jaitsi, mahai gainean kokatu eta txoritxoak ateratzen hasi zen, lehenik eta behin, kumeak. Bat buru gainean pausatu zuen eta beste biak sorbaldetan. Aurreko aldian bezalaxe, hiru txori txiki haiek erabateko lasaitasun eta patxadaz jardun zuten sukaldean, etxekoen artean, familiakoak balira bezala, baina, beraien gurasoa askatu bezain laster, ordea, hark berehalaxe ekin zion hegan egiteari, itzuli- mitzulika, alde batetik bestera, nahiko modu nahaspilatu eta etsian, inon eta inorengan ere gelditu gabe. Manex atzetik hasi zitzaion deika eta jarraika, baina ezin izan zuen harrapatu. Halako batean, nora joanen eta irakiten ari zen eltzeko esne gainera, muturrez aurrera! Barruraino! Hegoak desesperatuki astindu eta txio txikiren bat ere egin zuen, baina Manexen anaia batek eltzetik atera zuen orduko, txori gaixoa esne barruan sartu eta jada erdi egosita zegoela esan zitekeen. Mela-mela eginda zegoen koitadua eta handik segundo gutxira eman zuen bere azken arnasa.

Mutikoa zur eta lur! Ez zekien nola erreakzionatu. Egia esateko, inola ere ez zuen halakorik espero eta zeharo ustekabean harrapatu zuen ezbehar hark. Berriz ere, beste kolpe latz bat jaso zuen gizajoak.

Manex eta jostetak

Beharrik Manexi oraindik beste hiru txorikumeak bizirik gelditu zitzaizkiola! Horri esker azkar eta erraz samar gainditu ahal izan zuen azken ezbeharra. Hiru txoritxoekin jostaketan jarraitzen zuen sarritan, sukaldean eta ia-ia etxe osoan zehar. Mutikoa ordurako ohartuta zegoen txori txiki haiek zeharo otzanak zirela eta erabat etxekotuak zeudela, askatasuna behin ere ez zutelako ezagutu.

Aurreko aldietan bezalaxe, kaiolatik atera eta txoritxo bat sorbalda batean jarri zuen, beste bat buru gainean eta hirugarrena eskuin eskuan. Sorbaldan zegoena, alde batetik bestera mugitzen zen nahierara, burukoa, ileak mokokatzen jostatzen zen, eta, azkenik, eskuan zena, behatzak igotzen entretenitzen zen. Atzeneko horri, Manexek, batzuetan, beste eskuko behatz bat jartzen zion hogei bat zentimetrora eta orduan hegazti txikia pausatuta zegoen eskua, pixka bat astintzen zion, eta horrela lortzen zuen txorikumea beste behatzeraino hegan joatea. Ariketa bera gehiagotan ere errepikatzen zuen, baina, aldiro-aldiro, behatz batetik besterainoko tartea handitu egiten zion, eta, hala, kardantxoriak gero eta hegalditxo luzexeagoak egiten zituen.

Baserritar txikiak benetan gustu hartu zion jostaketa berri hari eta pixkaka-pixkaka irudimena ere zorroztuz joan zen. Denborarekin hainbat ideia izan zituen, eta, handik gutxira hiru jostailu egin zizkien txoriei, eskuz: hogei bat zentimetroko eskaileratxo bat, hurritzezkoa; bi makilatxo hogeita hamar bat zentimetrokoak, eta, azkenik, gurditxo txiki bat bere endaitz eta guzti. Honen bukaeran, hau da, timoiaren muturrean, eraztun antzeko bat jarri zion, txorikumeek burua handik sartu eta orgatxoari tira egiteko.

Horrela, ba, handik egun gutxi batzuetara, jostailuak egiten eta prestatzen bukatu bezain azkar, esperimentatzea deliberatu zuen. Lehenik eta behin, sukaldean zeuden katuak handik bidali eta atea itxi egin zuen, seguruago jarduteko. Kaiola, zintzilikatuta zegoen hormatik jaitsi eta txoritxoak berriz ere atera zituen handik. Bat eskaileratxoan jarri zuen, beheko aldean, eta orduan hegaztia igotzen hasi zen mokoaren laguntzarekin, mailaz maila, goraino iritsi arte. Mutikoa pozak txoratzen. Orduan, zurubi txikiari aldapa aldatu, hau da, goiko aldea jaitsi, eta karnabatxoa berriz ere behetik gora. Horrela hainbat aldiz. Gero ariketa bera egin zuen, baina bi txorirekin batera, paraleloan. Zoritxarrez, hirugarrena ez zen kabitzen, eskailera estua zelako, eta horrenbestez konformatu behar izan zuen mutilak.

Jarduera hura bukatutakoan, prestaturiko gurditxoa hartu, lurrean jarri eta haren eraztuna burutik behera sartu zion karnaba gazte bati. Hark ibiltzeari ekin, eta Manexek pentsatu bezala, orgatxoa aurrera eraman zuen poliki-poliki. Geroxeago, gurditxoaren gainean bigarren txoria kokatu zuen,

eta horrela ere orga aurrerantz aise zeramala ikusi zuen.

Azkenik, hirugarren txorikumea ere ibilgailuaren gainean ezarri eta berdin, sukaldeko lurrean hantxe ibili ziren, batek tiratu eta beste biak gainean, bidaiari, alde batera eta bestera, aurrera eta atzera, aspertu arte.

Azkenez, apailaturiko bi makilatxoak eskuz hartu eta batean karnaba bat jarri zuen. Ziria pixka bat astindu eta txoritxoa aurrean zuen beste txotxera joan zen hegaka. Berriz ere gauza bera egin zuen, baina oraingo honetan makilak urrutixeago jarri zituen elkarrengandik, eta, hala eta guztiz ere, hegaztia bikain joan zen hegaldaka. Gerora ere, berriz antzeko jardunak egin zituen banaka- banaka, baina lehendabizi bi txorirekin batera, eta, azkenean, hiruekin.

Halaxe jostatzen zen Manex animaliatxo haiekin eta primeran pasatzen zuen. Bururatzen zitzaizkion ariketa guztiak eginarazten zizkien.

Bukatzeko, mutikoa pixka bat nekatzen zenean-edo, ahoan hazi batzuk jarri (alpistea, kalamua, etab.) eta hiru txoritxoak makilatxo baten gainean zituela, aho aldera hurbiltzen zituen, eta horrela, segundo batzuez, karnabak mutilaren ahotik aritzen ziren beren bihi eta garauak jaten, gustura asko, alajaina!, eta Manex, gusturago, jakina!

Azkenean, txori saioa erabat bukatzeko, baserritar txikiak kaiola mahai gainetik hartu eta berriz ere sukaldeko horma batean jarriko zuen, atetxo bat irekita zuela. Txoriak banaka- banaka txotxaren gainean paratu, kaiolako ate alderantz bideratu eta orduan ere astindu txiki batzuk ematen zizkion makilatxoari, harik eta txoriak banan-banan kaiolako atera joan eta barrura sartzen ziren arte. Orduantxe ematen zion mutikoak oso-osoko bukaera jardunaldiari eta ametsetan hasten zen, egunen batez ez ote zen arituko zirkuren batean, bere txoritxo maiteekin.

Manex eta kisuskileak

Udako goizerdi eguzkitsu eta atsegin batean, ustekabean eta batere esan gabe, baserrian, bat-batean, hiriburuko izeba agertu zen, herriraino autobusez joanda, aurreko urtean Manexi papagaitxoa eraman zion berbera. Mutikoa pozak txoratzen jarri zen, nahiz eta oraingo honetan ez zion inolako txoririk eraman, zertarako?, berak bazituen eta.

Bazkalaurrean, Manex eta beste bi anai- arreba gazte izebarekin ibili ziren baserri inguruetan: baratzea ikusten, sagarrondoez gozatzen, bidexketan paseatzen eta bar. Gainerako anaiak ukuiluan ari ziren lanean aitarekin, kisuskileei laguntzen, izan ere, uda zela aprobetxatuta, ganbelak zaharberritzen eta zorua konpontzen ari ziren jo eta su, azienda kanpoan zebilen bitartean. Belarrak ondu eta ganbaran sartu ondoren, egin beharreko zereginak ziren haiexek. Jakina, ganbaran sartzen ez zen belarra, etxe ondoan, metatan jarrita zuten ordurako.

Manexen ama gajoak ez zuen lan makala izan goiz-eguerdi alai hartan bazkaria prestatzen, guraso, sei seme-alaba, izeba eta hiru kisuskileentzat; arnasa hartzeko ere ez zuen beta handirik izan. Eta, azkenean, ordu biak inguruan, denak sukaldean bildu eta bazkaltzen hasi ziren, indarrak berritzeko. Helduak, betiko mahai handian eta gazteak beste txikiago batean, egun haietarako espresuki jarri behar izan zutena. Txantxa eta olgeta ugari ere ez ziren faltatu bazkarian. Jan- edana gogotik hartu eta oso gustura gelditu ziren bazkaltiar guztiak.

Otorduaren ondoren, atseden moduko bat egin bitartean, kisuskileek zigarreta bat edo beste erre eta segituan jaitsi ziren ukuilura, goizeko laguntzaile guztiekin, lanean gogor jarraitzeko.

Sukaldean ama, izeba eta hiru seme-alaba gazteenak geratu ziren, mahaiak jasotzen eta harrikoa egiten. Garai hartarako txoritxoen kaiola sukaldeko leihoan jarri ohi zuten, hurbilago gelditzen zitzaielako besteak beste; egun argitsu hartan ere hantxe zegoen, karnabak pozik eta kantari zebiltzan bitartean.

Harrikoa bukatu ondoren, izebak kasu berezia egin zien hegazti txikiei; gustatu egin zitzaizkion. Hura ikusita, Manexek hiru txorietatik bat aukeran jarri zion hiriko izebari, nola edo hala, aurreko urteko mesedearen ordainetan, alegia, papagaitxoa oparitu ziolako. Izebak proposamena gustura asko onartu eta hiruetatik bat hautatu zuen, gehiegi pentsatu gabe. Ilobak, papagaitxoaren kaiola oraindik etxean zuen gordeta eta hartan bertan sartu zuen izebak aukeratutako kardantxori gaztea. Jana eta edana paratu, eta prest zegoen hiri aldera bidaiatzeko. Izeba, poz-pozik oparia jaso izanagatik eta baita Manex ere eman izanagatik; benetan eskuzabal jokatu zuen.

Gauzak horrela, arratsaldeak aurrera egin zuen eta pixkanaka-pixkanaka izebari autobusera joateko ordua hurbiltzen ari zitzaion. Hortaz, bere gauza guztiak kaiolarekin batera hartu eta abiatzeko gerturik zegoen. Orduan, ezustean, amak izebari esan zion herriraino harekin joanen zirela, bide batez erosketa batzuk egiteko asmoz.

Horrela, ba, denak prest egon bezain azkar abiatu ziren herri aldera, gurdibide zakar eta aldapatsuan barna. Bide bazterretan hurritzak, lizarrak, oteak, sasiak eta belarditxo batzuk atzean utzi bezain laster iritsi ziren herrira Manex, bi anai-arrebak, ama eta izeba. Handik, zuzen-zuzen autobus geldi lekura joan eta hura ailegatu zenean, elkarri musu txeratsuak eman ondoren, izeba

busean sartu zen bere kaiola eskuan hartuta. Ibilgailua segituan hiriburu aldera abiatu zen eta besteak, dendara. Behar zituzten gauzak eta gaiak erosi, eta berriz ere baserri alderantz, aldapan gora oraingo honetan.

Etxera iritsi eta lehendabizi sukaldera joan ziren erosketak uztera. Orduan, norbait konturatu zen leihoan ez zegoela kaiola eta Manexi jakinarazi zion. Hark, asaldaturik, eta, larri eta estu, baratze aldera jo zuen ziztu bizian, laster batean, bihotza zeharo korapilatuta zeukala.

Leihope aldera hurbiltzen hasi bezain laster ikusi zuen kaiola lurrean, pixka bat deformatua, eta haren inguruan txoritxoen luma ugari. Denak janda zeuden; bakar bat ere ez zen salbatu sarraski hartatik. Mutikoa erabat nahigabetua gelditu zen. Begietan berriz ere malkoak, eta ariman egundoko hutsunea. Inon ez zuen kontsolamendurik aurkitzen eta inola ere ezin zuen ulertu gertatutakoa. Negar mikatz batean gelditu zen. Bazkalorduan, hiru txoritxo alai eta kantari zituen, eta, orain, aldiz, bat ere ez! Patu madarikatua!

Manexen ustez, karnabak, sukaldeko leihoan, leku seguruan zeuden, baina kukuak makur jo zion. Zer gertatu zen? Ba, Manexek- eta herrira joan-etorria egin bitartean, kisuskileren bat sukaldera joan zela su bila, zigarretaren bat piztu eta ukuiluan erretzeko, lanean ari ziren bitartean. Hori horrela, sukaldeko atea irekita utzirik, orduantxe aprobetxatuko zuen katuren batek, sartu eta hondamena egiteko. Leihoa pixka bat bilduta, bai, bazegoen, baina ez erabat itxita, eta askoz ere gutxiago oraindik hermetikoki. Horixe baliatu zuten katuek beren festa partikularra antolatzeko. Manex berriz ere jota. Oso gaizki bukatu zuen egun eguzkitsu eta argi hura.

Manex eta lera

Udan, belarrak ondu eta etxeratu ondoren, Manex batzuetan leran aritzen zen, jakina, ez elur gainean, baina, nola edo hala, moldatzen zen lera gainean ibiltzeko.

Kontua zera da, mutikoa bizi zen baserriak bazuela euntze bat, zati bat arrunt aldapatsua zuena, eta, horrexegatik, malda hartan, goitik behera ibili ahal zen leraz, belar ebaki berriaren gainean. Kontu hura, anai-arrebak ikusita ikasi zuen gure bihurritxoak; jakina da, zer ikusi hura ikasi.

Lehenago ere esana dago Manex oso elur zalea zela, baina, noski, bazekien udan nekez ikusiko zuela elurra baserri inguruan eta urtaro hura benetan luze egiten zitzaion elurraren zain, leran ibili ezinda. Horrexegatik, beste bide bat bilatzen eta baliatzen zuen, udan leraren gainean ibili ahal izateko, eta, hain zuzen ere, huraxe zen, alegia, baserriko belar-soro hartako aldapa pikoa. Hain zen handia aldats hura, non belarra ebaki eta jaso ondoren, lera bere kabuz jaisten baitzen, pertsona batek pixka bat gidatu eta bideratuz gero.

Aldapa hark, besteak beste, arrisku handi samar bat ere bazuen, eta, zera zen, malda bukatzen zen lekuan bertan hesia zegoela, burdin hari arantzadunezkoa, izan ere, hantxe bertan bukatzen zen beraien belazea eta jarraian auzokoarena zegoen.

Baina, arrisku hura ez zen oztopo handia Manexek eta bere senideek toki hartaz ez gozatzeko, ordurako trikimailua hartua baitzioten aldapari, eta bazekiten zer egin lera geldiarazi eta bertatik ongi ateratzeko.

Lera zurezkoa zen, anaia zaharrenek egina aurreko urteetan, batez ere, negu aldean, elurretan erabiltzeko, baina, ikusten dugunez, urtaro beroan ere ateratzen zioten bere etekina.

Normalean, gure mutikoa, gainerako anai- arrebekin batera aritzen zen malda hartan, txandaka, behera eta gora. Beheranzkoan, leraren gainean, eta, goranzkoan, oinez, lerari tiraka, lokarri batez. Baina, jakina, era hartan aritzeak, aldizka, alegia, ondorioz ekartzen zuen denbora luzetxo egon behar izaten zutela norberaren txandaren zain, eta horrek Manexi, noski, ez zion batere graziarik egiten, horrexegatik, batzuetan, egiten zuena zera zen, gainerako senide guztiak beste eginkizunen batean ari ziren bitartean, berak bakarrik, eta isilean, lera hartu, etxetik atera eta sokatik tiraka, aipatutako aldaparaino eramaten zuen, halaxe, denbora osoan bera bakar-bakarrik jostatu ahal izateko, malda zoragarri eta arriskutsu hartan.

Halaxe, ba, ilunabar batean, egun hartako baserri lan premiazkoenak egin ondoren, hantxe plantatu zen gure Manex, aldapako goialdean, lera hartuta. Leku egokian kokatu, leran eseri, bere kalkulutxoak egin eta han joan zen goitik behera, ziztu bizian. Trebetasun handiz gidatu eta batere arazorik gabe egin zuen lera gelditzeko maniobra.

Belarra motx-motxa zegoen eta lurra oso lehorra, horrexegatik, lera arrunt ongi irristatu zen malda piko hartan. Mutikoak gora igo zuen lera sokatik tiraka eta berriz ere operazio bera errepikatu zuen hainbat aldiz. Berarentzat gozamen hutsa zen, eta, gainera, lera ez zuen inorekin partekatu behar, bakarrik baitzegoen. Denbora osoan irristailua bere eskumenean egon zen.

Hainbat minututan behera eta gora aritu ondoren, jada erabaki zuen egin behar zuela azken bidaiatxoa. Beti bezala, leran eseri, kontzentratu, kalkulatu eta goitik behera abiatu zen pozik eta alai. Ongi zihoan, baina aldapa erdialdean-edo, lerak harri koxkor bat edo dena delakoa zapaldu eta mugimendu arraro bat egin zuen; boteka hasi zen. Une batez, kontrola pixka bat galdu zuen. Hala ere, Manexek berehala zuzendu zuen tresna mugikorra eta aurrera jarraitu ziztu bizian, baina, konturatu orduko, gainean zuen behealdeko hesi arantzaduna. Iristear zegoen. Jadanik ez zuen denbora eta modurik lera geldiarazteko. Oso azkar zihoan. Burdin hari arantzadunen aurka jotzea arrunt arriskutsua izan liteke. Ez zekien zerekin joko zuen: buruarekin, lepoarekin, bularrarekin. Edozerekin jota ere, hagitz makurra izan liteke. Ia bertan zegoen. Zerbait egin beharra zuen dagoeneko, zirt edo zart, minik jasoko ez bazuen!

Azken unean zer eginen?, eta bere burua atzera bota!, hau da, hesiaren azpian erdi etzanda igaro zen. Mugimendu azkar eta ausart hark salbatu zuen ezbehar handiago batetik. A zer ikara eta beldurra! Handik segundo batzuetara oraindik dardarka bizian zen gizajoa, eta erabat zurbil. Ekintza osoa iragan ondoren ohartu zen benetan zer arrisku izan zuen. Izuturik gelditu zen.

Eskerrak lurretik lehendabiziko burdin harira tarte handi samarra zegoela; bestela, auskalo zer gertatuko zatekeen. Manex berriro ere jaio izan balitz bezala sentitu zen. Dena dela, etxera afaltzera joan zenean, ez zuen hitz- erdirik ere esan, isil-isilik gelditu zen, mutuen antzean. Isilpeko hura bere buruarentzat gorde zuen.

Manex eta hormatxoria

Uda hartan, eguraldi bero eta lehor samarra egin zuen Manex bizi zen herrian, eta, beraz, laboreak (garia, garagarra, oloa eta abar) oso ongi ondu ziren uztail bukaerarako. Hala, bada, hil horren amaiera aldean, egun batean, mutikoaren aitak, seme zaharrenarekin, behi pare bat uztarrian lotu, eta, gurdia, galburuz eta lastoz ongi beteta, herrira joan behar zuen garia jotzera.

Eskolan oporrak zituzten udako hilabete haietan, eta, horregatik, gure mutikoari atsegin gertatu zitzaion, uda erdian berriz ere eskolako lagunak ikusteko ideia. Jakina, baserrian bizi izanik, udan zehar ez zituen oso maiz topatzen, eta aukera hura horretarako aprobetxatu nahi izan zuen, besteak beste. Gauzak horrela, aitari baimena eskatu eta hark onespena emanda, berehalaxe abiatu ziren herrirantz aita, anaia zaharrena, Manex eta behi parea, atzean gurdia zeramatela.

Ordubete pasatxo kostatu zitzaien herrira iristea behi gurdiarekin, eguraldi sargoria zutela eta beheko plazatxo batean zegoen garia jotzeko gailuaren ondoan kokatzea, beraien txandaren zain gelditzeko, izan ere, herriko kontzejuak makina bat zuen, behar zuten herritar guztiek erabil zezaten laboreak jotzeko.

Horiek horrela, Manexek berehala aprobetxatu zuen itxoin behar izate hura, lagun batengana jotzeko. Elkar topatu, herrian zertan ari ziren azaldu eta aida batean joan ziren gari-jogailua zegoen plazatxo aldera. Nekazariak hantxe ari ziren goizerdi bero hartan, batzuk garia jotzen eta gainerako guztiak beren txandaren zain. Manex eta laguna, erne, begira- begira.

Hainbat minutu igarota, pixka bat asperturik, hauxe esan zion lagunak Manexi:

–Tira, hator gure etxera eta ikusiko duk zenbat gari atera zitzaigun guri atzo!

Lagunaren etxera iritsi eta hark berehalaxe ganbarara eraman zuen Manex. Ganbara hartan, gari ale mordo ikaragarria zegoen pilatuta, horma baten ondoan. Usain atsegin eta goxoa zerion. Baina, handik oso gutxira, bi mutikoak segituan ohartu ziren etxetxori (txolarre, hormatxori, paretatxori, kurloi) bat ganbaratik atera nahian ari zela, leiho txiki batean. Hegaka zebilen gaixoa, baina talka egiten zuen zerbaiten aurka. Izan ere, leihoa sarez itxita zegoen eta txoriak ez zuen inola ere modurik ihes egiteko. Talka eta talka jarraitzen zuen burdin harien kontra, estu eta larri. Lumaren bat ere galtzen ari zen, kolpeen indarra zela eta. Hura ikusita, Manex, senaz-edo, ziztu bizian abiatu zen zoritxarreko hormatxoriarengana. Mutikoa ia gainean zuela konturatuta, hegaztiak beste leiho batera egin zuen hegan, baina hantxe ere topo egin zuen sare madarikatuarekin. Bi mutikoak hurbilduta, beste leiho batera egin zuen ihes berriro ere etxetxoriak, hegaldaka, baina guztiz alferrik, leihotxo hark ere burdin hari malapartatua baitzuen. Egiazki, ganbara hartan leiho guztiek zuten sarea, horretarako, hain zuzen ere, txori garau jaleak ez sartzeko eta janaririk ez lapurtzeko.

Berandu baino lehen harrapatu zuen Manexek txolarrea, adiskidearen laguntza pixka batekin. Txoria polita zen: txikia, moko-motza eta lumadi arre ilunekoa. Pixka batez haren edertasunaz gozatzen aritu ziren. Manexek laztanak egiten zizkion buruan. Hormatxoria, bitartean, estu eta larri; izututa mutikoaren eskuetan, baina ezin zuen hanka egin. Jarraian, lagunaren eskuetan ezarri zuen, hark ere esperientzia atsegin hura proba zezan.

Horrelaxe aritu ziren bi mutikoak minutu gutxi batzuez kurloiarekin, jostatzen eta ferekatzen, baina, halako batean, Manexek gogoratu zuen zer gertatu zitzaion aurreko urteetan atzemandako txori heldu guztiekin, alegia, arrazoi batengatik edo beste batengatik, denak galdu zituela. Kezkatuta eta arduraturik gelditu zen. Berriz ere ez zituen pasatu nahi garai haietako penak, trago txarrak eta sufrimenduak. Eta orain, zer egin? Nola jokatu beharko luke etxetxoriarekin? Zer komeni zitzaion?

Hurrengo minutuetan, lagunari laburki kontatu zion zer-nolako atsekabeak igaro zituen, aurreko txori heldu guztiak hil zitzaizkionean, eta, horrexegatik, segituan hasi zen pentsatzen zer egin hormatxoriarekin.

–Etxera eramaten badugu, seguru asko, hil eginen zaiguk. Orduan, zer? Eta, aske uzten badugu? –proposatu zuen Manexek.

–Hik nahi duan bezala! –erantzun zion lagunak.

–Ala, hik nahi al huen etxera eramateko? –galdetu zion Manexek.

–Ez, gure etxean ez diagu zaletasun handirik txoriekiko –lagunak erantzun.

Orduan Manexek erabakitasunez pentsatu zuen etxetxoria askatu behar zuela. Horretarako lagunak eta biak herriko goialdera jo zuten. Eliza aurrean estalpe txiki bat zegoen, lau zutabetxo zituena, hormarik gabe eta lau isurialdeko teilatutxo batekin. Huraxe aukeratu zuen gure mutikoak txoritxoa askatzeko.

Izan ere, Manex ohartuta zegoen, herriko apezak batzuetan hantxe egiten zizkiola konjuru batzuk zeruari edota izadiari, eta berak ere antzeko zerbait egitea erabaki zuen, bere buruari garrantzi handiagoa emateagatik-edo.

Horiek horrela, bi lagunak konjuru lekuan kokatu herri aldera begira, Manexek hormatxoria besoaz goratu, pixka batean pentsatu eta hauxe oihukatu zuen txoria askatu bitartean:

–Hoa, hoa airean eta aske bizi ahal duan bitartean!

Txolarrea pozak txoratzen urrutiratu zen hegan eginez. Bi mutikoek behetik gorantz jarraitu zioten begiradarekin. Txoria airean desagertu zenean, herritarrak garia jotzen ari ziren plazatxora jaitsi ziren bi gaztetxoak. Manex, aita eta anaia zaharrenarekin elkartu, eta gari-jotze lanak bukatutakoan, poliki- poliki baserrirantz abiatu ziren, behi gurdiaren abiaduran.

Manexek ez zekien ongi zergatik, baina sentipena zuen, egun hartan ekintza on bat egin zuela. Hala izanen al zen?

Manex eta zuloa

Abuztuan sartuta, euntzeetako belar onduz ganbara osoa ongi bete ondoren, Manex ohartu zen belar pila handi haren gainean, oso barruan gainera, teilatu azpian, kateme batek kumeak eginak zituela. Gaztetxoa, betidanik oso mutiko mugitu eta begiluzea izanik, ezin zen, ba, gelditu habia hura ikusi gabe. Baina, oztopo handi bat zeukan, izan ere, sarale pila handi hartara igotzeko lekurik hoberena, belarra ukuilura botatzeko zuloaren parean zegoen, koltxilaren gainean, alegia; Manexen baserrian horrela esaten baitzuten. Zulo hura nola saihestu edo gainditu? Pentsatu eta pentsatu aritu zen, baina ez zuen konponbiderik aurkitu. Gauzak horrela, adinez bere aurreko anaiarekin hitz egin eta plana berehala egin zuen, arratsalde batean saiatzeko.

Garai hartan, baserrietako ganbaretan oso gauza arrunta zen belar zuloa. Izan ere, hantxetik botatzen zen belar idorra ukuilura, haziendak jan zezan. Kasu hartan, koltxilaren ondoan, ate zahar bat zuten zutik, horman bermatuta. Zertarako, zuloaren gainean jarri eta haurrak erortzeko arriskua saihesteko? Agian! Auskalo! Kontua da, Manexi eta anaiari primeran etorri zitzaiela haren gainean pasatzeko.

Esan bezala, bazkalondo batean, bi mutikoak ganbarara igo ziren katakumeak bilatu eta ikusi ahal izateko. Hala, bada, belar zulo ondoan zirenean, zutik zegoen ate zaharra, bien artean hartu eta zuloaren gainean jarri zuten, etzanda, bere gainetik igaro eta belar pilo handi hartara igotzeko.

Lehenengo oztopoa oso ongi gainditu zuten. Gero, belar pilaren gainean jarraitu zuten. Metatutako belar pila hura guztia, sardeaz botatako zama askoz zegoen osatua, eta, horregatik, leku batzuetan altuera handiagoa zeukan besteetan baino. Arrazoi hura dela eta, bi mutikoak hantxe joan ziren lau hankan aurrerantz, teilatu azpian, batzuetan gorantz eta beste batzuetan beherantz, aurreko hormaraino iritsi arte. Han, ezkerrera jo eta berdintsu jarraitu zuten, katuen habia aurkitu arte.

Belarra sartu berria zegoen, bero oraindik, eta bere usain goxo eta erakargarriarekin. Hala ere, Manex eta anaiari belar haziak sarritan sartzen zitzaizkien kolkotik behera, arropa barruan, eta haiek ez zieten batere graziarik egiten, hazkura handia sorrarazten zietelako, baina, jakina, gustuko aldapan nekerik ez.

Gordelekuan, katu ama bere lau kumeekin zegoen, gustura. Kume guztiak errapearen inguruan, esne goxoa edaten. Ama otzana zen eta mutikoei ez zien inolako eragozpenik jarri, katakumeak eskuetan har zitzaten. Ama pozik eta harro bere txikiekin, urruma egiten.

Minutu batzuen buruan, Manexek anaiari esan zion hobe izanen zela handik alde egitea, katu ama ez amorrarazteagatik, eta huraxe egin zuten, alegia, lehen ibilitako bidean orain atzera itzuli, lau oinean, hasieran bezalaxe, belar bero eta beren hazi gogaikarri guztiak pairatzen. Behin belar pilaren ertzera iritsita, kontu pixka batekin jaitsi ziren banaka-banaka, eta berriz ere ate zaharraren gainean gelditu.

Atea zutik aurkitu zuten horman bermatuta eta era berean utzi nahi izan zuten berandu baino lehen. Horretarako, Manexek, pixka bat aurreratu eta atea altxatzeari ekin zion, baina argi zegoen berak bakarrik ezin zuela. Horretaz ohartuta, anaiak lagundu nahi izan zion, baina deus ere esan gabe, eta, Manex konturatu gaberik, oholei heldu eta ukaldi handi batez ate zaharra aida batean

altxatu zuen. Hori horrela, Manex ustekabean hartu eta oreka galduta, ez si eta ez no, koltxilatik behera joan zen ziztu bizian, muturrez aurrera. Anaia estu eta larri!; izututa! Segituan ekin zion eskailerak jaisteari.

Manexek, bitartean, antza denez, jaitsiera azkar hartan, bira erdia eman eta zorua ez zuen jo buruarekin, baizik eta bizkarrarekin eta sorbaldekin. Oso zorte on handia izan zuen. Bidean, koltxilako horma eta ertzekin, harramazka txiki batzuk jasan behar izan zituen, baina larritasun handiagoko ondoriorik ez. Goitik behera zihoan bitartean, hainbat irudi igaro zitzaizkion burutik, estutasun hartan.

Gainera, gogoratu beharra dago, aste batzuk lehenago, baserriko ukuilua berritu, eta, zoruak eta ganbelak porlanez egin zituztela. Ganbela bat belar zuloaren ondo-ondoan zegoen, eta, gainera, pixka bat aterata gelditu zen. Horrek zera esan nahi du, Manexek erraztasun handiz jo ahal zuela ganbelaren irtengune hura, baina, argi eta garbi dago zoriak mutikoaren alde egin zuela eta arrisku latz guztiak saihestu zituen. Hasteko, eta zorionez, ukuiluan, koltxilaren parean bazegoen belar pixka bat, norbaitek lehentxeago botata. Hari esker, Manexek ez zuen jo porlanezko lurzoru gogorra, ez eta ganbelako irtengunea ere.

Baserritar txikiak begiak ireki ordurako, hantxe ikusi zuen, ganbaran berarekin zegoen anaia; izuturik. Antza denez, tximista bezain azkar jaitsi zen goitik ukuiluraino, eskaileretan barrena. Kezka eta ardura aurpegia zeukan, ez baitzekien nola topatuko ote zuen han anaia txikia, hilda, larriki zaurituta edota abar. Baina, ez, zorionez, hilik behintzat ez zegoen, bera iritsi bezain laster ikusi baitzuen belar pila txiki haren gainean, etzanda, baina begiak irekita eta hitz egin nahian.

Izan ere, bizkarrean eta sorbaldetan hartutako kolpearen ondorioz, Manex hasiera batean arnasa hartu ezinik gelditu zen, eta, ondorio gisa, hitz egiten ere ezin zuela. Baina, handik segundo batzuetara, dena normalizatu zitzaion, eta hizketan ere hasi zen poliki-poliki.

Minutu gutxi batzuk igarotakoan, Manex etxebizitzara igo zen aldez edo moldez, anaiaren laguntzarekin. Ama une hartantxe ez zen etxean, herrira mandatuak egitera-edo jaitsiko zen agian; auskalo! Kontua zera da, jarraian aitari kontatu ziotela beren azioa, eta honek semeari eskatu zion ohatze gainean etzan zedin, gerritik gorako arropa erantzita.

Orduantxe ikusi zizkion bizkarraldean zeuzkan harramazka arinak. Zaurietan alkohol pixka bat jarri eta kito!, besterik gabe berpiztu zen gure mutiko bihurritxoa.

Afaritan, amari ez zioten deus ere kontatu, baina, hala eta guztiz ere, Manexek gau hartan irudipena izan zuen, berriz jaio izan balitz bezala.

Manex eta hesia

Urte hartako irailaren bukaera aldean, Manexen baserrian, gurasoek karabina bat erostea erabaki zuten, seme-alabek hainbestetan adierazitako nahia asetzeko. Gauzak horrela, Manex ere noizbait txitean- pitean hasi zen karabina hura hartzen eta erabiltzen.

Horrela, bada, zorioneko egun batean, arratsalde erdi inguruan, beste baserri baten ondoan zihoan mutikoa, karabina aldean zeramala, eta, bat-batean, zozo beltz bat ikusi zuen hesi batean pausatzen.

Hesi hura, ordea, ez zen nolanahikoa, hasteko, oso leku aldapatsuan zegoen, jarraitzeko, arrunt zabal eta garaia zen, alegia, hagitz sasi, sastraka eta elorri beltz handiak zeuzkan, eta, bukatzeko, sakonune edo mendi zoko handi samar batean zegoen kokatuta.

Horiek horrela, baserritar txikiak berehalaxe egin zituen bere ohiko kalkuluak, eta, horren ondorioz, lau hankan jarrita, hasi zen hurbiltzen zozo beltza pausatuta zegoen elorri aldera, aldapan gora, kontu handiz eta ahalik eta isilena. Karabina, aldez edo moldez, arrastaka zeraman lurrean, eta hura ez zen lan makala, alajaina!

Leku egokira iritsi zela begitandu zitzaionean, han gelditu, eroso jarri, karabinarekin zozoari apuntatu eta tiro egin zuen.

–Hara! Jo egin diat eta! Hau gozamena, arraioa! –
bere baitan, pozak erotu beharrean.

Zozo beltza adarretatik behera erortzen ikusi zuenean, Manexi pozaren pozez jarri zitzaion bihotza. Karabina hantxe bertan, lurrean utzi, zutitu eta abiada bizian hasi zen joaten hegaztia erori zen aldera. Goitik begiratu eta sakonunean ikusi zuen lumaduna, zauritua, antza denez, oraindik pixka bat mugitu egiten baitzen. Baina, beheraino iristeko, lehenik eta behin aldats piko bat jaitsi behar zuen, belar luze eta sasi ugariren artean. Nola edo hala, saiatu egin behar eta mutikoa hantxe hasi zen jaisten arin samar, harik eta bare bat zapaldu zuen arte. Soberan dago esatea zer gertatu zen: laprast egin eta laharren artean bi bat metroan arrastaka joan zen beheraino.

–Arraio mila demonio! Ai, ai, ai eta milatan ai! – esan zuen mutikoak oihuka, haserre baino haserreago–. Jainko maitea! Eta orain nola atera behar dut nik hemendik?

Izan ere, zulo haren erdian, erdi lotuta gelditu zen lurrean gizagaixoa, sastraka, elorri eta asun haien artean. Gainera, azken haietako batzuek besoak eta zangoak erresumindu zizkioten, eta, sasiek eta elorriek, berriz, harramazkak egin aurpegian eta lepoan. Arropan ere urratu bat edo beste ez zen falta, eta, hori guztia gutxi balitz bezala, ipurdian ere ziztada mingarri batzuk sumatzen zituen. Baina, hala ere, jasan egin behar!

–Akabo! Nireak egin dik! Malda zikin madarikatua...!

Ahal izan zuen bezala, bere burua pixka bat askatu eta hasi zen mugitzen infernu latz hartan. Zozo beltza ez zegoen berarengatik oso aparte, baina, hainbeste zarata eta zalapartarekin, hegaztia izutu

eta oraindik barrurago sartu zen sasitza hartan. Pixka bat agondu ahal izan zenean, saiatu zen hurbiltzen bere biktimaren aldera, baina hark, mutikoaren asmo txarra sumatuta-edo, berehalaxe egin zion ihes jauzika, lurrean, belar luze eta sastraken artean, izan ere, hego bat puskatuta bazuen ere, hankak, ordea, arin eta indartsuak zeuzkan oraindik.

Manexek beste ahalegin handi bat egin zuen, zozoa harrapatzeko sasiarte zakar hartan, baina segituan konturatu zen, bera zenbat eta gehiago hurbildu, zozoa hainbat eta urrunago zihoakiola. Gainera, handik gutxira, zer ikusiko eta bere aurrean suge higuingarri bat ez zuen ikusi, ba, lurrean sigi- saga, belarren artean?

–Jainko potoloa! Baina, zer arraio da hau? Puag!, zer nazka eta hozkia! Hau, besterik ez nian behar, ba, nik oraintxe bertan! –pentsatu zuen bere kautan.

Ez bat eta ez bi, handik berehala alde egitea erabaki zuen, baina ez zen hain erraza ere. Zozo beltzari, tamalez, eta sugeari, hozkiz, agur egin ondoaren, handik ateratzen saiatu zen, baina, alde batetik, sastrakak, laharrak eta elorriak arropetan kateatzen zitzaizkion, eta, bestetik, asun amorragarriak nonahi zeuden, han eta hemen.

Eragozpen haiek guztiak, nola edo hala, gainditutakoan, arrastaka abiatu zen malda pikora, igotzeko, baina oso zaila zen. Lur azalean, belar zahar luzeak zituen eta haien azpian, lur bustia, buztinaren antzekoa, irristakorra. Behetik gora hasten zenean, belarrei heldu, eta, aldapa erdian-edo zihoanean, batzuetan belarrak hautsi egiten zitzaizkion eta beste batzuetan zainetatik atera, eta, horren ondorioz, beti goitik behera erori eta zuloan bukatzen zuen ahalegina.

Behin saiatu, bitan saiatu, hamaika aldiz entseatu, eta hala ere, beti emaitza berbera: porrota! Erorikoa! Zuloraino jaustea! Ezin ateratzea! Dagoeneko urduri, beldurtuta eta haserre zegoen bere buruarekin. Gorriak eta beltzak pasatzen ari zen. Gero eta argiago ikusten zuen handik onik ateratzeko, laguntza beharko zuela nahi eta nahi ez, baina eskatzeak lotsa ematen zion. Jendeak zer pentsatuko ote zuen berari buruz? Non gelditukо ote zen bere ausart izena? Non bere gizontasuna? Ez, ez! Momentuz ez zen ausartzen, ez zen animatzen horretara!

Oraingoz, itxoitea erabaki zuen, baina, auskalo, sugea ere inguru hartan ibil zitekeen eta. Zer egin? Nola asmatu? Berriz ere zenbait aldiz saiatu zen igotzen, baina, zero borobila! Ezinezkoa! Beste porrot batzuk!

–Zulo madarikatu halakoa! Sastraka eta asun nazkagarri alaenak! Suge ziztrin sasikumea! –hasi zen Manex, oihu eta garrasi ozen bezain amorratu haiek botatzen, arrosario baten moduan, isildu gabe, behin eta berriz. Horrela, dagoeneko zenbait minutu kurrixka eta txilioka zeramatzanean, bat-batean.

–Zer gertatzen da? Nor dago hor? –entzun zuen mutikoak ustekabean.

–Manex. Zulo honetara erori naiz eta ez dut ateratzerik! –erantzun zion baserritar gaztetxoak ezusteko ahots hari.

Berehala konturatu zen nor zen, hau da, ondoko baserriko seme zaharrena, gizon prestu eta

galanta, handik barna igarotzen ari zena. Bere luzera eta indarrarekin, aida batean atera zuen Manex zulogune malapartatu hartatik.

Behin goian zenean, mutikoa berehalaxe ohartu zen karabina falta zuela, berak utzitako lekutik. Segidan, auzokoari arnasestuka galdetu zion:

–Aizu, German, iritsi zarenean ez al duzu ikusi hemen –behatz erakuslearekin adieraziz– gure etxeko karabina? Marroia!

–Marroia? Bai! Arestian, honantz igotzen ari nintzenean, gizon kanpotar bat gurutzatu diat, aldean kolore horretako karabina zeramala. Baietz lapurtu izana! –erantzun zion Germanek, pena itxurarekin.

–Kaka zaharra!, hau ere niri gertatu behar! – mutikoak, sekula baino haserreago–. Dios!, gaur, dirudienez, ez da nire eguna! –oihukatu zuen Germanen aurrean–. Aizu, barkatu, baina lasterka joan behar dut goitik behera, ea nonbait harrapatzen dudan lapur lotsagabe hori! –Abiatu zen–. A!, eta mila esker lagundu izanagatik!

–Nekez atzemanen duk! Nik gurutzatu dudanean, behintzat, ziztu bizian baitzihoan beheko herrirantz! – bota zion Germanek, azken agur moduan.

Manex gogotik saiatu zen lasterka bidean behera, ustezko lapur malapartatu hura harrapatu nahian, baina, hala eta guztiz ere, ez zuen arrastorik ere topatu, ia-ia beheko herriraino iritsi bazen ere. Deus ez! Zipitzik ere ez!

Egoera hartan, zer egin, ordea? Arratsaldea ere aurrera zihoan eta ilunabarrean sartzeko oso-oso denbora gutxi falta zen. Mutikoak, ezinbestean, zeregin handirik ez zuela ohartuta, etxe aldera jotzea erabaki zuen. Baina, hala ere, nola adierazi, zer esan gorputzean eta arropetan agerian zituen harramazka eta lokatzari buruz? Eta karabinaren faltaren gainean? Dena den, etxera joatea ezinbestekoa zeukan, bestela zer eginen zuen, bada, kanpoan?

Etxean azaldu zenean, amak harriturik eta ikaratuta, zera galdetu zion:

–Baina, baina, mutikoa!, non ibili haiz? Zer gertatu zaik honela agertzeko? Inork jo al hau?

–Ez, ez, ama, leku txar batera erori eta sasiek egin dizkidate urratu hauek. Zu, lasai, ez larritu!

Egia erdi hura entzunda, ama pixka bat baretu eta honela esan zion:

–Hator, hator hona, gixajo hori, berehala garbitu eta sendatuko dizkiat-eta zauri horiek!

Gau hura halaxe joan zen gaztetxoarentzat, lasai samar, ezbehar gehiagorik gabe, egiaren zati garrantzitsu bat ezkutaturik. Baina, biharamunean, ordea, etxeko guztiak ohartu zirenean karabina falta zela, alegia, baserri osoan ez zegoela, aitak mutikoa hartu eta hauxe galdegin zion zorrozki:

–Aizak, hi, Manex! Non dago karabina? Etxe osoa goitik behera arakatu diagu eta ez duk inon ere

agertzen. Zer dakik hik? Galdu al duk?

Baserritar gaztetxoak ez zuen beste erremediorik izan, eta, bere borondatearen aurka izan baldin bazen ere, azkenean, egia osoa aitortu behar izan zuen negar eta intzirien artean.

–Uste dut atzo... lapurtu egin zidatela! –malkotan, gizagaixoa.

–Nola, uste duala? Ez dakik seguru zer gertatu zen, ala? Tira!, konta ezak dena segituan! –aitak, serio baino serioago.

Azkenik, Manexek, apal-apal, istorio osoa kontatu behar izan zuen aitaren aurrean, xehetasun guztiekin, baina, horrek ere, ez zuen libratu aitaren astindu on batetik. Azken abentura hura, garesti samar atera zitzaion Manex koitaduari.

Manex eta kurriloa

Urte hartako udazkena aurrera dezente joana zegoen Manexen baserriko inguruetan. Ordurako ipar haizea, giro hotza eta euria iritsita zeuden bazter haietara. Horiek horrela, arratsalde apal batean, mutikoak tiro hotsak entzun zituen inguru hartan. Berak ez zuen deus ere ikusi, baina, antza denez, kurrilo taldeak pasatzen ari ziren iparraldetik hegoaldera, negua Afrikan emateko, giro epelagoan. Hortaz, ikusi ez, baina kurrilo taldeen garrasi eta kurrixkak, haiexek, bai, argi eta garbi entzun ere entzun zituen.

Seguruena da, gaur egun debekatuta egonen dela tiroak botatzea kurriloei, udazkenean edota negualdean Afrikarantz igarotzen direnean, baina, Manexen garaian, hau da, orain dela berrogeita hamar eta zenbait urte ez, orduan normala zen baserritarrak etxetik kanpora ateratzea, eskopeta eskuan hartuta, zerbait ehizatzen saiatzeko, kurriloen oihu eta deiadarrak entzun bezain agudo. Arratsalde hartan ere, ziurra da halako zerbait gertatuko zela alderdi haietan, baina gure mutikoak ez zion aparteko garrantzirik eman egitate hari eta normaltasunez jarraitu zuen aurrera bere eginkizunetan.

Gauak halaxe jarraitu zuen mutikoarentzat, lasai. Beti bezala, afaldu, ohatzera joan, lo ongi egin eta biharamunean eskora; ia-ia bi kilometro belar soro eta bidezidorretan barna. Bezperakoa ahaztuta zuela abiatu zen Manex herri aldera, adinez bere aurreko anaiarekin.

Giroa heze eta hotz zegoen, baina euri askorik behintzat ez zuen ari une hartan.

Horiek horrela, baserritik atera eta handik hirurehun bat metrora, bat-batean, goragoko euntze batean ez al zuten ikusi, ba, hegazti handi bat lurrean, belarraren gainean zutik? Harriduraren harriduraz, biak berehalaxe abiatu ziren ziztu bizian hegazti erraldoi eta ezezagun harengana, ikustera zer arraio ote zen.

Manexek hamar bat urte izanen zituen orduan eta anaiak bat gehiago. Ondorioz, inolako zalantzarik gabe esan liteke, hegazti hura beraientzat oso handia zela, ia-ia erraldoia. Hala ere, minutu gutxian joan eta iritsi ziren kurriloaren ondora. Handia zen, bai, eta zirrara egin zien, alajainetan!: zangaluzea, mokoa zuzena, lepoa luzea, hegoak handiak, isatsa motza eta lumak hauskarak zituen. Berehalaxe ulertu zuten zergatik zegoen han kurrilo tantai hura, izan ere, hegal bat zaurituta zeukan, hautsita-edo, bezperan, segur aski, tiroren bat hartuta. Hura zela eta, kurriloa ezin zen hegaldatu eta hantxe zegoen, tente, etorkizunak zer ekarriko ote zion zain.

Egoera hartan, jakina, hegaztia defentsiban zegoen, hau da, bere burua zaindu eta gorde nahi zuen. Horrexegatik, Manex eta anaia hurbiltzen hasi zitzaizkion bezain azkar, mokoarekin kolpe latz bat bota zien, eta ongi zeukan hegoa zabaldu egin zuen, izutzeko-edo, aurrerantz jauzi bat egin zuen bitartean. Ez zituen jo, baina mutikoek dezenteko beldurra pasatu zuten. Atzera egin behar, noski!

Hala ere, Manexi eta anaiari buruan sartu zitzaien, kurriloa harrapatu eta etxera eraman behar zutela, sendiko guztiei erakusteko beren harrapakina. Hortaz, ba, berriz ere saiatu ziren kurriloa menderatzen, bat aurretik eta bestea atzetik, baina, ez!, ez zegoen modurik, hegaztiak lehenago baino amorru handiagoz oraindik babestu zuen bere burua, mokoka eta ostikoka; arriskutsua ere bazen.

Hura ikusita, bi mutikoek su-ten txiki bat egin eta denbora pixka bat hartu zuten, beren estrategia eta taktika hobekiago pentsatzeko. Minutu baten buruan zera otu zitzaien, norberak bere zamarra erantzi eta ezkutu baten moduan erabilita, bat alde batetik eta bestea bestetik, joan zitzaizkion hurbiltzen harik eta zamarrak burura bota ahal izan zizkioten arte; horrelaxe azpiratu zuten, azkenean, hegazti zango-luze eta indartsu hura.

Ahal izan zuten bezala, etxeraino eraman eta familiakoei erakutsi zieten; zur eta lur gelditu ziren guztiak, hegazti kozkor hura han ikusita! Amak berehalaxe ekin zion lanari: hil, lumatu, hankak eta lepoa moztu, erraiak atera eta abar. Gauean, leihoan, aire zabalean utzi zuen, haragia goxatu eta egurastu zedin.

Bi mutikoak eskolara berandu iritsi ziren goiz hartan, baina, maistrari azalpen egokiak eman eta gero, ez zuten beste inolako arazorik izan.

Biharamunean, hegaztiak gau osoa izarpean igaro ondoren, bazkalordurako, ama maitasun osoz aritu zen kurriloa prestatzen eta kozinatzen, zekien modurik hoberenean; ilusio handiz. Gauzak horrela, bazkaltzen hasi behar zutenean, denek ikusmin ikaragarria zuten, dastatzeko amak prestatutako plater gutiziatsu hura. Azkenean, jaki bitxi hura mahaira atera, partitu eta jaten hasi zirenean, denak batera, lehenengo mokaduan ohartu ziren oso haragi gihartsu eta gogorra zela; jateko arrunt zaila. Halaber, hezurtsua zen.

Desilusio handia hartu zuten denek, batez ere amak, hainbeste lan egin ondoren, borondaterik onenarekin.

Manex eta kanpadenda

Aspaldi hartan, Manexen baserrian, nondik edo handik, hule pila bat zuten eskuratua, hau da, zira moduko oihala. Baina, oihal ziratu hura erruz zeukaten lortua, fabrika batetik edo auskalo nondik. Kontua da, material hura ugaritasunean zutela etxean momentu hartan, eta, hori horrela, Manexi berehalaxe piztu zitzaion bonbilla bat, hau da, pentsatu zuen zira antzeko oihal hura, egokia izan litekeela kanpadenda bat egiteko.

Pentsatu eta egin. Lurrean bi makila zutik jarri, beste luzeago bat aurreko bien gainean, horizontalean, futbol langa bat balitz bezala, eta, azkenik, hulea, denaren gainean, bi isurialdeko teilatu bat bailitz bezala, eta lurrean atezuan josia, zurezko ziri batzuk sartuta, alegia, iltze erraldoiak balira bezala. Horrela, bada, mutikoak kanpadenda eramangarria lortu zuen, hots, hedatu eta bildu ahal zena. Gero, barruan, lurrean, beste zira-oihal bat jartzen zuen, hezetasunik ez nabaritzeko, eta, bukatzeko, bi muturretan beste oihal bana jarri zituen, bata, finkoa, paretaren papera egiteko, eta, bestea, mugikorra, atearen papera egiteko.

Honi guztiari zera gehitu behar zaio, alegia, zira-oihal haiek, lurrean, luze samarrak uzten zituela, urik ez sartzeko modu errazean behintzat, eta horrela ez bustitzeko. Bestalde, bi makila zut haien altuera ez zen handia: metrobete edo metrobete pasatxo, besterik ez, barruan, lurrean eserita, eroso mugitzeko bezainbateko garaiera, gehiagorik ez.

Horrenbestez, kanpadenda biltzen zuenean, zati guztiak zaku handi batean edo bitan sartzen zituen: makilak (luzeena ez), oihalak tolestuta, zurezko ziriak, mailua eta abar; askoz gehiagorik ez zuen behar.

Gauzak horrela, kanpadenda boladaka jartzen zuen, gaur hemen eta etzi han. Egun batzuetan leku batean edukitzen zuen, eta beste batzuetan, beste batean, bere interesen arabera. Huraxe zen, hain zuzen ere, kanpadenda eramangarriaren abantaila, nahi zuenean, bere gogoko lekuan jarri ahal izatea.

Eskuarki oihal etxola jartzen zuen leku hura, gero aprobetxatzen zuen hara joan eta barruan lasai-lasai egoteko bere buruarekin, edota zozoei, birigarroei, hegaberei eta abarri so egiten aritzeko, eta, noski, aukera ona baldin bazuen, baita tiro bat edo beste egiteko ere karabina berriarekin. Askotan orduak eta orduak ematen zituen barruan, gustura eta oso entretenituta.

Gogoratu beharra dago, hiru hilabete lehenago, Manexi norbaitek lehenengo karabina lapurtu ziola, baina, ipurdiko haiek jasan ondoren, etxekoek berriz ere baimena eman zioten karabina berria erabiltzeko, izan ere, baserri hartako seme-alabentzat, karabina oso garrantzi handiko tresna zen garai hartan, eta berehala lortu zuten gurasoak konbentzitzea, bigarren karabina ere eros ziezaieten.

Horiek horrela, abendu erdialdeko egun batean, jadanik argitu zuenerako elurte polita zegoen, hamar bat zentimetro gutxi gorabehera, eta elur lehorra gozo-gozo ari zuela. Zorionez, larunbata zen eta egun hartan ez zuen eskolara joan beharrik. Gainera, goiz osoan zehar ere halaxe jarraitu zuen elurra bota eta bota. Horren ondorioz, bazkalondorako bazeuden beste hamar bat zentimetro gutxienez.

Egoera horrela zegoela, elurtsu eta hotza, Manex berehalaxe animatu zen kanpadendara joatera. Bazkalondoan, etxeko guztiak zerbaitetan entretenituta ziren bitartean, lo kuluxka egiten edota karta jokoetan, orduantxe baliatu zuen mutikoak kanpora joateko tenorea; izan ere, aurreko egun batean, gure protagonista nagusiak, kanpadenda etxetik hirurogeita hamar bat metrora jarri zuen, sagarrondo handi baten azpian, sagasti erdi- erdian, aspaldian aitonak jarritakoa. Han gustura egoten zen bere bakartasunean, pentsaketan eta zozoei begira.

Abenduan ongi sartuta baldin bazeuden ere, baserri haren inguruan zeuden sagarrondo haietako askok, errege sagarrak ematen zituztenez gero, sagar batzuek luzaroan irauten zuten zuhaitzen adarretan, izotzaldi handiak iritsi arte-edo, horrexegatik zozoek, besteak beste, aprobetxatu egiten zuten jateko adarretan gelditzen ziren sagar bakan haietatik. Abendu aldean oso ohikoa izaten zen, sagar arboletan ikustea fruta batzuk mokokatuta, zulaturik eta pixka bat janda; horixe zozoen eta gainerakoen lanaren ondorioa izaten zen.

Hala, bada, bazkaldu eta berehalaxe, Manex mutiko burutsua izanik, prestatu eta hartu beharreko neurri guztiak hartu zituen: katiuskak jantzi elurretan ibili ahal izateko, polainak jarri elurra oinetakoetara ez sartzeko, zamarra paratu elur jasatik babesteko, kandela txiki bat hartu eskuak berotzeko, mistoak eskuratu kandela pizteko, karabina berria eraman zozoei tiro egiteko eta amari harrapatutako txokolate puska pare bat geroago askaltzeko. Garai hartan, Manexen baserrian argi elektrikoa oso sarritan joaten zen, batez ere elurte handia egiten bazuen edota ekaitz bortitzak baldin baziren, hori dela eta, etxean beti izaten zituzten kandela batzuk. Hori horrela, mutikoak ez zuen batere arazorik izan kandela puskatxo bat eskuratzeko; lapurtzeko.

Hala hornituta, Manex kanpora joan zen inor konturatu gabe, isil-isilik, sagardi aldera ematen zuen atea zabaldu eta zeharkatu ondoren. Giroa zeharo estalita zegoen, ilun- iluna. Elurra mara-mara egiten jarraitzen zuen. Ordurako hogei zentimetro pasatxo elur izanen zen aise. Mutikoa nekez zihoan aurrera halako elur geruzarekin, eta, gainera, etxetik hartutako hainbeste gauzarekin. Sagarrondoen adarrak elurrez zama-zama eginda zeuden, erabat makurtuta; edozein momentutan puskatu ahal zirela ematen zuen. Eta elurra ari eta ari eten gabe, gozo-gozo, malutak goitik behera ia-ia batere haizerik gabe. Elur maindirea loditu eta loditu. Modu horretan iritsi zen mutikoa kanpadendara, asko kostata.

Behin barrura sartuta, atea ongi itxi, eramandako gauza guztiak non edo han kokatu, eroso eseri eta bere ohiko jardunetan hasi zen: elurra sapa-sapa nola ari zuen ikusten gozatu, zozoen zain atezuan gelditu, pentsaketan patxadan egon eta abar. Manexek dendako zulotxoetatik zuhaitzetara begiratu bai, begiratzen zuen, baina hegaztirik ikusi ez, ezin, nonbait, elur erauntsi haiek izanda, lumadun guztiek beren gordelekuetan egoteko agindua jasota zuten. Gainera, arratsalde osoan zehar elurra botatzen jardun zuen etenik gabe, goizean bezalaxe, edo agian are eta gehiago oraindik. Ordurako hogeita hamar edo hogeita hamabost zentimetroak hortxe-hortxe ibiliko ziren elur izararen lodieran.

Manexek bere burua entretenitzeko, denetik pixka bat egin zuen: dendako zuloetatik sagarrondoen adarretara begiratu, ea hegaztiren bat hurbiltzen zen-edo; kandelatxoa piztu, eskuak apur bat berotzeko; txokolate pusketak pixkanaka-pixkanaka jan, karamelua balitz bezala, ahoan urtzen utzita; karabina behin eta berriz eskuetan hartu, eta ea dena puntu-puntuan ote zegoen aztertu eta

miatu eta abar eta abar.

Baina denborak aurrera egin zuen eta ustez berritasun handirik ez zegoen, denak berdintsu jarraitzen zuela ematen zuen, alegia, zozo eta txoririk agertu ez, elurra atertu ez, eta bat eta beste. Baina mutikoak asko erreparatu ez baldin bazien ere, aldaketa nabarmentxo batzuk izan ziren denbora tarte hartan, hau da, ia-ia hiru ordu pasatu ziren eta iluntzen hasita zegoen, elur geruza gero eta handiagoa zen, adarrak zama-zama eginak jartzeraino, eta, bukatzeko, ipar-mendebaldeko haizea unetik unera indartsuago bilakatzen ari zen. Egoera hura ikusita, baserritar txikia pentsatzen hasia zegoen, momentu batetik bestera erabaki beharko zuela etxera itzultzea.

Baina horretan ari zela, hitzetik hortzera haizea zakartu, sagarrondoen adarrak bortizki astindu eta bat-batean bere buruaren gainean kristoren burrunba entzun eta sumatu zuen.

–Jesus, Maria eta Jose!, zer arraio izan ote da hori? –pentsatu zuen bere baitan ikaratuta.

Berehala ohartu zen, ordea, dendaren gainean elur jausi antzeko zerbait erori zela. Ez zen txantxetakoa, kiloak eta kiloak amildu baitziren segundo gutxian oihalaren gainean. Barruan zeukan espazioa txikiago bihurtu zen aida batean, elurraren pisuarekin. Barnean mugitzeko ere zailtasun handiagoak zituen harrezkero. Dendako atetxoa saiatu zen irekitzen, baina elurraren zamarekin ezin izan zuen zabaldu. Beste aldera ahalik eta azkarrena joan eta han ere ahalegindu zen zuloren bat egiten, kanpora atera ahal izateko, baina han ere ezinezkoa. Gero eta larrituago, geroz eta estuago, dendako gainerako txokoetan ere eginahal guztiak egin zituen aterabideren bat aurkitzeko, baina elurraren astuntasuna handiegia zen nonbait berarentzat, eta laster konturatu zen handik ezin zuela aurkitu ihesbiderik.

Lehenengo estualdirik handiena igaro ondoren, bere burua pixka bat lasaitzen saiatu zen. Kandela piztu –ordurako jada ilun baitzegoen–, eskuak pitin batean berotu eta inguru guztira begiratu zuen astiro-astiro, zerbait aurkitu nahian. Halako batean, leiho txikietako zulotxoei erreparatu eta itxaropena pixka bat piztu zitzaion Manexi. Aurkituko ote zuen modurik zulo txiki haietatik ateratzeko? Saiatu bai, behin eta berriz saiatu zen, baina zulo haiek txikiegiak ziren eta ez zuen erarik izan handik pasatzeko. Zulotxoak urratzen eta handiagotzen ere ahalegindu zen, baina ezin; arrakastarik ez! Elurraren zamak presio ikaragarria zeragien. Gainera, han ez zeukan inolako tresnarik, ez labanarik, ez aiztorik, ezta deus ere, dendako oihal ziratua mozteko. Beraz, saiakera hari amore eman beste aterabiderik ez zuen izan.

Etsita, beldurturik eta gogogabetuta, gizajoa, oihuka eta garrasika hasi zen erdi negarrez:

–Aitaaaaa! Amaaaaaa! Aitaaaaaaa! –oihu bizian, zintzurra urratu beharrean.

Baina han, gizaki erantzunik ez! Arrapostu bakarra, haizearena, txistuka eta fiuka, sorgin gaiztoaren pare.

Ordurako erabat ilun zegoen kanpoan eta barruan; ez zen piperrik ere ikusten. Jakina da: Abenduko eguna, argitu orduko iluna. Mutikoa benetako hotza sentitzen hasita zegoen. Zutik ezin jarri, ezin ibili eta ia-ia ezin mugitu. Zamarra jantzita zeukan, baina arropa gehiagorik ez zuen gainean jartzeko, ez estalkirik, ez zarparik. Horiek horrela, misto ontzia hartu eta kandela puska txikia berriz

ere piztea erabaki zuen, eskuak pixka bat berotu zekizkion. Lehenengo mistoa, zoritxarrez, itzali egin zitzaion kandelatxoa piztu baino lehen, urduritasuna eta hezetasuna zirela bide, baina, zorionez, oraindik bazeuzkan gehiago, asko ez baziren ere. Hurrengoan, bai, izeki, lurrean zutik bermatu zuen argizari urtu pixka batekin eta horrelaxe luzaroan egon zen, lurrean eserita, kandela bi belaunen erdian zeukala, gorputza kuzkurtuta eta argiari begira, etengabe so, ia-ia erdi lo gelditu zen arte.

Handik denbora luze batera, Manex bat- batera hotzak hartuta esnatu eta orduantxe konturatu zen ez zeukala argirik; kandela agortu eta hilzorian dagoen txoria bezalaxe itzali zen pixkaka-pixkaka.

–Arraio mila demonio! Besterik ez nian behar oraintxe! Bai zorte madarikatua nirea! – bota zion bere buruari oihuka eta oso aldarte txarrean–. Dios! Ba, segur aski, gaua hemen pasatu beharko diat, nire zoritxarrerako!; zulo ilun eta hotz honetan! –pentsatu zuen bere baitan, etsitzen hasia.

Bestalde, gosea ere gero eta handiagoa sumatzen zuen. Hotzikarak gorputz osoan, eta inguruan, iluntasun beltz-beltza. Berdintsu zen begiak irekita edukitzea edota itxita; argitasuna, hutsaren hurrengo zen!

Baina baserrian, ordea, beste giro oso ezberdin bat bizitzen ari ziren aldi berean: batzuk ukuiluan, hango lanak egiten; beste batzuk sukaldean, afaria prestatzen; eta gazteenak, etxebizitzan zehar, jostaketan.

Afaltzeko ordua iritsi zenean, denak mahai inguruan bildu ziren, Manex izan ezik. Hala eta guztiz ere, denak berehala afaltzen hasi ziren, erabat sinistuta gazteena ere une batetik bestera agertuko zela sukaldean. Baina, ez, ez zen azaldu. Orduan amak:

–Manex!, etor hadi afaltzera segituan! – egin zion oihu indarrez.

Alabaina, minutu baten buruan, eta ikusita ez zela haiengana joan, aitak orduan bi semeri eskatu zien anaia bilatzeko eta sukaldera joan zedin aida batean, denekin afaltzeko.

–Aurkitu eta datorrela berehala hona! – agindu zien serio.

Baina pare bat minutu-edo igarotakoan, bi seme haiek sukaldean azaldu eta:

–Ez dugu bere arrasto bakar bat ere aurkitu etxe osoan, aita!

Orduan, denak pixka bat kezkatzen hasita, berehala mobilizatu ziren: batzuek ukuilua begiratu zuten; beste batzuek bizilekua miatu; eta besteek ganbara arakatu, baina Manexen aztarnarik ez, nahiz eta deitu, gogotik deitu egin baitzioten, deus ere ez, seinalerik ez!

Une hartan, guztiak ohartu ziren arratsalde osoan inork ez zuela mutikoa ikusi, izan ere, denek pentsatu zuten beste talderen batean izanen zela, eta inork ez zion erreparatu bere absentziari.

Azkenean norbait konturatu zen karabina falta zela, eta berarekin batera, baita Manexen zamarra, botak eta polainak ere. Argi zegoen, mutiko ipurtarina kanpora joana zen, baina nora ote, ordea?

Baserriko ate guztietatik begiratu, eta azkenik, sagasti aldera ematen zuen ate parean, arrasto batzuk ikusi zituzten elurretan, ordurako estali samarrak baldin bazeuden ere; izan ere, oraindik mara-mara jarraitzen zuen, sorgin haize bizkorrarekin batera. Jarraian, elurretarako modu egokian jantzi, esku-argi bat hartu, eta, aita eta bi anaia zaharrenak Manexen bila abiatu ziren. Batetik, elurraren altuera handia, eta, bestetik, haize demonio indartsua zirela eta, hantxe ibiltzea ez zen gauerdiko ahuntzaren eztula. Nekez egiten zuten aurrera, baina, hala eta guztiz ere, noizbait iritsi ziren kanpadenda ondoraino, mutikoaren aztarnei jarraituz.

–Manex!, hor al hago? –aitak, ozenki.

–Bai, hemen nago, aita! Hau poza! – baserritar gazteenak, pozaren pozez.

Aitak eta beste bi anaiek segituan ekin zioten ate aurreko elurra kentzeari hanka eta eskuekin, eta bidea egin bezain laster, dendako atea zabaldu zuten. Manex hantxe topatu zuten, bakarrik, hotzak dardarka eta uzkurtuta iluntasunean, baina familiakoak ikusita, biziki poztu zen.

Jarraian, kanpora atera eta etxekoen laguntzarekin, azkar samar iritsi zen baserriraino, berrogei bat zentimetroko elur geruzaren gainean, baina ez da ahaztu behar, minutu batzuk lehenago, bere bila joaterakoan, aitak eta bi anaia zaharrenek bidexka dezente ireki zutela.

Behin sukaldean, anaia zaharrenak hauxe bota zuen ozenki, adarra jotzeko, denen aurrean:
–Hona hemen gure ehiztari ehizatua! Denek barre egin zuten gogotik. Manex, isilik, lotsatuta, baina, hala eta guztiz ere, pozik.

–Denok afaltzera! –bukatu zuen amak, zoriontsu.

Manex eta buztanikara

Apirileko egun batean, dagoeneko udaberrian ongi sartuta, Manexen baserrian belar berdea egiten hasi berriak ziren baratze ondoan, segarekin. Behiak, egunez, ukuilutik kanpora ateratzen zituzten euntzeetan bazkatzeko, baina urrixak eta txekorrak ez, hauek etxean uzten zituzten geldi-geldirik, gehiago gizen zitezen eta bukaeran hiltegira eramateko, behin salduta. Azken haientzat, hain zuzen ere, ebakitzen zuten belar berde hura, ukuilura eraman eta gero abelgorri gazte haiei emateko, hantxe, egoera sedentario hartan, lehenbailehen loditzeko eta geroago saltzeko. Egun bakoitzean oso belar gutxi ebakitzen zuten, bizpahiru eskorga betetzeko adina-edo, egun hartan bertan jaten emateko.

Urtaro hartako sasoi hartan belarra ebakitzen zutenean, belar soroan gelditzen zen soilgune hartara hegazti asko joaten ziren janari bila, handiak eta txikiak, konparazio batera, zozoak, belenabarrak, buztanikarak, beleak eta abar, han xomorro asko aurkitzen baitzituzten jateko, esate baterako, harrak, zizareak, bareak, intsektuak, armiarmak eta abar.

Baserriko mutiko gazteena berehala konturatu zen horretaz, eta, noski, tentaldiari ezin eutsi. Segituan karabinaren bila joan, hartu eta bere logelako leihora hurbildu zen tiro egiteko. Kontu handiz leihoa ireki, begiratu eta segidan ikusi zuen buztanikara bat baratze ondoan, isatsa etengabe astintzen eta bere burua alde batetik beste batera paseoan eramaten, lasterraldi arinak eginez, zer suma eta zer aurki, harrapatu eta jaki goxoa zintzurrera sartzeko.

Arreta handiz itxoin zuen buztanikara pixka bat hurbildu zen arte, eta orduan, ustez ongi apuntatu ondoren, balina jaurti zion jotzeko itxaropenarekin, baina ez, luma bakar bat ere ez zion ukitu. Tiroaren zaratarekin, txoria, izututa, hegaldatu eta airean joan zen ahalik eta azkarrena, pixka bat behintzat urrutiratu zen arte. Simaur pilaren gainean sentitu zen hegaztia lasaiago, momentuz, bederen.

Baina Manexek jardun eta jardun jarraitu zuen, oraindik ez baitzegoen amore emateko prest, eta horregatik, aida batean, ukuiluko eskailerak jaisteari ekin zion, karabina aldean zeramala. Ukuiluko ateko leihatilatik ikusi zuen buztanikara urrun zegoela, behi-ongarri piloaren gainean, bere paseotxoak egiten.

Gauzak horrela, Manexi iruditu zitzaion txoria urrutiegi zegoela balinarekin jotzeko. Orduan zer erabakiko, eta tiro bat apuntatu gabe botatzea lumaduna zegoen aldera, karabinaren zaratotsarekin agin berriz ere hegan hasi eta hurbilduko zitzaion itxaropenarekin. Bazekien probabilitatea oso

txikia zela arrakasta lortzeko, baina probatzeagatik deus ere ez zuela galduko erabaki zuen, eta egin ere, halaxe egin zuen.

Ateko leihatilan karabina bermatu, arma pixka bat behi-ongarri piloa zegoen aldera bideratu eta besterik gabe, hau da, batere apuntatu gabe, tiro egin zion, handik uxatu eta ikusteko nora zihoan. Baina, hara! Hura Manexen harridura! Bat-batean ikusi baitzuen buztanikara behi-ongarri metaren gainean, jirabiraka, iraulka eta itzulika. Ezin zuen ulertu.

–Baina, baina zer arraio gertatu ote da hor? – bere baitan.

Eta bere buruari galdera gehiagorik egin gabe, karabina bazter batean utzi, atea zabaldu eta ziztu batean abiatu zen lasterka, zoritxarreko txoria zegoen alde hartara. Ordurako jada hegaztia azkenekoetan zegoen; handik gutxira azken arnasa eman eta zendu egin zen lumadun gaixoa. Manexek eskuetan hartu eta segidan ohartu zen tiroa buru erdi- erdian zeukala, hots, nekez jo zitekeen hobekiago, hurbiletik botata ere. Une hartantxe ulertu zuen zergatik mugitu zen hainbeste zorigaiztoko buztanikara, alegia, buruan dagoelako nerbio sistemaren gune nagusia, eta, seguru asko, kirioek eraginen zioten jirabirako mugimendu hura.

Jarraian zera pentsatu zuen mutikoak bere baitan:

–Alajainkoa!, batzuetan askoz ere gehiago ehizatzen da batere apuntatu gabe, arreta handiz apuntatuta baino!

Bizitzaren paradoxak!

Manex eta sugegorria

Ekainaren erdialdean, larunbat goiz batean, Manexek karabina hartu zuen belarretara joan baino lehen, pixka batez ehizan aprobetxatzeko. Eguraldia bikain zegoen, eguzkitsu eta gardena; benetako belar giro zegoen.

Bederatziak aldean, ondoko borda baten inguruan zihoan, karabina sorbaldatik zintzilik zeramala, zer suma eta zer ikusi. Halako batean, honako oihu hauek entzun zituen:

–Manex, Manex!, hator azkar, mesedez! – Agustin morroia zen, garrasi bizian.

Mutikoa ahalik eta lasterrena abiatu zen langilearengana. Malda eta muino batzuk jaitsi ondoren, hantxe topatu zuen berehalaxe aldameneko bordako morroia, lurrean eserita eta ondoan sega zeukala.

–Zer da, Agustin, zer da? –Manexek, arnasa estututa.

–Hara, Manex, segan oinutsik ari nintzela, sugegorri malapartatu batek ziztada egin zidak oinbularrean –azaldu zion gizonak estu eta larri– . Mesedez, hoa lehenbailehen aitarengana eta kontatu gertatu zaidana! Esaiok etortzeko lasterka! –eskatu zion Agustinek mutikoari, oinaze batean.

Manex ahal den lasterrena saiatu zen joaten baserrira, aitaren bila, baina, zoritxarrez, une hartan aita ez zen etxean. Amak zein euntzetan ari ziren belarra ebakitzen adierazi eta haraxe bideratu zen mutikoa arineketan, lehen bezalaxe. Belar sorora iritsi zenean, aitak ikusiz batera, kopeta ilundu eta honela hitz egin zion haserre antzean seme gazteenari:

–Manex, non arraiotatik heldu haiz hain berandu? Zer egin duk orain arte? Begira!, beste guztiok dagoeneko hemen ari gaituk lanean jo eta su! Tira!, hartu berehala bihortzekoa eta lagundu anai-arrebei belarra zabaltzen! –agindu zion aitak irmotasunez.

–Aita, barkatu, baina oso gauza garrantzitsu bat kontatu behar dizut! – mutikoak, kikildu samarrik.

–Zer da, ba? Bota segituan kontatu beharreko hori! –berriketarako ez zegoen aitak.

Gaztetxoak aida batean kontatu zion aitari gertatutakoa, eta, berriz ere, korrika itzuli zen Agustinengana, aitarekin. Bizkitartean aitak, Manexen anaia zaharrena ondoko herrira bidali zuen, sendagilearenera, kontatzeko zer-nolako ezbeharra gertatu zen.

–Zuek bitartean jarraitu lanean, e? –agindu zien gainerako seme-alabei.

Seme gazteenak berehala gidatu zuen aita morroia zegoen lekuraino, baina ez zekiena zen nola aurkituko ote zuten, minutu haiek guztiak igaro eta gero. Iritsi eta aitak:

–Zer dugu, zer dugu, Agustin?

–Hemen, motel, amorratuta!, ezin mugiturik! Segan ari nintzela, sugegorri alu zerri batek oinbularra heldu eta hozka egin baitit! –erantzun zion oinazetan eta kezkaturik morroiak.

Izan ere, Agustin, beren herrikoa ez baldin bazen ere, bolada hartan beraien baserri ondoko borda batean ari zen lanean, morroi moduan, bera bakarrik, hazienda gobernatzen. Goiz hartan, bero zakarra zegoela eta, Agustinek erabaki zuen oinutsik aritzea segarekin, freskoago sentitzeko goizeko ihintza eta erosoago jarduteko lanean, baina sugegorrien arriskua ez zuen ongi baloratu, eta gero gertatu zena gertatu zen. Manex eta aita iritsi zirenerako, Agustin gizajoaren oina eta orkatila oso hazita zeuden, eta hark, oinez ezin ibiltzeaz gain, oinaze handiak sorrarazten zizkion zorigaiztoko gizonari. Zatak eta galtzerdiak beragandik hurbil samar zeuden, baina inola ere ezin zituen jantzi eta erabili. Nabarmena zen narrastiaren pozoiak oso ongi egin zuela bere lana.

–Ea, Agustin, utz iezadak zangoan tornikete bat egiten, odolaren zirkulazioa eragozteko – proposatu zion aitak, eta besteak onartu, noski, zer egin behar zuen bestela?

Aitak, zarpa batekin eta makilatxo batez, segituan egin zion tornikete antzeko zerbait, berna erdialdean. Gizona pixka bat baretu eta goxatu egin zen.

–Lasai, Agustin, seme zaharrena sendagilearen bila joan duk eta sarri agertuko dituk biak; ikusiko duk! –kontatu zion Manexen aitak, morroiak lasaiki itxoin zezan.

–Bai, egia esateko, eskerrak Manex ikusi dudala eta deitu bezain azkar entzun dituela nire garrasiak, bestela, ez zekiat zer eginen nuen –bota zuen Agustinek bere burua trankildu nahian.

Handik minutu gutxira, sendagilea ikusi zuten behetik gora haiengana zihoala, Manexen anaia zaharrenarekin. Denek lasaitu handia hartu zuten.

Zain zeuden hiruengana iritsi bezain azkar, sendagileak Agustinen oina aztertu zuen; oso hazia eta erabat more zegoen. Jarraian, ekarritako antidotoa injekzioaren bidez jarri eta pixka batean zain gelditu ziren.

Medikuak espero zuen bezala, handik hainbat minututara, hantura jaisten hasi zen eta baita oinazea murrizten ere. Oraindik beste horrenbeste denboran jarraitu zuten denek morroiarekin, lagun egiten eta haren hankaren bilakaeran arreta jartzen, osagileak batez ere, noski.

Une jakin batean, alegia, sendagileak ikusi zuenean Agustinen oina dezente normalizatua zegoela, orduan, Manexen aitak eta medikuak lagundu egin zioten bordaraino iristen, aldapan gora, poliki-poliki.

Borda barruan, sendagileak morroiari egin beharreko jarraibideak eta hartu beharreko sendagaiak eman zizkion. Gauzak horrela, sendagileak eta beste hiru gizonezkoek ikusi zutenean pazientea bere onera itzultzen hasita zegoela, eta, bestalde, askoz ere lasaiago agertzen zela, momentu hartantxe erabaki zuten norbera bere zereginetara itzultzeko tenorea zela, eta halaxe agurtu zuten denek morroia:

–Tira, Agustin, egin ezak esan diadana eta berehala osatuko haiz –sendagileak, sorbaldan zaplada

batzuk emanez.

–Eskerrik asko, mediku jauna, etorri izanagatik! –Agustinek, bihotzez.

–Bueno, Agustin, ongi segi eta zerbait ere behar baduk, badakik non gauden laguntzeko prest! –esan zion mutikoaren aitak, azken agur moduan.

–Adio, adio denoi, eta bereziki hiri, Manex, lagundu izanagatik! –morroiak, esker onez.

–Ez horregatik, Agustin! –Manexek, pozik eta bere buruaz harro.

Horrela, bada, egunek aurrera egin zuten neurri berean, dirudienez, morroi hura ere beste eragozpenik gabe, normaltasun osoarekin osatu zen. Denek beren ohiko lanetan jarraitu zuten, oztoporik gabe.

Hala ere, handik egun batzuetara, Manexen baserrian denak bazkaltzen ari zirenean, bat- batean, sarrerako atean <kask-kask-kask!> entzun zuten.

–Nor ote da ordu honetan? –esan zuen aitak harriduraz.

Baina, <kask-kask-kask!> entzun zuten berriz ere denek.

–Banoa, banoa! –esan zuen aitak eta ate aldera abiatu zen.

–Kontxo, Agustin! Zer habil hemen? Sendatu al haiz, ba? –aitak.

–Bai, bai, oso ongi nagok, eskerrik asko! – morroiak–. Baina, aizak, gauza bat, Manex etxean al da?

–Bai, bai, hementxe zagok, noski, familia osoa bazkaltzen ari baikinen –aitak, pixka bat harriturik, morroia ordu hartan hantxe ikusita–. Zer, ba?, arazoren bat?

–Ez, ez! Alderantziz, lasai! –Agustinek, irribarrez.

–Ai!, baina, barkatu! Tira, tira, sartu barrenera! –aitak, irri abegikorrez. Behin sukaldean, bisitariak poltsatxo bat agertu eta handik esku-erakutsi batzuk atera zituen.

–Balin batzuk eta txanpon hauek Manexentzat ekarri ditut –esan zuen denen aurrean pozik–. Hauekin nire esker ona azaldu nahi diot, lehengo egunean eman zidan doaneko laguntzarengatik.

–Hator, hator, Manex!, har itzak opari txiki hauek! –eta, balinak eta duro batzuk eman zizkion ondoko bordariak.

Horrela, bada, egun hartan Manexek egundoko ustekabe atsegina izan zuen, berak gutxien espero zuenean.

Manex eta eskopeta

Hurrengo abuztuko egun batean, ondoko baserriko gizonak zeharo harrituta utzi zuen Manex, izan ere, halako batean bere aurrean plantatu eta zera proposatu zion, bakarka.

–Aizak, Manex, begira, eskopeta hau ekarri diat eta proposamen bat egiteko asmoa zeukaat. Uzten badiat eskopeta, animatuko al haiz zaintzera pixka bat gure artasoro hau? – beraien alorra seinalatuz behatz erakuslearekin–. Botatzen dituan hegazti guztiak hiretzat izanen dituk. Zer iruditzen zaik, Manex? –bukatu zuen gizonak.

Horren ustekabean harrapatu zuen mutikoa baserritarraren proposamenak, non momentuz ez baitzekien zer esan. Hala ere, pixkatxo batean pentsatu, kalkulatu eta, bai, baiezkoa ematea erabaki zuen. Ideia ona iruditu zitzaion: probatu eta ikusi ea zer ondorio zekarzkion esperientzia hark.

–Bueno, ba, bai, Pello. Onartzen dizut; saiatuko naiz –ametitu zion mutikoak.

–Ederki, ba, begira, oraintxe bertan azalduko diat nola ireki behar duan eskopeta, nola kargatzen den, nola jartzen zaion asegurua, non bermatu behar duan eskopeta tiro egiteko, nola sakatu behar duan katua eta abar. Zer pentsatzen duk, Manex? –galdetu zion ondoko baserritarrak.

Mutikoak ez zuen denbora handirik behar izan erabakia hartzeko, etxekoei ere ez baitzien deus ere galdetu gai hari buruz. Hantxe bertan itxi zuten tratua biek, hitzez, noski, eta momentu hartan bertan mailegatu zion eskopeta Pellok, nahiz eta Manexek sekula santan ez zuen halako tresnarik erabili.

Gaur egun pentsaezina izanen litzateke antzeko zerbait gertatzea, baina orain dela berrogeita hamar bat urte bai, orduan antzeko gauzak eta handiagoak ere jazotzen ziren.

Pelloren baserriak alor polit bat zeukan Manexen familiaren baserriaren ondoan, eta urte hartan artoa zuten ereina. Abuztuaren bukaerarako artaleak jadanik eginak eta ontzen hasiak egoten ziren, eguraldiaren arabera.

Urte hartan ere artaleak oso ongi hazita zeuden eta baita heltzen hasiak ere, horrexegatik, hain zuzen ere, Pello baserritarra seguru zegoen, handik gutxira bele-nabarrak eta beste hegazti batzuk ere hasiko zirela hara joaten, beren artaleak lapurtu eta jateko, eta huraxe ez zuen inola ere nahi, horregatik egin zion proposamen hura Manexi, hark, nola edo hala, beren artasoroa zaindu eta babes zezan eskopetaren laguntzarekin.

Gauzak horrela zeudela, baserritar txikia bere kalkuluak egiten hasi zen eta hartarako, kanpadenda hara eramatea ideia ona izan litekeela begitandu zitzaion, alegia, artadi ondoko bide batera. Biharamunean, pixkanaka-pixkanaka, hautatutako txokora kanpadenda eraman eta hantxe bertan hedatu zuen.

Bidea, artasoroaren eta zumardi baten artean zegoen; lizar batzuk ere bazeuden bien artean. Hantxe kokatu zuen kanpadenda, belen-abarrak eta gainerako hegazti lapurrak handik etorriko zirelakoan. Denda bide bazter batean ezarri zuen, inork igaro behar baldin bazuen ere, lekua izan

zezan.

Lehenengo arratsalde hartan, ohi bezala, inori deus ere esan gabe, sukaldetik ogi eta txokolate pixka bat hartu askaltzeko, eta ondoren eskopeta eskuratzera joan zen. Gauza haiek guztiak jasota, poliki-poliki eta jakin-min handiarekin, kanpadenda aldera abian jarri zen.

Kanpadenda barruan, bere burua non kokatu, zein leihotatik tiro egin eta tiro nola egin deliberatu zuen. Horren ondoren hegaztien zain gelditu zen, irrikaz, ea zoriak zer zekarkion.

Ordu laurden bat-edo igarota, bele- nabarren lehen garrasi eta karrankak hasi ziren sumatzen zumarren artean. Manex erne eta adi jarri zen. Dendako leiho batetik begiratu eta segituan ikusi zituen hegazti zuri-beltz batzuk zumardian. Geroxeago, hurbilago, hau da, lizardian. Mutikoak, urduri, eskopeta hartu, kokoriko jarri, arma leihotxoan bermatu eta, nola edo hala, apuntatzen hasi zen. Orduantxe etorri zitzaion gogora Manexi Pellok eskopeta uzterakoan esandakoa <kontuz, e?, honek karabinak baino askoz ere kolpe handiagoa ematen baitu tiro egiterakoan!; gogotik eutsi behar diok! Aditu?>. Horiek horrela, mikari ongi apuntatzen eta eskopetari egoki eusten saiatu zen, baina tiroa bota zionean, <danba!> akabo, ukaldiaren indarrarekin mutikoa lurrera joan zen, atzerantz, hankaz gora, eskopeta eta guzti! Aurrealdeko mendian, bai oihartzun latza tiroak egin zuena!

–Atx! Alua! Bai kolpe zakarra! Egia esateko, ez nian uste hain handia izanen zenik! – pentsatu zuen bere baitan, pixka bat ikaratura.

Agondu zenean, ohartu zen bele-nabarra ez zuela jo eta, noski, tiroak egindako burrunbarekin, hegazti guztiek tximistaren pare ihes egin zuten handik; ez zen bakar bat ere gelditu. Denek ziztu batean hanka egin zuten. Gainera, handik denbora gutxira, Manex oinaze txiki bat hasi zen sumatzen sorbaldan, tiroaren takatekoaren ondorioz. Baina, tira, mina jasangarria zen eta aurrera jarraitu zuen bere ahaleginean.

Itxoiten segitu zuen ea bitartean beste hegaztiren bat hurbiltzen ote zen artoa jateko asmoz. Minutuak eta minutuak igaro ziren, baina alerik ere ez zen agertu han. Orduan, denbora errazago emateagatik-edo, ogia eta txokolatea hartu eta poliki-poliki jan egin zituen, mokadu bakoitza ongi dastatuz. Baina, hala eta guztiz ere, arratsalde hartan ematen zuen hegazti haiek ez zutela itzultzeko asmorik, lehenengo tiroaren eztanda-hotsa entzun eta gero. Gauzak halaxe, Manex etxera itzuli zen, ilunabarra baino lehen, pixka bat etsita eta desanimaturik, baina biharamunean berriz ere saiatzeko asmoarekin.

Hurrengo goizean, eta oporretan zegoela aprobetxatuta, berriz ere jo zuen kanpadenda aldera, isilik, zortea probatzera. Iritsi bezain laster, barruan instalatu zen, hegaztiei itxaroteko asmoz. Handik minutu batzuetara, urruti samar, miken lehenengo oihu eta karrankak entzun zituen. Mutikoa, isilik; arnasari eutsiz. Geroxeago, hurbilago, zumardian entzun eta ikusi zuen bele-nabar taldetxo bat. Manexek zain jarraitu zuen, irrika handiz. Azkenean bizpahiru mika ikusi zituen bertatik bertara, bere aurreko lizarrean pausatuta; oso gertu zeuden. Mutikoak bikain ikusten zituen leihatila txikiaren barna, baina mikek bera ez, gaztetxoa iluntasunean baitzegoen babestuta, kanpadenda barnean.

Manexek arreta eta kontu handiz, eskopeta berriz ere leihatilan bermatu zuen, belauniko jarri, ipurdia orpoetan pausatuta –tiroaren kolpearekin lurrera ez erortzeko–, apuntatu eta azkenik, nola edo hala, tiroa jaurti zion aukeratutako mikari. Baina, bai zera!, oraingoan ere huts egin eta hegazti guztiek alde egin zioten tximistak bezala, izuturik eta zalapartaka. Penaturik eta desanimatuta, azkenean etxera joan behar izan zuen bazkaltzera. Inori ez zion deus ere aipatu bere azken zorigaiztoa, baina kontu positibo bat behintzat atera zuen goiz hartan, izan ere, tiroa egindakoan bera ez zen lurrera joan, eskopeta eta guzti, eta, eskuin sorbaldan hartutako kolpea ere, txikixeagoa izan zen; hobekuntza pixka bat behinik behin lortu zuen azkenean. Dena ez zen galera gertatu.

Baina, Manexen ezaugarri nabarmenetako bat bere jarraitutasuna zen, eta arratsalde hartan ere ederki asko frogatu zuen hura. Amorerik batere eman gabe, bazkalondoan berriz ere bere kanpadendan plantatu zen, aida batean. Itxoin eta ea zer gertatzen zen.

Ordubete-edo igarotakoan, berriro ere hasi ziren hegazti batzuk itzultzen, askaria hartzeko asmotan nonbait. Mutikoak itxaron, prozedura guztia errepikatu eta bukaeran, tiro egiteko unea iritsi zenean, tiro egin eta hantxe joan zen goitik behera lurreraino lehenengo mika. Manex, pozak txoratzen, dendatik lasterka atera, maldan behera joan, eta errekatxoaren ondoan atzeman zuen bele-nabar gaixoa, jadanik azken arnasa emanda.

Etxean denak poztu egin ziren ehizakia ikusita. Amak, gauerako, lumatu, garbitu eta frijituta atondu ondoren, batzuek behintzat oso gustura jan zuten, gatz pixka bat botata. Etxeko guztiek zoriondu zuten familiako gazteena; Manex, pozaren pozez. Ekintza hark frogatu zuen esaera zaharra, “darraionarentzat da ehiza”.

Eta mutikoarentzat, zorionez, halaxe jarraitu zuen udak, Pelloren baserrikoek arto uzta bildu zuten arte: egun batean mikaren bat botatzen zuen, beste batean zozo bat edo beste, hurrengoan birigarroren bat, noizean behin eskinosoren bat eta horrelaxe hurrenez hurren. Manex zeruan bezala sentitzen zen: bera pozak txoratzen eta, gainera, etxeko guztiek goraipatuta. Huraxe zen arrakasta eta lorpena! Berriro ere, antzeko esaera zahar bat etorri zitzaion burura, “jarraikiz, azeri zaharrak atzematen du oiloa”.

Handik egun batzuetara, igandearekin, Pello Manexen baserrian agertu zen bazkalondoan. Atean jo eta:

–Arratsalde on, denoi! Zer moduz! –agurtu zituen etxekoak, sukaldera sartu bezain laster.

–Kontxo, Pello! Zer zabiltza hemen orduotan? Zer berri dugu? –hitz egin zion amak denen izenean.

–Berri onak, emakumea! Begira, arto uzta bildutakoan, Manexen lana momentuz behintzat bukatu egin da eta eskopeta jasotzera heldu naiz –azaldu zien guztiei–. Baina deus baino lehen, Manex zoriondu nahi nuke, egindako lan bikainagatik –jarraitu zuen auzokoak, baikor–. Hator, hator hona, Manex, trebe hori!

Mutikoa zutitu, hurbildu eta:

–Hara ba, mutikoa, zorionak eta mila esker egin duan lan ederragatik! –eta zakutotik aterata, poltsa

bete bat arto irin eman zion–. Esaiok amari, irin honekin talo goxoak egiteko! – jarraian, patrikatik txanpon batzuk atera eta zera esan zion–: eta sos hauek, herorrek nahi duana eros dezaan! – besarkadatxo bat emanez bukatu zuen Pellok bere jarduna, Manexen altueran jarrita, noski.

Familiako guztiek txalo sutsuak egin zizkieten biei, bakoitzari bere merituengatik. Geroxeago, giro onean eta elkar agurtu ondoren, Pello baserrira itzuli zen, behin eskopeta berreskuratuta.

Uda bukaera hartan, Manexen baserrian, hegazti haragirik eta talorik behinik behin ez zen falta izan, etxeko gazteenari esker. Zorte oneko ibili ziren.

Handik egun batzuetara, ordea –jakina da deabrua beti erne egoten dela–, ba, baserriko ezkaratzean bi guardia zibil agertu ziren goizean goiz, baba beltzak baino serioago, kopletarako itxurarik gabe.

–Jainkoak egun on! Zu al zara etxe honetako nagusia? –galdetu zion bietako batek tinko eta irmotasunez aitari, erdara batuan.

–Nagusia-edo... –aita hasi zen azaltzen.

–Bazara ala ez zara? Argi gurekin, e!, aditu? Orduotan ez baikaude txorakeriatarako! –beste guardia zibilak, oilarra baino harroago.

–Bai, bai, ni nauzue etxe honetako jauna! Zer gertatzen da, ba? –aitak, apalki.

–Zer gertatzen den? Ba, begira!, salaketa bat jaso dugu eta kontatu diguten arabera, zuen semerik gazteena udan zehar ehizan aritu omen da eskopeta handi batekin, baimenik gabe. Egia al da hori? –guardia zibilak, harroputz eta tente-potente.

–Bai, egia da, baina auzokoak eskatuta aritu zen haren... –aitak ekin zion adierazpenak emateari.

–Ixo! Zaude isilik, mesedez! Guri bakar- bakarrik gertatutakoa zaigu axola eta ez zergatia! –moztu zion bat-batean guardiak, modu zakarrean.

–Bai, baina... –saiatu zen berriz ere aita ulertarazten.

–Zer baina eta zer baina ondo? Hemen ez dago bainarik! Guk agintzen duguna egiten da eta kito! Argi gelditu al zaizu? –esan zion beste guardia zibilak, handikeriaz–. Lege hauste horrek isuna dakar, eta jakizu gauza bat, isuna zenbat eta beranduago ordaindu, orduan eta garestiago aterako zaizu! Aditu al duzu ongi belarritik? –galdetu zion arrotzak ohiko nagusikeriaz.

Aitak, apal-apal, isildu egin behar, etxebizitzara nahigabetuta igo, dirua hartu eta zorroztasunez eman behar izan zion guardia zibil pare desatsegin hari, ikaragarrizko amorrazioarekin.

–Mendi zorri potro ustelak! Eltzetsu zikin madarikatu alaenak! Larre zorri makartsu halakoak! Txapeloker alfer gorotz astazakilak...! –honelako arrosario santua errezatzen gelditu zen Manexen aita etxeko ezkaratzean, bere kolkorako–. Gure poza putzura! –pentsatu zuen azkenean.

Manex ehizan

Abuztuaren bukaera-bukaeran, txapelokerrekin izandako atsekabea, nola edo hala, gainditu ondoren, berriz ere karabina erabiltzen hasi zen, ehizan eginen bazuen. Arratsalde batean, baserritik atera eta goiko alderantz abiatu zen oinez, karabina aldean zeramala. Hainbat minututan belar soroetan ibili eta gero, alanbre arantzadun hesiaz beste aldean hegazti handi samar bat ikusi zuen lurrean, uso baten tamainakoa, lumak hauskarak, azpikoa zurixka eta zerrenda ilunak zituena, eta buztana beltza; ez zekien zer arraio ote zen, baina ederra behintzat, bai, bazen. Hantxe ari zen hegazti handixko hura, euntzeko belar motxaren gainean, mokoarekin zerbait bilatzen, janaria, segur aski.

Mutikoa berehala lurrera makurtu, lau hankan jarri eta alanbre-hesiko zutoin baten aldera joan zen astiro-astiro, karabina lurrean arrastaka zeraman bitartean. Hantxe babes pixka bat aurkitu zuen, bere burua gordetzeko hegazti ezezagun haren ikusmenetik. Une egokia iruditu zitzaionean, hau da, ezagutzen ez zuen hegaztia lurrera begira ari zenean, Manexek bi ukondoak lurrean ongi bermatu zituen eta karabinaren ipurdia eskuin sorbaldan. Ahal bezala apuntatu eta tiro egin zion, baina ez zuen jo.

Antza denez, hegazti hark, balina bere gainean igarotzen sumatuko zuen, eta horregatik-edo, burua segituan altxatu eta halaxe mantendu zuen hainbat segundotan, tente-potente. Mutikoak segundo haiek, konpresio armari beste balin bat sartu eta berriz ere apuntatzeko baliatu zuen. Hegaztiak buru tente zirauen, halako zorte txarrarekin, non tiroak buru erdian jo baitzion takatekoa; zerraldo erori zen gaixoa!

Manex, pozaren pozez, karabina lurrean utzi, zutitu, alanbre arantzadun hesia zeharkatu eta lasterka joan zen harrapakinaren bila. Iritsi eta huraxe frogatu ahal izan zuen, alegia, ukaldi bortitza buru erdi-erdian zeukala Hegaztiak. Honi ez zitzaion gertatu buztanikarari bezalaxe, hots, jaurtigaia buru- buruan jaso eta jirabiraka hasi eta iraun zuena zenbait segundoz; hau, ordea, ez! Zergatik? Auskalo! Mutikoarentzat erabateko misterioa izan zen, baina halaxe gertu zen, halaxe gertatu zenez.

Gauzak hala zeudela, hegazti arraroa hartu eta karabina jaso ondoren, etxe alderantz jo zuen pozik eta harroxko gure mutikoak. Bidean, hala ere, auzoko gizonezko batekin egin zuen topo.

–Zer, mutikoa?, nola joan zaik ehizaldia? Ongi? –galdetu zion bordariak.

–Ongi esan beharko! Bat behintzat bota dut eta! –mutikoak, alai–. Hala eta guztiz ere, ez dakit zer hegazti mota den; honelakorik ez dut inoiz ikusi –jakinarazi zion Manexek–. Zuk ba al dakizu zer den hau? –amaitu zuen mutikoak, beste baserritarrari lumaduna erakusten zion bitartean.

–Ea, erakutsidak hurbilagotik, hobeki ikusteko! –eskatu zion gizon helduak–. A!, bai, bai! Oraintxe konturatu nauk zer txori den! Hau kukua duk; hegazti ederra bezain alferra! – azaldu zion auzokideak–. Baina, Manex, argi ibili e!, uste baitut hegazti mota hau debekatuta dagoela botatzea! Txapelokerrek ikusten bahaute honekin, auskalo zer gerta litekeen! – ohartarazi zion gizonak.

Baserritar txikia segituan jarri zen erne eta kezkatuta, aida batean etorri baitzitzaion burura, aurreko egunetan norbaitek guardia zibilei egindako salaketa.

–Ea gizon hauxe bera izan ote zen lehengo salatari ustel malapartatua! –pentsatu zuen berekiko mutikoak, ezinbestean.

Manexek ez zekien gizonak esandakoa egia ala gezurra ote zen, baina, badaezpada ere, zuhurtziagatik eta izuagatik, kukua berehalaxe bota zuen hesiko zulo batera, berriz ere ez edukitzeko isunen bat jasotzeko arriskurik. Gizona eta mutikoa hantxe banandu ziren eta bakoitzak bere etxerako bidea hartu zuen. “Kukua, sanjoanetan kuku, sanpedroetan mutu”, etorri zitzaion burura istantean gaztetxoari.

Manexek zenbait egunetan kirioak dantzan eduki zituen, txapelokerrak berriz ere beren baserrian agertuko ote ziren beldur, berri txarren batekin. Baina, zorionez, mutikoarentzat, ez ziren begi bistan azaldu eta hau erlaxatzen hasi zen.

Handik aste batzuetara, Manexen amak seme hauxe berbera, gizon baserritar haren etxera bidali zuen, mandatu baten aitzakian.

–Kontxo!, egun on, Manex! Zertan habil gure etxean? –agurtu zuen etxekoandre abegikorrak.

–Bueno, ba, hemen. Amak fardel hau hona ekartzeko eskatu dit eta –mutilaren erantzun apala.

–Tira, eskerrik asko, Manex! Baina, sartu, sartu hadi barrenera!, ez gelditu hor kanpoan, mesedez! –etxekoandrearen eskaera atsegina.

Barrura sartu, eta sukalderako bidean, apal txiki baten gainean, hara non ikusi zuen berak hildako kuku berbera, disekatua, buruan balinaren aztarna agerian zuela! Sor eta lor gelditu zen, baina etxekoandre jatorrari ez zion zipitzik ere esan. Sukaldean pastaren bat-edo eman zion emakumeak mutikoari, esker onez, eta elkar agurtu zuten.

–Nahi duan arte, Manex, eta egon bizkor!

–Mila esker, andrea!

Baina etxerako bidean, ordea, horratx, non topatu zuten elkar berriz ere baserri hartako gizonak eta Manexek berak, bide berberean!

–Egun on, mutikoa! Zer?, ehizan, ala? – iseka airearekin, gizonak.

–Ez, ez! Zure museoa ikustetik heldu naiz! Ederki disekatuta jarri duzu nire kukua, etxean, e! –bota zion Manexek, lehor eta erasokor–. Ez al zenidan esan, ba, debekatuta zegoela kukuak hiltzea?, gezurtia, ez bestea! Eta orain neronek salatzen bazaitut, zer, e? –jaurti zion gaztetxoak, haserre.

–Aaa!, baina nik ez nian hil, kuku hura, e! Nik hilda aurkitu egin nian, besterik ez! – gizonak, handi-mandi moduan.

–Bai, bai! Eta suposatzen dut, gainera, non aurkitu zenuen!, hesi honetan, ez da hala?, lapur zikina!

–Manexek, oso aldarte txarrean–. Oraintxe bertan noa parte ematera, babo arraioa! Oraingo honetan kukuak txit oker jo dizu, adiskidea! –eta barrena ongi husturik, gustura asko alde egin zuen handik etxera.

Manex eta zerrama

Irailaren hasieran, eskolara joaten hasi baino lehen, arratsalde batean, aitak Manexi zerrama zaharra pixka bat zaintzeko eskatu zion. Garai hartan, baserrian, zerri eme handi eta zahar bat zuten, oso-oso zaharra, hain zaharra zen, non itsu ere gelditu baitzen. Huraxe izanen zen, segur aski, bere azken udazkena, zoritxarrez.

Egoera zail hartan, ikusmenik gabe, nekez orientatzen zen ibiltzeko garaian, horrexegatik, hain zuzen ere, aitak laguntza eskatu zion Manexi, zerrama hura pixka batean begiratzeko.

Unea iritsita, aitak txerritegiko atea zabaldu eta zerrama atera zedin gonbidatu zuen: kux-kux! deitu zion behin baino gehiagotan. Animalia kankailu hura azkenean hasi zen mugitzen, baina, jakina, larrainera atera zenerako, ukuiluko zutabe bat, aska eta atea bera ere jo zituen muturrarekin, gaixoak, ezin ikusi izanagatik. Behin kanpoan, aitak, Manexek eta honen arreba batek, azkenik, poliki-poliki lortu zuten animalia itsua, etxe aurreko lizardiraino joanaraztea, baina ez lehenago larrain ondoko intxaurrondoari eta lizar lodi bati muturreko bana eman gabe.

Hara ailegatutakoan, aitak zera agindu zion seme gazteenari:

–Bueno, Manex, erne ibili eta kontu izan ezak zerramaz, minik har ez dezan! Konforme?

–Bai, bai, lasai, aita! Nire kontu! –erantzun zion mutikoak erabakitasunez.

Azkenean, lizardiko belardi zelai txukun hartan, gustura aritu zen zerrama itsua, entzumenak eta usaimenak gidatuta, lurra usnatzen, belarra jaten, soropila muturkatzen, nahiz eta muturrean bertan alanbre lodi bat eduki sartuta, sudurrean, lurra ez muturkatzeko. Zizareak, harrak, zainak eta bestelako xomorro goxoak ahoratzen ari zen, eta animalia gustura asko haiekin.

Geroxeago, erreka txikiko uraren murmurioak erakarrita, lauhankakoa uretaraino joan zen pixkanaka-pixkanaka, egarria asetzera. Manexek urde ahardi zaharra egoera lasai hartan ikusita, bera ere trankildu eta erlaxatu egin zen. Segituan errekako ezkailu eta gainerako ur animaliatxoekin entretenitu egin zen, halako eran entretenitu ere, non zerrama zaintzeko mandatua ere zeharo ahaztu egin baitzitzaion: hemen ezkailu batzuk igerian, hor karramarro bat edo beste oinez, han zapaburu multzo handi bat isatsak mugitzen; harri baten ondoan tximeleta bat pausatu nahian ziru-zira, ur azalaren gainean sorgin-orratz bat hegan eta orbelaren artean eulien zunburruna. Hantxe ari zen mutikoa gogara, bere baitan bildua eta jardun hartan erabat murgildua, harik eta bat-batera eta gutxien uste zuela:

–Plausta! Plasta-plasta! Punpa! –honelako zaratotsak entzuten hasi zen arte. Eta jarraian kurrinka eta zurrunga; haiek ziren haiek garrasiak eta kurrixkak!

Manexek, harrituta, burua altxatu eta begiratu egin zuen: hondamendia! Zerrama itsumustuan eta oharkabean putzu handixko batera erori eta ezin zen atera. Tarrapataka mutikoa ahalegindu zen laguntzen, baina ezinezkoa; bakarrik ez zegoen modurik, zerrama handia baitzen. Azkenean, etxera joan, gertatutakoa jakinarazi eta laguntza eskatu behar izan zien. Lasterka eta batere denborarik galdu gabe, aita eta beste hiru anaia zaharrenak joan ziren Manexekin, ezbeharra pasatu zen lekura.

Bi semek belarrietatik tiratuta, besteak isatsetik bultzatuta eta aitak sabeletik pixka bat altxatuta, lauren artean aida batean atera eta salbatu zuten zerri eme itsua. Lasaitu ederra hartu zuten denek!; batez ere Manexek!

Errekatik, denen artean, ukuiluraino eraman eta bere txerritegian sartu zuten; muturreko bat edo beste ere ez zitzaion falta izan zerrama gaixoari, ateratzerakoan bezalaxe, atea eta zutabea jota.

Arazo eta eragozpen haiek ikusita, harrezkero zerri ama zahar eta itsu gaixo hura ez zuten gehiagotan kanpora aterako, harik eta San Martin inguruan, larrainean hiltzeko ateraraziko zuten arte, errukarria.

Manex oso pozik zegoen, erabat sinistuta aita une haietan zeharo ahaztuta zegoela berarekin, baina, halako batean, hara non entzun zuen:

–Eta hi, Manex!, non hengoen zerrama erori den momentuan? Zertan hintzen? Kontatu! – kargu hartu zion aitak, zorrozki–. Esadak egia, e!, aditu?, bestela gogotik damutuko zaik eta! – agindu zion aitak, kopeta belztuta–. Zergatik ez duk ongi zaindu?

–Bueno, ba, zera, zerriari begira nengoen, baina, bat-batean errekako putzuetan ezkailuak, karramarroak, txalburuak eta abar hasi naiz ikusten, eta haiekin despistatu egin naiz pixka batean...

–Pixka batean diok? Lotsagabea, ez bestea! Niri ez etorri aitzakia merkeekin, e!, ulertu? – bota zion gizonak, mingainean herdoilik gabe, eta arratsalde hartan, bere aitzakiarik hoberenek ere ez zuten Manex libratu, ipurdiko eta belarrondoko on batzuk hartzetik.

Manex eta txerrikumeak

Irailaren erdialdean, ikasturtea hasi berria zutela, eskolatik atera eta baserrira iritsi bezain azkar, amak askariak prestatu –ogia eta txokolatea– eta berehala bidali zituen bi txerrikume zaintzera, Manex eta adinean bere aurreko anaia zena. Gehienetan baserri aurreko lizardian eta herrirako bidean ibili ohi ziren bi mutikoak, bi txerrikumeak babesten, hauek belarrak, zainak eta txerrien gainerako menu guztiak jaten zituzten bitartean, jakina, aurkituz gero.

Gauzak horrela, amak honela hitz egin zien bi seme gazteenei:

–Tira, mutikoak!, hartu meriendak eta zoazte lehenbailehen zerrikumeak zaintzera, potzolo-potzolo egin daitezen!

–Bai, oraintxe bertan, ama! –bietako batek, alai.

Bi txerrikumeak sabelaldi berekoak ziren, eta, hain zuzen ere, txerrama zahar eta itsuaren azken kumeetako bi, gainerakoak saldu egin baitzituzten, etxean txerri gehiegi ez edukitzeagatik.

Arratsalde hartan, beste askotan bezalaxe, laurak, hau da, bi txerritxoek eta bi mutikoek, herri alderako bidean jo zuten aurrerantz. Normalean, txerritxoak nora, mutikoak hara joaten baitziren.
Txerrikume haiek ere muturrean, sudurren zehazkiago esanda, alanbre lodi bana zuten jarria, bideetako belardiak eta soropilak gehiegi ez harrotzeko, bestela, noski, txerri guztiek bezalaxe, haiek ere oso gustukoa zuten eta, lurra altxatzea, jakiak bilatzeko. Horretantxe zetzan, hain zuzen ere, bi mutikoen lana, txerrikumeei begiratu eta ez uztea bideak gehiegi urratzen.

Hala, bada, bide hartako toki jakin batean bi lizar lodi eta motz lepatuta zeuden, bat hesitik oso hurbil. Hesiak, pare hartan, elorri beltz handi batzuk zeuzkan, eta denen artean, alegia, elorri handi, lahar luze eta lizar motzaren artean, txabolatxo antzeko zulo bat egiten zuten, eta hantxe egoten ziren Manex eta anaia hura behin baino gehiagotan, hiruzpalau hilabeteko txerrikume haiek zaintzen zituzten bitartean. Barruan bi harri handixko gutxienez bazeuden, eta haietan esertzen ziren biak sarritan askaltzeko, txerritxoak kanpoan ari ziren bitartean.

Arratsalde hartan, ordea, txabolatxoan sartu zirenean, nonbait irudituko zitzaien oraindik goizegi zela askaltzeko, eta bi ogitartekoak hantxe utzi zituzten, geroxeago jateko asmotan. Bitartean kanpoaldera atera ziren, hurrak eta basaranak bilatzera, atetxoa itxi eta gero, jakina.

Bideko hesi batean hurritz batzuk ikusi eta berehalaxe ekin zioten hurrak biltzeari: hemen hur koxkor batzuk jaso, hor beste batzuk koxkorragoak oraindik, han zenbait basaran
eder eskuratu, beste aldeko hesian, beste horrenbeste eta abar. Bi anaiak gustura asko ari ziren fruituak biltzen, beste une batean patxada osoz jateko, txerrikumeak paseoan eta olgetan ari ziren bitartean.

Baina txerritxoak aipatuta, halako batean Manex ohartu zen urde txikiak ez zirela han.

–Aizak, hi!, non ote dira gure zerrikumeak?

–Manexek anaiari, harrituta.

–Ez zekiat! Auskalo nora joan ote diren deabrutxo horiek. Bilatu egin beharko ditiagu lehenbailehen, bestela gero kontu itsusiak izanen ditiagu aita-amekin.

–Bai, tira! Goazemak segituan! –Manexek, arduratuta.

Lehenik, aurrera jarraitu zuten arineketan, herri alderantz, alegia, baina deus onik ez!

–Ba, hemen ez zegok arrastorik ere! – anaiak, urduritzen hasia.

–Ez, ba! Itzul gaitezen etxe aldera, ea han topatzen ditugun –anaiarik gazteenak, estu eta larri samar.

Lasterka jo zuten biek baserri alderantz, bazter eta zoko guztiak miatuz, baina han ere aztarnarik ere ez.

–Ze arraio egin ote dute zerriok? Hau misterioa! Non ospa sartu ote dira? –Manexek, urduri eta haserre aldi berean–. Berriz ere beste zigorren bat erori behar zaiguk, alajaina!

–Tira, isil gaitezen! –eskatu zuen Manexen anaiak–. Ea honela zerbait entzuten dugun!

Gelditu, isildu eta erne jarri ziren bi mutikoak, ahalik eta gehiena entzuteko: belarriak zorroztu eta tente paratu zituzten; begiak, zoli. Halako batean:

–Egon, egon! Ez al duk deus ere aditu alde hartan? –galdetu zion Manexek anaiari.

–Zer edo zer, uste diat baietz! Goazemak azkar!

Biek, berriz ere, atzera egin zuten, txabola alderantz eta pare hartan zirenean, zaratatxo batzuk entzun zituzten txabola barruan. Harantz begiratu eta atetxoa puskatuta eta lurrean botata ikusi zuten. Sarreraraino joan eta ez al zituzten, ba, bi txerrikumeak barruan topatu, lasai-lasai, mutilen ogitartekoak mauka-mauka jaten, eta zoriontasun aurpegiarekin gainera?

Akabo ogia eta txokolatea! Agur arratsalde hartako askariari! Deus gabe gelditu behar! Baina, harriduraren harriduraz, Manexek txerrikumeei zerbait esan nahi, handik uxatzeko, eta halako zorte txarra izan zuen, non ahoa zabaldu zuenean, euli arrunt bat sartu baitzitzaion zintzurreraino. Zer egin? Ezin kanporatu eta irentsi egin behar izan zuen barruraino, listuaren laguntzarekin; a zer-nolako askaria arratsalde hartakoa! Nazkagarria!, okaztagarria!, higuingarria!

–Alde hemendik, alde hemendik, zerri lotsagabeok! –bota zien Manexek ahots arraro batekin, eulia irentsi eta gero–. Tira!, atera kanpora, urde zikinok! Utikan! Uxta!

Dena den, pixka bat hausnartu eta gero, Manexek ez zion garrantzi handirik eman askariak galtzeari. Hauxe esan zion anaiari aldarte onean, txerritxoak aurkitutakoan, pozaren pozez:

–Bueno, zerrikumeak aurkitu ditiagu eta zigorretik behintzat libratuko gaituk. Bestalde ere, gure meriendak janda, lehenago gizenduko dituk zerritxo guri eta mardul hauek, gero guk jateko, kar-kar-kar! Batez bestekoa eginez ez zegok batere gaizki, e? – Manexek, alai.

Manexi, txerriek hiltzerakoan egiten zituzten garrasi eta kurrixkek izu-ikara handia ematen zioten, baina, hala eta guztiz ere, gerora txerrikia jatea arrunt gustukoa zeukan.

Gauzak horrela, txerrikumeei paseoan ibiltzeko denbora agortu zitzaienean, bi anaiek baserrira eraman eta txerritegiraino sartu zituzten, egin beharreko guztiak egin eta gero. Geroago amak zera galdetu zien:

–Bueno, eta zer moduz ibili zarete, ba, gaur, zerrikumeekin? Konta, konta! Ez al dizuete lan handirik eman?

–Ez, dena ongi joan da, ama; normaltasunez –erantzun zion Manexek, trebetasun handiz, gezurra disimulatzeko.

–Oso ongi! Pozten nauk, semeak. Eta meriendak, goxoak al zeuden? –berriz ere amak, jakin-minez.

–Bai, goxo-goxoak, batez ere Manexena! – beste anaiak, adarra jo nahian, Manexek lehenago irentsitako euliagatik.

Manex eta txabola

Irailaren bukaera alderako, Manexek azkenean gauzatu ahal izan zuen aspalditik zeukan ideia bat, hots, baserri inguruko lizar baten gainean txabolatxo bat egitea. Etxe aurrean zuten lizardiko zuhaitz bat aukeratu zuen eginkizun hartarako, simaur piloaren ondoko bat, etxetik ez oso hurbil.

Horretarako, aurreko bi asteetan, jo eta su aritu zen lanean txabola hura eraiki ahal izateko. Lehenik eta behin, ia hiru metroko esku eskailera bat egin behar izan zuen berak bakarrik, zurez eta iltzez.

Abuztu aldean, uda lehor samar baldin bazihoan, orduan baserritarrek lizar hostoa ematen zioten aziendari, udan hobeki irauteko. Manexen baserrian ere gauza bera egiten zuten ia-ia urtero, eta horrexegatik beren lizardiko zuhaitz guztiak lepatuta zeuden, hau da, lizar motzak eta zabalak ziren. Horretarako, lizar abarrak aizkora txikiarekin moztu, sorbalda gainean etxeraino edota etxe ondoraino eraman eta han hostoak kentzen zizkieten, abelgorriari emateko.

Baina itzul gaitezen harira. Aurreko arrazoi horregatik, Manexek aukeratutako lizarrak ere, lehendabiziko adarra oso etzana zeukan, ia-ia esan liteke horizontala zela. Hantxe bermatu zuen mutikoak bere zurubia, norbaiten laguntzarekin. Lizarrera igo eta erdiko adartxo bat edo beste moztuta, leku egokia gelditu zitzaion oholezko plataforma txiki bat egiteko.

Gero, lizarraren adar zut batzuk aprobetxatuta, plastiko batzuekin paretak egin zituen, eta, azkenik, nola edo hala, teilatutxo bat ere jarri zion. Halaber, ate txiki bat, jakina, ezin zen faltatu.

Gauzak horrela, behin etxolatxo hura eraiki eta gero, Manex sarri askotan joaten zen hara, karabina aldean hartuta, ea zer edo zer botatzen ote zuen. Bolada hartan, aisialdia zeukan ia guztietan hara jotzen zuen. Orduak eta orduak ematen zituen han bere gauzatxoekin, ez zen batere aspertzen. Gogora dezagun, hantxe, aurre-aurrean, etxeko simaur piloa zeukala, eta, horren ondorioz, mota askotako hegazti ugari ibiltzen ziren maiz, janari bila, eta gertakari hura primerakoa zen Manexentzat, ehizan saiatu ahal izateko. Baina, bestela ere, baserritar txiki hura arrunt erraz entretenitzen zen han bakar-bakarrik, batzuetan, bere pentsakizunean, eta beste batzuetan, ordea, euria egiten zuenean, esate baterako, ba, hark ateratako soinua entzuten, eta bat eta beste.

Beste alde batetik, baserrian oilategia baldin bazuten ere, familia handia osatzen zutenez gero –zortzi pertsona: sei seme-alaba eta gurasoak–, ba, beti ez ziren iristen arrautzak denentzat. Bolada hartan oso ohikoa izaten zen, afari-merienda egiterakoan, Manexek eta adinez bere aurreko anaiak arrautza frijitu bakar batekin konformatu behar izatea, alegia, arrautza bat bakarra jaten zuten bien

artean, txandaka, hau da, orain Manexek bustitzen zuen ogia gorringoan, jateko, eta hurrengoan anaiak; horrela, hurrenez hurren.

Baina, hala eta guztiz ere, bi anaiek gatazka latza zuten elkarrekin, hau da, beraien artean. Izan ere, astean soil-soilik bizpahiru aldiz baino ez zuten jaten arrautza, eta egun haietan ere erdi bana, besterik ez; oiloek ezin zuten errun gehiagorik. Baina, gainera, Manexek, bihurria izanik, zer egiten zuen?, ba, ahal zuen guztietan, hau da, behar baino gehiagotan bustitzen zuen ogia gorringoan, jateko, baita berari egokitzen ez zitzaionean ere, eta horrela, anaia, jakina, haserretu eta sumindu egiten zitzaion; ez zen gutxiagorako. Anaiak dagoeneko ezin zuen jasan gehiago.

–E, hi!, Manex!, ze ari haiz, ordea? Orain ez zitzaian hiri tokatzen!, e?, tranpati halakoa! Hola jarraitzen baduk, gorriak ikusiko dituk! – anaiak ohartarazi zion, kexati eta biziki haserre.

–Ba!, beldur gutxi niri hire mehatxu ustelek! –Manexek, harroxko.

Anaiak ez zion deus ere esan une hartan, baina gogoan hartu, bai, gogoan osoro ongi hartu zuen gertaera hura, lehenago edo geroago, nolabaiteko mendekua hartzeko. Gauzak horrela, anaia hura oso erne ibili zen, jakiteko ea noiz izanen zuten aukera jateko hurrengo arrautza frijitua, bien artean. Azkenean, egun batean, jakin zuenean ilunabar hartan izanen zutela hurren arrautza frijitua, lehenik eta behin, anaia joan zen ziurtatzera Manex lizar gaineko txabola barruan zegoela. Ziurtatu bezain laster, isil-isilik lizar ondora hurbildu eta goikoa ohartu gabe, esku eskailera kendu eta azkar-azkar alde egin zion, isiltasunean. Jarraian, etxera arineketan joan eta amari zera esan zion:

–Ama, Manexek tripak ez dituela oso ongi eta arrautza osoa nik jan ahal dudala esan dit, nahi baldin badut, behintzat. Geroxeago etorriko omen da kamamila edatera; ez larritzeko!

Amak sinistu eta horren arabera jokatu zuen, arrautza frijitua, oso-osorik, anaia horri eman baitzion, eta horrek gustura asko jan zuen dena, noski, platera erabat garbi eta distiratsu utzi arte. Jan-edanaz bapo egin eta ederki aseta gelditu zenean, hau da, behin mendekua ongi hartu eta gero, orduan Manexen txabolaren lizar aldera jo zuen, eskailera berriz ere bere lekuan pausatzera. Zurubia behar zen tokian kokatu eta segituen ekin zion ihesari anaiak, baserri aldera, Manex lurrera jaitsi baino lehen, izan ere, ordurako, Manex aspertuta eta nazkaturik zegoen itxoiteaz. Lehenago ere, eskailera bere lekutik kanpo zegoela konturatu bezain laster, oihuka eta zalapartaka hasi zen Manex amorru bizian, baina orduan ez zion inork entzun, etxeko guztiak afari-merienda hartzen ari zirelako sukaldean, eta, hura, txabolatik urruti samar zegoen.

Oraingo honetan, ordea, zurubia berriz ere bere lekuan ezarrita zegoela ohartu bezain azkar, Manex biraoka eta madarikazioka hasi zen anaiaren aurka, sutan eta haserre bizian, eskaileran behera zihoan bitartean, mendekuren baten bila, baina, ordurako, anaia, baserriko sukaldean zen, amatxoren ondoan, badaezpada ere.

–Hator hona, oilobusti txatxua! Ikusiko duk harrapatzen haudanean!, txiki-txiki eginen haut, lotsagabe alaena! –bota zizkion Manexek anaiari biziki haserre, purrustaka.

Behean zihoanean ere, berdintsu jarraitu zuen Manexek kalapita harekin, garrasika eta mehatxuka, halako zoritxarrarekin, non simaur piloaren parean maldizioka igarotzerakoan, berriz ere etxeko euli arrunt bat zintzurreraino sartu baitzitzaion, barru-barruraino. Ezin kanporatu eta berriro ere, bere nahiaren aurka, urdaileraino irentsi behar izan zuen, nazka eta goragalearen artean, anaia, aldi berean, madarikatu nahi izan zuenean.

Egoera tamalgarri hartan iritsi zen Manex sukaldera, erdi itota eta ia-ia negarrez, anaiari jarraikirik.

Amak, Manex egoera penagarri hartan ikusita, berehalaxe zera esan zion:

–Hator, hator hona, gizagaixo hori! Zer daukak?, tripako mina, ez da hala? Lasai, bihotza, lasai, berehalaxe prestatuko diat eta, larranbilo sendagarri on bat! Egon hadi pixka batean, lehen anaiak esan baitit zer gertatzen zaian. Segituan ekarriko diat, trankil!

Manex ez zen deus ere esatera ausartu, ongi bai baitzekien zerbait protestatuz gero, anaiak segidan aterako zizkiola, arrautza frijituekin egindako makurkeriak eta gaiztakeriak, eta hura ez zitzaion inondik inora ere komeni; isilik egon behar!

Manexek, ilunabar hartan, oso ongi ikasi zuen, <Begia begi truk> eta <Hortza hortz truk> atsotitzen esanahia.

Manex eta salmenta

–Aida, behia, aida! Aurrera! –oihukatu zuen seme batek.

–Toz, ttattarra, toz! Tira!, itzuli hona! –esan zion aitak behiari, egunsentian.

–Segi, Beltxa, segi! –beste seme batek, egonarri handiz.

–Esti, atzera! Uo! –berriz ere aitak, erne eta

–Muuuu! Muuuu! – marruak, behiek eta txahalek, asaldatuta–. Au-au-au! – txakurrak zaunka, urduri.

–Eutsi, eutsi! Lotu ongi! –kamioilariak, lasai, eskarmentuaren erakusle.

Iskanbila eta nahasmendu harekin guztiarekin, Manex ikaratuta esnatu eta lasterka leihora joan zen, larrainera begiratzera. Oso goiz zen oraindik. Eguna orduantxe ari zuen argitzen. Mutikoak Beltxa izeneko behia kamioian sartzen ikusi zuen. Behi hura zaharra zen eta ez zuen aurkakotasun handirik egin, kamioira sarrarazi zutenean: aita, muturreko sokatik tiraka, seme bat, bultzaka, eta, beste seme bat, akuilatzen; erraz samar igoarazi zuten kamioi barneraino.

Urriaren hasieran zeuden eta goiz hartan tratulari bat baserriraino joan zen, kamioi handi batean, ukuiluko animalia batzuk hiltegira eramatera.

Hurrengo txandan, txahal eme bati tokatu zitzaion, Nabarra zuen izena. Ongi gizenduta zegoen eta hura ere zailtasun handirik gabe sartu zuten kamioira, aida!, tox! Eta geldi! batzuen artean. Manexek, maniobra hura ere arreta handiz jarraitu zuen bere logelako leihotik, lau gizonezkoak serio demonio aritu ziren bitartean. Nabarra ere Beltxaren ondoan lotu zuten, kamioi barruan.

Azkenik, Gorri izeneko zezenkoa agertu zen ukuiluko atean, Manexen aita soka sendo batetik tiraka zuela. Zekorra, handia eta indartsua zen. Ongi lodituta zegoen; gorputza zabal-zabal eginda. Aita, bi seme eta kamioilariaren artean, poliki-poliki ibilgailuaren aldera zeramaten abelgorria, muturretik soka lodi batekin ongi helduta, atzetik akuiluarekin pixka bat ziztatuz eta bi aldeetatik aidaka. Halako animalia ar handiei, normalean, sudurrean, metalezko eraztun sendo bat jartzen zieten haragian sartuta, tenkatuz gero min har zezaten, eta, era hartan, pertsonek errazago menderatzeko abere haiek; Gorrik ere honelako eraztun bat zeraman jarrita, eta, horretan barna zegoen pasatuta soka lodia, aratxe arra bera hobeki maneiatzeko.

Kamioiaren atzealdeko arrapalaren hasierara iritsi zirenean, ordea, idiskoa izutu egin zen igotzen hasi bezain laster, metal eta zurezkoa zen arrapala hark, apatxekin ateratzen zituen hotsak entzunda. Aldaparen erdian, atzeraka hasi zen zezen gaztea ikaratuta, orro eta marruka.

–Ou!, uo! Geldi, Gorri! –aitak, kamioi gainetik eta sokatik tiraka.

–Aida!, aida! Tira, segi aurrera, madarikatua! –besteek, atzetik eta alboetatik, estu eta larri, akuilatu nahian.

Aita eta beste hiru gizonezkoak ere saiatu ziren animaliari eusten, baina erabat alferrikakoa izan zen. Nahiz eta eraztunetik lotuta egon, aratxe sendo hark bere indar guztiak atera baitzituen handik ihes egiteko. Azkenean, aitak lokarria askatu behar izan zuen, txahal arrak arrastaka eramanen ez bazuen behinik behin. Abere handi hura ostikoka eta jauzika hasi zen bere burua askatu nahian, eta, azkenik, hanka egiteko. Inguruan zituen beste hiru gizonezkoek ere baztertu egin behar izan zuten bere aldamenetik, ikusi zutenean zezenkoaren eraso basati hura.

–Ou, uo! Geldi hadi! Hator hona, demonio hori! –aita saiatu zen animalia geldiarazten, baina egoera latz hartan ezinezkoa gertatu zitzaion.

Gauzak horrela, Gorrik, ostiko batzuk eman ondoren eta zenbait orro egindakoan, oso gustura aprobetxatu zuen handik ospa egiteko, bere burua aske ikusita. Soka muturretik arrastaka zuela, bidean aurrera egin zuen lasterka, herri alderantz. Gorrik, ukuiluko gainerako txahal guztiek bezalaxe, bere bizitza osoa baserri barruan emana zuen, kanpora batere atera gabe, beraz, han, kalean, dena berri eta arrotz egiten zitzaion; ez zekien non zegoen, eta, askoz gutxiago ere nora zihoan, baina lehenagoko estutasun eta estres haiek igaro ondoren, oso gozoro sentitzen zen libre, eta, aurrera eta aurrera ari zen ziztu bizian, gelditu gabe.

Manex, leiho ertzetik, ikuskizun osoa arreta handiz ari zen jarraitzen, begirik kendu gabe, eta, baita kezka eta urduritasun pixka batekin ere. Zer gertatuko ote zen bukaeran? Horra hor, mutikoaren jakin-mina.

Egoera hura ikusita, Manexen bi anaia zaharrenak, eskuetan akuilu bana zutela, larrainetik atera eta beren euntzera sartu ziren langan barrena. Handik lasterka jo zuten herri alderantz, baina bidearen paraleloan, harik eta zekorra aurreratu zuten arte. Orduan, ataka batean zehar herriko bidera atera eta hantxe bertan geldiarazi zuten Gorri, aida batean, akuiluen laguntzarekin.

–Uo, uo! Esti, atzera! Segi, segi etxera, egoskor halakoa!

Handik, etxe aldera bideratu, eta, lehenago edo geroago, lortu zuten Gorri baserrira inguraraztea. Hantxe, aitaren eta kamioilariaren laguntzarekin, erraz samar lortu zuten ukuilura sartzea. Ukuiluan, berriz ere iskanbila eta istiluak, ordea:

–Muuuu!, muuuu! –beste abelgorri gehienek–. Au-au!, au-au! –etxeko txakur txikiak–. Eta, karakaka! –oiloek. Behingoagatik, oilarra isilik gelditu zen, nahiz eta egunsentia izan.

Behin barruan Gorri, bere lekura joan zen txintxo samar, ganbelara. Aitak une hura aprobetxatu zuen zekorra berriro ere katearekin lotzeko bere jantokian, eta, ikusita zer-nolako gorabeherak izan zituzten kamioira igotzerakoan, orduan erabaki zuen beste modu batez probatzea, alegia, zapi ilun batekin lauhankakoaren begiak estali eta muturreko lehengo soka lodiari, beste luzeago bat erantsi zioten, lasaiago eta hobeki maniobratzeko.

Jarduera hura bukatutakoan, idiskoa berriz ere larrainera eraman zuten lauren artean, katea berriro askatu eta gero. Begiak estalirik edukita, Gorrik salduta sumatzen zuen bere burua, ez zekien ongi nondik nora zihoan eta horren ondorioz, ez zuen aurkakotasun handirik egin; bere burua eramaten

utzi zuen. Era horretan, aise samar hurbilarazi zuten kamioiaren arrapalaraino. Han, aita, isil-isilik kamioiraino igo eta soka luzea barruko barra sendo baten inguruan pasatu zuen, zekorrari errazago eusteko. Gainerako hiru gizonezkoak animalia akuilatuz eta ziztatuz, berehala igoarazi zuten denen artean Gorri goraino. Aitak lokarritik ongi tiratu eta kamioi barruraino amen batean sarrarazi zuten, santu-santu. Han, beste bi abelgorrien ondoan ongi lotu, pertsonak kamioitik jaitsi eta atzeko atea seguru itxi zuten, arrapala altxatutakoan.

Manexek oraindik leihoan zirauen, mugida guztia presentziatzen. Handik gutxira, kamioilaria, hango eginbehar guztiak gauzatutakoan, kamioiaren kabinan sartu, ibilgailua arrankatu eta goitik behera berehalaxe desagertu zen baserritarren begi-bistatik, ganadua berarekin eramanda, noski.

Segituan, isiltasun handi eta triste bat nagusitu zen larrainaz. Ordurako, Manexi eskolara joateko, prestatzen hasteko momentua iritsi zitzaion, beraz, bat-batean, ukuiluko gorabehera guztiak alde batera utzi eta bere prestaketari ekin behar izan zion aida batean. Sukaldera joan, gosaldu, maletatxoa gertatu eta eskolara; herriraino, bi kilometro.

Eguerdia ongi pasatuta, eskolatik atera eta etxera arin-arin bazkaltzera, arratsaldean berriz ere eskolara itzultzeko. Baina baserrira iritsi zenean, bazkaldu baino lehen, zuzen- zuzen ukuilura joan zen ikustera zer egoera eta giro zeuden han. Berehalaxe sumatu zituen Beltxa, Nabarra eta Gorriren hutsune eta gabezia handiak. Manexek, mutiko ipurtarin eta bihurritxoa izanda ere, bazeukan bere bihoztxoa, eta ukuiluan animalia haien gabetasuna ikusita, bihozmina eta nahigabea berehalaxe nabaritu zituen bere baitan, oso ongi bai baitzekien Beltxa, Nabarra eta Gorri berriro ere ez zituela sekula santan han ikusiko, eta horrek atsekabe handi samarra sorrarazten zion. Behi, bigantxa eta zekor berriak etorriko ziren, bai, seguru, horretan ez zeukan inolako zalantzarik, baina beste batzuk izanen ziren, ez lehengo berberak.

Gogoeta haiek bukatu, errealitate gordinera itzuli eta sukaldera igo zen bazkaltzera. Bazkaldu eta berriz ere eskolara, bizitzak aurrera jarraitzen baitzuen; han ez zegoen etenik.

Manex eta babak

–Nik ez dut nahi gehiago, e, ama! – Manexek.

–Nik ere ez; bete egin naiz eta! –anaiak.

–Bai, bai! Gehiago jan behar duzue!; dena, bestela, badakizue, afaltzeko! –amak, serio eta haserre.

–Ba, nik ezin dut hartu gehiago, ama; leporaino beteta nago! –berriz ere seme gazteenak, aseta eta gogogabeturik.

–Ni berdin nago, ama; ez dut gehiago jateko gogorik –berriro, anaiak.

–Oso ongi! Tira, ba, ekarri platerak berehala hona eta kito! Hau afaltzeko! Ez duzue besterik izanen! Bukatu duk festa! Orain hartu postrea! –horrela hitz egin zien egun batean amak bi seme gazteenei, bazkaltzeko garaian, aldarte txarrean eta ahoan legarrik gabe, baba beltz batzuk plateretan utzi zituztenean.

Izan ere, bi mutikoek ez zituzten batere gustuko baba beltzak garai hartan, eta, antzeko liskar eta gatazkak behin baino gehiagotan errepikatzen ziren sukalde hartan, baba beltzen sasoian. Ama dagoeneko kopetaraino zegoen haurren kasketaz, eta, egun hartan erabaki zuen eskarmentu on bat eman behar ziela biei, ea horrela ikasten zuten txorakeriak alde batera utzita, behar zen bezala bazkaltzen, hau da, mahaira ateratzen zien guztia jaten, berriketarik gabe; normaltasunez.

Gauzak horrela, Manex eta anaia postreko sagarrak jaten ari ziren bitartean, ama sukaldean, beraien atzean, trikimailu txiki bat prestatzen hasi zen, beraiek batere ohartu gabe. Gaztetxoak konturatu orduko, amak, ezkutuan eta isil-isilik, bi baratxuri atal zuritu eta txiki-txiki eginda prestatu zituen.

Manex eta anaia, babak gutxika jaten eta platerean uzten, asko atzeratu zirenez gero, ordurako sukaldean ez zen inor gelditzen ama eta mutikoez gain; bakoitza bere eginkizunetara joana zen. Une huraxe, hain zuzen ere, aprobetxatu zuen amak bere azioa egiteko. Haurrek fruta jaten bukatu bezain laster, ama beraien atzetik oldartu zitzaien, batere errukirik gabe. Soinetatik heldu, lurrera bota eta azpiratu ondoren, banaka-banaka, bakoitzari bere baratxuri atal txikitua sartu zion ahoan eta jarraian hura itxiarazi, amorru handi samarrez, gainera, barazkiak irentsarazteko, eskarmentua har zezaten. Mutikoek orduan amari:

–Baina, ama!, zer gertatzen da? Zertan ari zara? –Manexek, lurrean, zur eta lur; desatseginez.

–Zer nahi duzu, ordea, ama? Erotu al zara? – anaiak, hau ere lurrean, ulertu ezinik eta nazka aurpegia jarrita.

–Irentsi, irentsi ezazue baratxuria, demonio mizkinak! Ea zer nahiago dituzuen, baba beltzak ala baratxuriak?, txatxu halakoak!

–esan zien amak haserre bizian–. Tira!, ea oraingo honetan ongi ikasten duzuen lezioa, kaiku alaenak! –jarraitu zuen amak–. Eta orain eskolara, tximista baino azkarrago! Mugitu!, alde nire begien bistatik! Azkar! –bukatu zuen emakumeak.

Eta, bai, bazkari hartan, amaren aldarte haserrekorra noraino iritsi ahal zen, hobekiago ikasi zuten. Ikasgai hura ez zuten erraz ahaztuko.

Manex eta gosaria

Goiz batean, gosari garaian, beste egun askotan bezalaxe, Manex mahaian eserita zegoen, bere katilukada esne, bete-betea, eta ogi zopekin, azukrez ongi hornitu eta gero. Urriaren bukaera aldean zen eta ohiko moduan, gosaria hartzen ari zen, geroago eskolara joateko.

Egunero gosari berdina zuen, alegia, katilukada bat esne –ukuiluko behiena–, ogi zopak –normalean, bezperako ogiarenak– eta koilarakada bat azukre zuri. Baina, hala eta guztiz ere, kontu horretan guztian bazegoen osagai bat, mutikoari batere graziarik egiten ez ziona: esne gaina.

Esne gaina berria baldin bazen, hau da, egun berekoa, orduan, ogi xerra baten gainean ongi zabaldurik eta azukre pixka batekin, nahiko gustura hartzen zuen Manexek. Esan liteke, era hartan, ongi samar jasaten zuela mutilak esne gaina irensteko, hau da, nazka handirik ez zuen hartzen, baina esne gain pusketak bezperako esnearenak baldin baziren, ordea, orduan, ez, baserritar txikiak ezin zituen jasan; goragale handia berehalaxe jarri eta ezinezko gertatzen zitzaion bere burua menderatzea.

Halako kasuetan, Manex segituan hasten zen katiluko esnean igerian zebiltzan esne gain zatitxoak, koilararekin arrantzatzen eta ontziaren ertzetan baztertzen, halako higuinezko momentu txarrik ez pasatzeko, baina goiz hartan, une hartantxe, amak hantxe agertu behar eta zera esan zion:

–Baina, baina, Manex!, zer arraiotan ari haiz hor mizkinkeria horiekin? Hik ez al dakik dena jan egin behar dela? Gainera, hori hoberena duk! Hortxe zegok esnearen substantzia guztia! Tira!, har ezak dena berehala, ez baduk nahi ni haserretzea, e! – esan zion amak agindu kategoriko baten moduan.

–Arraiopola, ama!, baina ezin ditut irentsi! Badakizu nazka ikaragarria ematen didatela eta botaka eginen dudala tragatzen baditut! Puag!, zer higuina! –kexatu zen mutikoa.

–Manex, tira!, utzi berriketak eta hartu dena oraintxe bertan! Pertsonak denetik jan eta edan behar dik! Aditu? Txorakeriarik ez, mesedez! Azkeneko aldiz esanen diat: bukatu segituan eta ez ni haserrarazi! Bestela, gogora ezak zer gertatu zitzaizuen orain dela aste batzuk baratxuriarekin! Ez nazak behartu ekintza berdina errepikatzera! –oihu egin zion amak, txantxa eta errukirik gabe.

Ama era mehatxatzaile hartan ikusita, Manex ez zen ausartu gehiago protestatzera, ez zuen txintik ere atera eta, aldez edo moldez, gosaria irenstera beharturik sentitu zen; jatera baino gehiago, tragatzera. Hantxe aritu zen zalaparta batean, narda eta higuin zaratak egiten, hurrupaka, oka

egiteko zorian, kexaka eta abar. Kalbario handi baten ondoren eta gogotik sufritutakoan, noizbait lortu zuen, nola edo hala, gosari nazkagarri hura bukatzea, baina ez zitzaion batere gorputzaldi onik gelditu.

Presaka zamarra jantzi, eskolarako gauzak hartu, ama ozta-ozta agurtu eta kalera jo zuen lasterka, estu eta larri. Behin kanpoan zegoela, mutikoak ezin gehiago jasan, eta, bat-batez gelditu behar izan zuen; zerraldo bezala. Ahoa supituan zabaldu eta gosari osoa, jaurtigai bat balitz bezala atera zen, tximistaren pare. Hantxe joan zen otordu dontsu guztia, goitik behera, ziztu bizian lurreraino, txorrotako ura bezain arin: ogi zopak, esnea, azukrea eta esne gain pusketa nardagarriak.

Estualdi lazgarri eta astun hura igarotakoan, gorputzaldi goibel harekin eta urdaila berriz ere zeharo hutsik zeukala, herri aldera jo zuen, burumakur, eskolara joateko, bere ezbehar eta nahigabeak nori kontatu ez zituelarik.

Manex eta iltzea

Azaro hasierako asteburu batean, dagoeneko arratsaldea aurrera ongi joana zegoenean, Manexi etxeko ganbarara joatea otu zitzaion, zer suma eta zer ikus. Garai hartan, beren baserrira telebista oraindik iritsi gabe zegoen, eta, jakina, Internet, ordenagailuak, sakelako telefonoak, Whatsapp eta abarrak ezezagunak ziren han; are gehiago, horietako gehienak artean asmatu gabe zeuden. Ez edukitzeagatik, baserri hartan telefono finkorik ere ez zuten oraindik. Beraz, nola edo hala entretenitu egin behar eta huraxe izan zen mutikoari bururatu zitzaiona, denbora nolabait modu atseginean emateko, alegia, ganbarara igo eta ea han zer topatzen zuen.

Gauzak horrela, lehenik eta behin, katu heldu eta katakumeekin aritu zen pixka batean jostaketan, gero, belar onduaren gainean jauzika eta brinkoka, jarraian, kakoarekin belar idor pitin bat ukuilura botatzen, koltxilako zulotik behera, pertsona helduak imitatzearen plazer hutsagatik, geroago, horma ondoko apalategi zahar baten aldean kokatuta, lanabes eta tresnatxo batzuk ukitzen eta nahaspilatzen, ondoren, gaztandegia ikuskatzen, hau da, gaztak usaintzen, gazura tantaka nola ateratzen ari zen begiratzen, gazten pisua neurtzen, handik, lehortzeko zabalduta zegoen arropa eskukatu eta haren garbi usain goxoa aditzera joan zen, eta, azkenik, ganbarako kanpo aldeko ate zaharreko leihatilatik begiratzen jardun zuen, kalean haizearen ulua,
aziendaren zintzarri hotsak eta abar entzuten, eta bat eta beste.

Gauza haiek guztiak egin ondoren, tximinia aldera jo zuen, katutxo bat hantxe ari zelako jostetan zerbaitekin. Bertaratu eta orduantxe konturatu zen iltze handi samar batekin ari zela jostaketan, baina iltzea aurreko hankekin ukitu bezain laster, utzi eta atzera egiten zuen lasterka katu txikiak, behin eta berriz.

Egitate hark atentzioa eman eta jakin-min handia sorrarazi zion Manexi. Segundo batzuen ondoren, halako batean, mutikoa makurtu eta iltzea hartzea bururatu zitzaion, baina:

–Ai! Alua! Zer arraio ote du horrek? –eta Manexek segituan askatu zuen metalezko piezatxoa. Bero-bero zegoen eta harrituta gelditu zen.

Berriz ere makurtu eta ukitu egin zuen iltzea –kontu askoz handiagoarekin oraingo honetan–, eta, bai, metala oso bero zegoen oraindik, ia gori-gori. Berriro ere, arrunt azkar utzi behar izan zuen alde batera zorioneko iltze hura, behatzak erreko ez bazizkion.

Harridura hartan, ez zekien oso ongi zer egin eta nola jokatu. Pixka batez pentsatu eta sukaldera jaistea erabaki zuen, ea nor topatzen zuen, kontatzeko gertaera xelebre hura.

Sukaldera iritsi eta han ama topatu zuen; bakar-bakarrik zegoen une hartan. Antza denez, familiako gainerako guztiak beste zerbaitetan ariko ziren, beste nonbait.

–Ama!, etorri, etorri nirekin! Begira zer aurkitu dudan ganbaran! Harritzekoa da; iltze bero bat lurrean! –kontatu zion semeak, presaka.

–Iltze bero bat? Benetan ari al haiz? Kontuz, gero, gezurra baldin bada, e, Manex! Ez niri adarrik jo! –ohartarazi zion amak.

Hala eta guztiz ere, mutikoarekin igo zen ama ganbararaino, badaezpada ere, ikustera zer ote zen gertakari arraro hura.

–Ea non dagoen ditxosozko iltze bero hori! – amak, pazientzia erakutsiz.

–Hementxe, begira! – harrotasunez erakutsi zion Manexek.

Amak ukitu eta, bai, iltzea oraindik nahiko bero zegoen. Orduan ama konturatu zen tximinia oso hurbil zutela; hantxe bertan. Gorantz begiratu eta teilatuko gapirio bat, kebidea ukitzen ari zena, hain zuen ere, pixkaka-pixkaka erretzen ari zela ikusi zuen. Belar idorra ere, handik oso hurbil zegoen, hortaz, sutea gertatzeko arriskua ere oso handia zen; ezin zen berriketan ibili.

–Manex, faborez, hoa aitaren bila ziztu bizian eta esaiok etortzeko ahalik eta azkarrena!; arriskuan gaude eta! Baina, laster, e! –bota zion amak ziplo semeari. Hau segituan hasi zen eskaileretan behera, aitaren bila.

Sukaldera aida batean joan, eta ez! Handik logelara azkar-azkar sartu, eta deus ez! Ukuilura arin baino arinago jaitsi, eta bat ere ez! Manex, ordurako, aita topatzeko itxaropena galtzen hasita zegoen. Hala eta guztiz ere, erdi izerditan baldin bazegoen ere, mutikoak abiadura handian, alde batetik bestera jarraitu zuen aita xerkatzen. Larrainera lasterrean atera, eta ja ere ez! Azkenean, baratzean ikusi zuen aita, zerbait egiten edota zer edo zer hartzen; mutila, zerabilen presarekin, aita zertan ari zen ere ez zen ongi ohartu.

–Aita, aita! Etorri bizkor! Amak esan du berehala ganbarara joateko! Sute arriskua edo ez dakit zer dagoela! –adierazi zion semeak hitzetik hortzera, arnasestuka.

–Baina, baina, zer diok, Manex? –galdetu zion aitak estu eta larri semeari, eta, herstura hartan, aitzurra pikutara bota zuen ohartu gabe.

–Baietz, baietz, ba, aita! –semeak berriro aitari–. Segituan joateko!

Azkenean, biak trostan abiatu eta amen batean iritsi ziren ganbarara, amaren ondora.

–Zer da, ba? –aitak amari, kezkatuta.

–Begira! Ikusi hori! – eta amak, erretzen ari zen gapirioa erakutsi zion aitari, behatz erakusleaz, arduraturik.

–Ostia! Ze itxura txarra daukan horrek! Zuek egon hemen eta ez utzi indarrik hartzen txingarrei!; ez kendu begirik! Ni, bitartean, ur bila joanen naiz! –agindu zien aitak Manexi eta emazteari.

Sukaldera salto batean jaitsi eta minutu gutxiren buruan hantxe zen bueltan gizona, ontzi bete ur eta pitxer batekin. Segidan, pitxerra urez bete eta isurkaria, txingarrak zeuden lekura hasi zen botatzen aita, indarka botatzen hasi ere, halako indarrez, non minutu bat igaro baino lehenago itzali baitzuen gapirio arriskutsu osoa. Jarraian, ganbarako solairua zerbaitekin lehortu eta ukuilura jaitsi

zen, masa pixka bat egitera, emaztea eta seme gazteena hantxe utzita, badaezpada ere, gapirioa begiratzeko.

Ukuiluan, bi seme zaharrenekin, berehala egin zuen masa, harea, porlan eta ur pixka batekin. Erreka ondoko legar pixar bat bildu eta berriro ere ganbarara, berandutu baino lehen. Hiru gizonezkoen artean, ongi-ongi isolatu zuten gapirioa tximiniatik, arrisku guztiak behin betiko saihesteko, eta, orduan, bai, lan hura bukatutakoan, lasai asko beheratu ziren denak etxebizitzara.

Afaltzeko ordua iritsi zenean, ordea, Manexek ustekabe bikain eta atsegin bat izan zuen, amak honela esan zionean:

–Manex, gaur gure baserria arrisku handi batetik libratzen lagundu izanagatik, hementxe daukak afari berezia, begira, arrautza frijitu bat osorik hiretzat, eta, gero, bukatzeko, banillazko gailetak! Zer iruditzen zaik, e? –galdetu zion amak.

–Ooooo! Primeran, ama! Zeinen goxoa! Eskerrik asko!

Gau hartan oso zorte ona izan zuen gure mutikoak.

Txerri hiltzea

Azaroaren erdialdean, San Martin eguna pasatu ondoren, Manexen baserrira jai handi bat iritsi zen, alegia, txerria hiltzeko eguna, alajaina! Egun hura oso garrantzitsua izaten zen garai hartan baserritarrentzat, handik ateratzen baitzuten janari mordo bat, gero, urtearen zati handi batean behinik behin, iraun ahal izateko. Horretarako, urte hartan, txerri eme handi, zahar eta itsu bat zuten ongi gizenduta.

Goizeko hamarretarako, dagoeneko hantxe zeuden herriko txerri-hiltzailea eta mondongo egilea. Txerri-hiltzaileak labana eta burdin kakoa ongi zorroztuta eraman zituen, zer gerta ere. Manex ukuiluko eskaileretan zen, mugida guztia ikusten; momentuz, ez zen ausartzen beherago jaistera. Mondongo egileak, amak eta arrebak halaber, bitartean, ontziak eta baldeak ongi prestatuta zeuzkaten, animaliaren odola biltzeko. Manexen aita eta anaia zaharrenak orobat larrainean ziren, gainerako aktore guztiekin batera. Ordurako, txerria hiltzeko mahaia berebat prest eta ongi ezarria zeukaten larrainaren erdian. Mutikoa, eskaileretan, begirik kendu gabe, gertatzen zen guztia behatzen; urduri. Alde batetik, bazekien egun hura jai garrantzitsu eta onuragarria zela familia osoarentzat, baina, bestetik, beldur pixka bat ere bazuen, bai baitzekien txerriaren oihu eta garrasi desesperatuek izu handi samarra sorraraziko ziotela.

Gauzak horrela, pertsona eta tresna guztiak gerturik zeudela egiaztatu ondoren, zerrama itsuaren zorigaiztoko ordua iritsi zen; inork ez zion bereziki eskertu baserriari emandako txerrikume piloa. Aitak eta bi anaiak, txerritegiraino joan eta poliki-poliki, urde itsua larraineraino bideratu zuten, oso astiro, eta, leku batean baino gehiagotan, muturrekoak hartuta bere itsutasunagatik. Azkenean, animalia mahai ondoan zeukatenean, txerri- hiltzaileak burdinazko kakoa hartu, prestatu eta kokospetik sartu zion. Txerri gajoa, segituan hasi zen garrasi eta txilioka, desesperatuki, atzera eta kontra eginez; behin eta berriz, kurrixka, baina gizakiak askoz gehiago ziren, eta, gainera, ikusmendunak. Denen artean, aida batean menderatu zuten zoritxarreko animalia, batzuek hanketatik helduta eta beste batzuek isatsetik hartuta; hiltzaileak, berriz, kakoarekin eutsita. Jarraian, denen artean txerria mahai gainean etzanda jarri eta estu-estu heldu. Era horretan, amak baldea zerramaren lepo azpian jarri zuenean, abere-hiltzaileak aizto zorrotza sartu egin zion zintzurrean eta odola istantean borborka hasi zen ateratzen; mondongo egileak odola jira eta bira mantendu zuen ez gatzatzeko, gero odolkiak eta abar egiteko. Handik minutu gutxira, txerri zaharrak azken odol tanta eman zuen, eta, harekin batera, baita atzen arnasa ere; behingoagatik, garrasi eta oihu zoliak bukatu ziren. Mondongo egilea, ama eta arreba sukaldera joan ziren odol guztia hartuta, odolkiak egiteko prestatzera. Manex orduantxe ausartu zen larrainera ateratzera.

Behin lauhankakoa hilda, ukuilutik iratze lehor pixka bat sardez eraman, lurrean utzi, txerria haren gainean jarri eta berarekin ongi estali ondoren, su eman zioten garoari. Piztu ondoren, behin eta berriz mugitu zuten iratzea eta baita gehiago jarri ere, gainean, animaliaren ile guztiak ongi erretzeko. Geroxeago, jarduera bera egin zuten, baina itzulia emanda.

Erretzen bukatu eta gero, berriz ere gizonezkoek animalia mahaitxoaren gainean ezarri zuten, etzanda. Urde zaharrari ura bota, pozaletan eraman eta gero, errautsak eta zikinak errazago kentzeko. Jarraian, etxe ondoko teila zaharren pusketa batzuk hartu eta haiekin txerramaren larrua igurtzi eta igurtzi hasi ziren, hilotzaren alderdi guztietako larruazalak –gorputza, hankak, burua, belarriak, muturra, isatsa eta abar– ongi garbitu arte. Zeregin hura amaitutakoan, berriz ere ura

bota zioten gainetik, txukuntzeko.

Gizonen artean, zerrama ahoz gora jarri eta aitak burdinazko kakoarekin azkazalak segituan erauzi zizkion. Orduan abere- hiltzaileak zera esan zion mutil bati:

–Hi, ekar iezadak labana, mesedez!

–Hementxe duzu –Manexen anaia baten erantzuna, segundo batzuk igarotakoan.

Gizonak, badaezpada ere, labana pixka bat gehiago zorroztu, eta, lehenik eta behin, lau hankak moztu zizkion urdeari, eta, segidan, alderik alde, erditik ireki, gainerakoek animaliari eusten zioten bitartean. Saihetsezurrak aizkora txiki batekin moztu eta barrengo errai guztiak ateratakoan, berriro ere bota zioten ura zerramaren hilotzari, barrura, eta baita kanpoan zeuden erauzitako organoei ere, aratz eta txukunago uzteko. Manexen bi anaiaren artean barrukiak, hau da, heste lodia eta mehea, gibela, bihotza, giltzurrunak, urdaila, gantza, birikak eta abar jaso bezain laster, sukaldera igo zituzten, hantxe, hiru emakumezkoek, harraskan, hustu, ikuzi eta prestatzeko, geroago gibela, odolkiak, birikiak eta beste jangai batzuk ongi atondu eta ahoaz gozatu ahal izateko.

Larrainean, bitartean, gizonezkoek zerrama zaharrari belarriak eta isatsa moztu zizkioten. Gero, zutitu eta etxeko horman bermatuta, haga batean zintzilik jarri zuten egurats zabalean, gaua han pasa zezan. Manex, bien bitartean, hantxe zen, begirik kendu gabe. Eta lan hura bukatu bezain laster, mutikoaren arreba, etxeko leiho batean agertu eta zera oihukatu zien larrainean ziren guztiei:

–Aizue! Amak esan du sukaldera igotzeko denak! Hamaiketakoa prest dago, e!

Zer gehiago nahi zuten gizonezko haiek hura entzun baino? Amen batean, tresna guztiak jaso eta sukaldera joan ziren denak, noski, pozak txoratzen. Ordurako, sukaldean, hiru emakumezkoek txerri zaharraren gibela zatikatu eta frijitu egin zuten, tipula ugarirekin. Plateretan, gatz pixka batekin bero-bero zerbitzatu eta guztiek gustura asko jan zuten, ogi eta ardo pizar batekin lagunduta.

Arratsalde hartan, sukaldean, gehienbat emakumezkoak aritu ziren lanean, odolkiak egiten, eta, hankak, belarriak eta isatsa prestatzen eta abar.

Biharamunean, abere-hiltzailea baserrira itzuli, eta zerri hila, gau osoa egurasten igaro ondoren, mozten eta zatitzen hasi zen aizkora txikiaz eta labanarekin. Handik, urdai guriak, solomo samurrak, urdaiazpiko bikainak, saiheski goxoak, buru aprobetxagarria eta mutur biguna atera zituen.

Emakumezkoak, berriz ere, goiz eta arratsalde osoan jo eta su aritu ziren txistorrak, birikiak eta abar prestatzen eta egiten, eta, gizonezkoak, ordea, txerriaren zatirik handienak, hau da, urdaiak, solomoak, urdaiazpikoak, burua eta abar ontzutzen, gero kutxa handi batean, denbora luzeagoan iraun zezaten.

Hurrengo egunerako, txerri hiltzearen lan guztiak bukatuta, hau da, mondongo denak egin eta gero, sukaldeko sabaitik zintzilik eta txukun agertzen ziren, makila horizontal luzeetan, berezko usain tipikoarekin eta piperrautsaren ohiko kolore gorriarekin: txistorrak, birikiak, lukainkak eta abar.

Hantxe, beheko suaren eraginez, egun gutxiren buruan, ke usain eta zapore berezia hartuko zuten.

Gau hartan, zeregin oro bukatutakoan eta Manexek hainbeste esperientzia bitxi bizi izan ondoren, azkenean ohatzerako bidea hartu zuen neka-neka eginda. Berehala lozorro baketsuan gelditu zen, baina bizpahiru ordu igaro eta gero, ordea, mutikoa egundoko kurrinka, garrasi eta kurrixkak hasi zen entzuten:

–Kurrin-kurrin-kurrin! –Manex harriturik eta beldurtuta jarri zen. Baina, berriz ere:

–Kurrin-kurrin-kurrin! –gaztetxoak urduri eta izuturik jarraitu zuen; ez zekien animalia ala pertsona gaizkileren ote zen. Berriro, ordea:

–Kurrin-kurrin-kurrin! –mutikoak, jadanik etsita, ez zekien zer egin.

Halako batean, ohatzetik jaiki eta gurasoen gelara joatea erabaki zuen, laguntza bila. Tapakiak eta maindirea atzera bota eta hankak segituan atera zituen, lasterka hasteko, baina, bat-batera, kolpe latz eta lehor bat sumatu zuen gorputzean; logelan, berriz, zarata handia entzun zen.

–Ai, ai, ai! –oihu egin zuen Manexek.

–Baina, baina, zertan habil hor, lurrean, motel, orduotan? –galdetu zion harrituta aldameneko ohatzean zegoen anaiak, argia piztu ondoren.

–Deusetan ez, arraioa! –erantzun zion Manexek modu txarrean eta zeharo ozpindurik, dena amesgaizto malapartatu bat izan zela konturatu zen bezain agudo–. Gainera, ze axola zaik hiri? –bukatu zuen mutikoak, zapuztuta.

Gauzak horrela, biharamunean, ustekabeko amesgaiztoaren ikara maltzur hura gainditutakoan, txerri puskak auzokoei banatzeko unea iritsita, amak honela esan zion seme gazteenari, eskolatik itzulitakoan:

–Manex, hator hona, mesedez! Begira, txerri puska hauek Pelloren baserrikoentzat dituk, eta, beste hauek, hurrengo baserrikoentzat; ulertu al duk?

–Bai, ama.

–Tira, ba! Eraman itzak berehala eta ez entretenitu bidean, e! Eta bukatutakoan, etorri segituan etxeko lanak egitera! Aditu? –agindu zion amak, serio.

–Baaaai, ama! –esan zion semeak, asperdura itxurarekin.

Itxura denez, behinik behin, Manexek ongi egin zituen amak agindutako mandatuak, eta, hori horrela, handik egun batzuetara, aitak topo egin zuen ondoko bordako morroiarekin, Agustinekin, behiak belardi batera eramaterakoan, alegia, hilabete batzuk lehenago sugegorri batek heldu zionarekin, eta hark honako hauxe bota zion, ikusi bezain laster:

–Ño! Bai ederrak zeudela Manexek ekarritako txerri puskak! Eskerrik asko! Estimatuak zaudek!

–Ez horregatik, motel, eta pozten nauk goxoak baldin bazeuden! On egin! –erantzun zion Manexen aitak harridura pixka batekin, ez baitzuen uste morroi hari puskak eraman behar zizkiotela, baina, bueno, bere baitan pentsatu zuen bera nahastuta egonen zela, eta ez zion garrantzi handiagorik eman pasadizo hari.

Behiak euntzean sartu eta etxerako bidean beste gizon baserritar batekin topatu zen aita, hau da, Manexi kukua beldurraren beldurrez kendu eta etxean disekatuta zeukanarekin. Aitak, deus ere jakin gabe, zera esan zion:

–Egun on, Martin! Ze, zuen txerri puskak ere goxoak al zeuden?

–Gure puskak? Zertaz ari haiz, motel? Ez zekiat zer esan nahi duan –erantzun zion Martinek, harridura aurpegia jarrita.

–Bai, gizona!, duela egun batzuk, etxean, txerria hil eta bere puskak Manexen bitartez bidali genizkizuen. Ez al zenituzten jaso? – aitak, txunditu samar.

–Ez! Nik dakidanez, behintzat, etxean ez diagu deus ere jaso zuengandik –Martinen erantzun lehorra.

–Bueno, bueno, ba, hik hala baldin badiok, halaxe izanen duk! Nik ez diat gehiago eztabaidatuko –eta horrela agurtu zuen Manexen aitak Martin.

Etxera iritsi zenean, emazteari zera galdetu zion:

–Aizu! Zuk ez al zenuen bidali, ba, Manex Martinen baserrira, txerri puskak eraman zitzan?

–Bai, bai, herenegun-edo bidali nuen. Zer gertatzen da, ba? –Manexen amaren erantzuna.

–Ba, Martinek esan dit beraiek ez dutela deus ere jaso, eta zera gelditu naiz, ez nekiela zer esan eta zer pentsatu. Manexekin hitz egin beharko dut –azaldu zion senarrak–. Ea zer kontatzen didan.

Eguerdia igarota, Manex sukaldean bazkaltzera agertu zenean, aitak zera galdetu zion denen aurrean:

–Aizak, Manex! Amak ez al zian eskatu, ba, lehengo egun batean, txerri puska batzuk Martinen baserrira eramateko?

–Bai, halaxe eskatu zidan, bai –mutikoak, kuzkur.

–Eta eraman al hizkien? –aitak, kopetilun.

–Ez! –mutilak, lurrera begira. Familiako guztiak berari so zeuzkan.

–Eta zergatik ez? –aitak ahotsa altxatuz, pixka bat estutu nahian.

–Orain dela hilabete batzuk gaiztakeria bat egin zidalako! –erantzun zion semeak, erdi negarrez; ikaratuta.

–Ze gaiztakeria egin zian, ba? Esan berehala! –agindu zion aitak.

Une hartan bertan, Manexek denen aurrean kontatu zuen, Martinek zer trikimailu itsusia egin zion kukuarekin, kendu eta disekatu zuenean. Ordura arte ez zion inori kontatu, baina, azkenean, askatuta sentitu zuen bere burua, gorabehera hura guztia azaldu eta gero. Lasaitu ederra hartu zuen gertaera osoa aitortu ondoren.

–Horregatik, Martinen baserrikoei eraman beharreko puskak, Agustin morroiari eman nizkion, sugegorriak heldu zionean, nirekin oso ongi portatu zelako –askatu zuen bere mingaina, gustura, azkenean, Manexek, mendeku moduan.

Aitari ez zitzaion oso gaizki iruditu seme gazteenaren arrazonamendua, eta, ondorioz, ez zion inolako zigorrik jarri. Gauza bakarra esan zion denen aurrean:

–Bueno, Manex, entzun ongi belarritik esan behar diadana! Ez zaidak gaizki iruditzen egin duana, nahiz eta mendekua ez izan oso lagun ona, baina, hala eta guztiz ere, hobeki eginen hukeen, guri, gurasooi, hasieratik dena kontatu izan bahigu; ea hurrengorako ikasten duan!

Aldi hartan, azkenean, ezbehar handiagorik gabe, Manex ongi samar atera zen egoera nahasgarri hartatik.

Errege magoak

Ilbeltzaren bosta zen Manexen baserrian. Ordurako iraganak ziren Gabon gaua, Eguberri eguna, Urtezahar gaua eta baita Urteberri eguna ere. Eguberriak eta, beraiekin batera, opor egunak ere bukatzen ari ziren. Oporraldia bere amaierara iristen ari zen. Egun gutxi barru, berriz ere eskolara itzuli beharko zuen Manexek, gainerako haur guztiek bezalaxe. Ikuspegi hura ez zen oso pozgarria, baina, bueno, oraindik egun garrantzitsu eta handi bat zuen aurretik, alegia, Errege eguna, jostailu eta oparien egun bikaina. Gainera, kanpoan elurra zegoen eta hura oso gustukoa zeukan.

Hamabost egun eskas lehenago, Manex bere familiakoekin, hantxe ibili zen oso liluraturik, goroldio bila, baserritik bi bat kilometrora joanda. Beste egun batean, gorosti eder bat aurkitu nahian, basoan aritu zen, etxera eraman eta han eguberrietako apaindurak jartzeko. Gaur egun debekatuta dago espezie horretako zuhaixkak moztea baimenik gabe, baina garai hartan ez, eta jende askok huraxe bera egiten zuen, ederrenak moztu eta etxera. Jendea geroago hasiko zen pinuak jartzen eginkizun horretarako.

Esan bezala, ordurako, Eguberrien hasierarako, alegia, etxeko sarrera handian, jaiotza jarrita zuten, portalea zortzi egurrez egina eta goroldio orlegi ederrez estalia. Hantxe ziren Jesus haurtxoa, Maria, Jose, behia eta astoa, eta, kanpoan, gainerako irudi eta pertsonaia guztiak: artzainak, ardiak, arkumeak, oiloak, oilarra, Errege magoak, izarra, mendiak eta abar.

Gorostia ere oso ongi apainduta jarri zuten, kolore askotako argiekin, bolekin eta bat eta beste.

Baina, esan bezala, zoritxarrez, dagoeneko ospakizun handiko egunak eta oturuntza gehienak joanak ziren, hau da, igarota zeuden. Hala eta guztiz ere, zorionez, oraindik azken gau magikoa eta egun desiragarria gelditzen ziren, haur gehienentzat.

Esan bezala, ordurako ilbeltzaren bostean zeuden. Ilunduta zegoen. Jakina da Eguberrietan oso goiz gautzen duela. Bueno, ba, gauzak horrela, afaldu baino lehen, baserri inguruan, herriko mutil gazteen zintzarri hotsak entzun ziren pasatzen. Zein ote zen haien esanahia, auskalo. Erregeen etorrera? Baliteke. Segur aski, bai, baina, zehazkiago zer adierazi nahi zuten, gaur egun ez zaigu erraz gertatzen jakitea.

Dena dela, Manex zintzarrien hotsarekin baino askoz ere arduratuagoa zegoen Errege magoen etortzearekin berberarekin. Kezkatuta zegoela ere esan liteke, izan ere, kontu horren inguruan, ongi ulertzen ez zituen gauza asko ikusten eta sumatzen zituen, esate baterako, ezin zuen inola ere ulertu nola hiru Errege berberak egon ahal ziren hainbat hiriburu, hiri eta herritan aldi berean, nola banatu ahal zituzten beraiek bakarrik jostailu guztiak, gau bakar batean, ez etxe guztietan bakarrik, baizik eta eta baita baserri guztietan ere. Bere buruan ez zen sartzen holako konturik, nahiz eta irratiak eta telebistak hura esan; misterio handiegia zen berarentzat. Ezin zuen ulertu modu arrazionalean.

Beste alde batetik ere, harrigarria gertatzen zitzaion entzutea Errege magoak Ekialde Urrunetik etortzen zirela, baina beraien baserrira, ordea, hego-mendebaldean zegoen balkoitik sartzen omen ziren, hain zuzen ere; bitxikeria galanta! Baina, istorio denetan, gehien harritzen zuena zera zen, elurra zegoen urteetan kalea ikustea, hau da, baserri inguruko kanpoalde guztian ez topatzea

gameluen hanka arrastorik. Etxeko ate eta leiho guztietan barna kanpora begiratu eta, hala ere, ez zuen gameluen aztarna txikienik ere ikusten; ezin zuen konprenitu. Nola joanen ote ziren, ba, hegan, ala? Manexek bueltak eta bueltak ematen zizkien gai hauei bere buru txikian, baina inola ere ez zen iristen beren logika ulertzera.

Beste alde batetik ere, Errege eguna igaro eta haurrak berriro herriko eskolan elkartu eta norbera bere opariak kontatzen hasten zirenean, Manex ohartzen zen aberatsen etxeetan opari gehiago eta garestiagoak uzten zituztela, behartsuen etxeetan baino, eta egikari hura ongi ez ulertzeaz gain, gaizki ere irizten zion egintza hari. Ez zitzaion bidezkoa iruditzen.

Gauzak hala, eta antzeko gertakariak urtero-urtero ikusita, azken Eguberri haietan probatxo bat egitea erabaki zuen gure mutikoak. Alegia, gurasoek esaten zioten hiru Erregeak, hau da, Meltxor, Gaspar eta Baltasar, etxeko balkoian barna sartzen zirela areto nagusira: jangelara. Orduan, urte hartako ilbeltzaren bostean egin zuena zera izan zen, ilundu ondoren, inor konturatu gabe, isilean eta arreta handiz, balkoian josteko hari bat jarri zuen alde batetik besteraino, Errege magoak handik barna pasatzerakoan, puska zezaten.

Horrela, bada, afaldu ondoren eta Errege magoei jangelan jarri beharreko gauza guztiak jarri eta gero, konparazio batera, galleta batzuk jateko, botila bat pattar, edontziak erdi beteta, zapatak garbi-garbiak, aulkiak esertzeko, balkoiko atea pixka bat irekita eta abar, Manex segituan joan zen ohatzera, gaua ahalik azkarrena igaro zedin. Baina, ilbeltzaren bosteko gauak gure mutikoarentzat beti eternalak izaten ziren, arrunt luzeak, bukaezinak batez ere lokartzen zen arte. Hantxe ibiltzen zen, lehenik alde batera biratu eta gero bestera, lo hartu nahian, baina zenbat eta lehenago loak hartzea nahi izan, orduan eta gehiago kostatzen zitzaion. Ondoren gora begira jarriko zen ohatzean, baina horrela ere loa ezin bildu. Azkenik, noizbait lortzen zuen lokartzea, baina, agian, handik bizpahiru ordutara berriz ere esnatu eta konturatzen zen gaua oraindik bukatu gabe zegoela, eta, orduan, berriro ere sufritu egin behar. Gaua amaiezina gertatzen zitzaion; eramangaitza.

Baina, bueno, gauak ere azkenean noizbait bukatu behar eta hura ere halaxe amaitu zen, eta Manex esnatu bezain laster, urduri eta ilusioz beterik, brinko batez jaiki eta arrapalada batean joan zen zapatak zeuden lekuraino; jangelara. Eskatutako jostailu guztiak – bizpahiru–, hantxe topatu eta segituan hasi zen etxekoei irrikaz erakusten eta beraiekin jostatzen, pixa egiteko eta aurpegia garbitzeko ere batere denborarik hartu gabe.

Lehendabiziko eromen momentu haiek igarotakoan, Manexek tarte txiki bat hartu zuen jangelako mahaira begiratzeko eta berehalaxe ikusi zuen, beti bezala, goiz hartan ere, hiru edalontziak hutsik zeudela eta jarritako galleta gehienak ere janda. Une batez zera pentsatu zuen: A zer-nolako betekada hartuko zuten Errege magoek gau honetan, gainerako etxe guztietan ere, hemen bezainbeste jan eta edan baldin badute!. Jarraian, disimuluz eta bestela bezala, balkoira hurbildu zen, kanpoko aldean, bezperan, berak alderik alde jarritako josteko haria, ikustera hautsita zegoen ala ez. Ooooo! Hura desilusioa! Haria hantxe zegoen oso- osorik, batere hautsi gabe. Balkoi azpiko elurra ere ukitu gabe zegoen, inolako aztarna eta arrastorik gabe, eta berdin-berdin baserriko inguru osoan. Hura etsipena! Huraxe zen eztabaida eroa Manexek bere buru barruan zeukana! Ez zekien zer pentsatu, baina bere gogoa, jakina, oso nahasita sumatzen zuen. Horrek guztiak bere zalantzak eta harridura areagotu baino ez zituen egin.

Dena den, handik bi egunetara berriz ere eskolara joaten hasi behar eta mutikoak ez zuen denbora alferrik emateko; dena ongi aprobetxatu beharra zegoen. Horregatik etxeko hainbat lekutan jarraitu zuen jostaketan jasotako jostailu berriekin, jangelan, sarrerako gela zabalean, sukaldean, ukuiluan eta abarretan. Hala eta guztiz ere, geroago amarekin logelan topo egin eta honako hauxe galdetu zion:

–Aizu, ama! Opariak benetan Errege magoek ekartzen al dituzte?

–Bai, noski! Zer, ba?

–Ez dakit, baina gauza arraro asko ikusten ditut.

–Zein, adibidez?

–Ba, konparaziora, esaten duzue Errege magoak gameluetan etortzen direla, baina gure etxe inguruko elurra ez dago batere zanpatuta; gameluen hanka arrastorik ere ez dago inon. Nola liteke hori, ama? –semeak, harriturik.

–A, bueno, hori Erregeak magoak direlako duk, Manex; horregatik ez duk harritu behar – bota zion amak.

–Ez dakit, ez dakit, ba, ama! –esan zion mutikoak, inolako konbentzimendurik gabe–. Eta gau bakar batean nola banatu ahal dituzte haur denen opariak leku guztietan, baserrietan, herrietan, hirietan eta hiriburuetan?

–Esan diat, ba, lehen ere, Errege magoek magia egiten dutela, maitea!

–Bai, baina magia egin ahal baldin badute, orduan zergatik uzten dizkiete haur batzuei opari gehiago eta hobeak beste batzuei baino?; hori ez da bidezkoa, ama! –galdetu zion zorrozki semeak amari.

–Ai, bihotza!, galdera asko egiten dituk. Handiagoa haizenean, orduan ulertuko dituk hobeki gauza horiek guztiak –erantzun zion amak estu eta larri, ataka zail hartatik nola edo hala ateratzearren.

Manexek josteko hariaren pasadizoa ez zion aipatu amari, zer gerta ere –ez zen asusartu–, eta, ondorioz, hasieran bezain zalantzakor eta susmoti gelditu zen, baina ez zuen hitz gehiagorik esan. Berdintsu geratu behar.

Gauzak hala, bi egun haiek igaro eta eskolara joaten hasi zen gure mutikoa. Normala den bezala, haur bakoitzak jasotako opari eta jostailuen berri eman zien inguruko lagunei. Orduantxe ere, Manex ohartu zen alde nabarmenak zeudela batzuetatik beste batzuetara: neska-mutiko behartsuenek opari gutxiago eta kaxkarragoak jaso zituzten aberatsenek baino. Zergatik ote? Hura ere handixeagoa zenean jakin beharko zuen, noski.

Handik astebetera, neguko egun eguzkitsu batean, eskolatik jostaldira atera zirenean, Manex Joxerekin topatu eta hauxe galdetu zion azken honek:

–Manex!, etorri nahi al duk nirekin etxera, gaztainak jatera? –izan ere, Joxeren etxean bezperan gaztaina erreak jan ondoren sobratzen baldin baziren, honen amak oparitu egiten zizkien jostaldian joaten ziren haurrei.

–Bai, bai! Gustura asko, gainera! Ze ongi! Eskerrik asko, Joxe!

Etxerako bidean, Manexek aprobetxatu nahi izan zuen Joxeri galdetzeko ea zer ekarri zioten Errege magoek, eta egin ere, halaxe egin zuen.

–Aizak, Joxe! Eta hiri ze ekarri diate, ba, Erregeek aurten? –Joxe Manex baino zaharxeagoa zen; eskolako azken ikasmailan ari zen.

–Erregeek niri? Niri Erregeek ez zidatek deus ere ekartzen! Niri gurasoek ekartzen zidatek.

–Bueno, hori bazekiat! Niri ere gurasoek gauza asko ekartzen zizkidatek, baina nik Errege magoen egunean esan nahi diat, ilbeltzaren seian; ze ekarri ziaten hiri?

–A!, baina oraindik ez dakik, ala? –Joxek, harrituta.

–Ze jakin behar nian, ba? –Manexek, ikasi minez.

–Ba, Errege magoak gurasoak direla, motel! Gurasoek gu engainatu eta beraiek egiten zizkigutek opariak, Erregeak direlakoan.

–Seguru al hago, Joxe?

–Bai, zeharo seguru!

Eskolako zereginak bukatu ondoren, Manex baserrira itzuli bezain azkar, amarengana hurbildu eta, urduri, ziplo bota zion:

–Ama, eskolako Joxek esan dit Errege magoak zuek zaretela; hala al da? –galdetu zion semeak amari, beldurrak airean.

–Bai, halaxe duk, bai. –Azaldu zion amak, poliki–. Azkenean jakin duk egia, e? Lehenago edo geroago gertatu behar zian; aukeran, agian, goizegi jakin duk, baina ze eginen diogu, ba? Esan nian handitzen hintzenean jakinen huela, eta, begira, azkenean jakin duk, ba, egia osoa, gizajo horrek!

–Ooooo! Hau pena! Eeeez! –oihu egin zuen mutikoak atsekabetuta eta nahigabeturik, lurra ostikoz joaz.

Orduan konturatu zen bere susmoek bazutela oinarri sendoa, benetan; ez zebilen hain gaizki. Une hartantxe ulertu zituen zeuzkan zalantza eta kontraesan guztiak. Halaber ohartu zen inozentzia puskatxo bat behin betiko galdu zuela. Handik aurrera ez zen horren haurtxoa izanen, onerako eta txarrerako, eta, horrek beldur eta ziurgabetasun pixka bat sorrarazten zizkion bere baitan. Hala ere,

gorabehera haietatik guztietatik pozbide txiki bat behintzat atera zuen Manexek bere onerako, alegia, jakin eta ulertu zuen haur behartsuenak ez zirela gelditzen opari gutxiagorekin eta kaxkarragoekin Errege magoen erruagatik, baizik eta haien gurasoek ez zeukatelako diru gehiagorik, erosketak egiteko.

Otsaileko egun batean, bazkalondoan, Manex larrainetik ukuilura joan zen aitarekin, lantxoren bat egin behar zuten aitzakiarekin, kanpoan joan-etorri bat egin ondoren. Baina kanpoaldetik sartu bezain laster biak konturatu ziren hantxe katu ar arrotz bat zebilela; handia eta lodia. Ustekabean harrapatu zuten eta ihes egin behar hartan, katuak ukuiluko barrualdera jo zuen. Momentu huraxe aprobetxatu zuen aitak ukuiluko atea erabat ixteko.

–Manex! Itxi segituan katazuloa!

Manexek agindua aida batean bete zuen eta era hartan katu handi hura ukuiluan itxita gelditu zen, aterabiderik gabe. Ziurrena da katarra baserriko katemeen usainera joanen zela, ohara izanen zirelako-edo. Kontua da, hantxe gelditu zela giltzaperatua, eta egoera hartan, berehala abiatu zen ziztu bizian handik ihes egiteko, baina aterabiderik ezin aurkitu, ordea, eta katu gizen hura amorratuta eta izuturik jarri zen, zoro moduan, miauka eta purrustaka, pertsonei mehatxuak eginez. Hanka egin nahi hartan, lasterka hasi zen ukuiluko alde batetik bestera, leihoen argitasunak erakarrita, baina, jakina, leihoek kristala zeukaten eta katu ar hura ezin zen igaro haietan zehar. Hura horrela, eta etsipen hartan, ukuiluko mutur batetik besteraino jarraitu zuen zalapartaka eta purrustadaka, handik alde egin nahian, baina lortu zuen gauza bakarra zera izan zen, hantxe zeuden animalia guztiak beldurtu eta asaldatzea: behiak, txekorrak, bigantxak, txerriak, oilarra, oiloak, etxeko katuak eta abar. Marruka, zaunka, karakaka, kurrinkaz eta miauka hasi ziren gehienak, hango mugida eta laztura sumatuta.

Manexen aitak berehala akuilu luze eta sendo bat hartu eta beste bat semeari eman zion:

–Manex!, hik segi ezak hortik, eta, nik hemendik!

Saiatu bai, saiatu ziren, baina lehendabiziko ekinaldi hartan, katuak bien artean egin zien ihes. Indartsua eta azkarra zen. Berriz ere ahalegindu behar. Gauzak hala, bien artean berriro ere saiatu ziren katua txoko baten aldera eramaten. Azkenean, uraska eta txerritegiaren artean sartzea lortu zuten.

–Orain, aita, orain! Emaiozu orain! –oihu egin zion Manexek, urduri.

Haiek hala, eta luzaro baino lehen, ukuiluko txoko hartan inguratu, eta bertan makilakada indartsu batzuk buruan eman eta gero, segituan akabatu zuen aitak zoritxarreko katu ar handi hura. Txit garesti atera zitzaion katuari donjuanena egin nahi izatea.

Gorabehera zalapartatsu haiek guztiak bukatu eta gero, aitak berehala ekin zion katu handia larrutzeari, etxeko untxi arrunta balitz bezala, batere eskrupulurik gabe; normaltasun guztiarekin. Garai hartan, edozein abagune egokia zen aprobetxatzeko eta sabela pixka bat betetzeko.

Era hartan, bada, eta inolako espanturik gabe, behin katua larrutu, barrukiak eta behar ez ziren

puska guztiak kendu eta gero, animalia etxeko leiho batean zintzilikatu zuen, gaua hantxe pasa zezan, aireztatzen.

Biharamun goizerdian, inolako erreparorik gabe, aitak katukia hartu, sukaldera eraman eta sukaldaririk hoberena balitz bezala, hantxe hasi zen animalia apailatzen, patata eta beste barazki batzuekin. Bazkalorduan, mahaian zerbitzatu, eta, emaitza? Bikaina! Goxo-goxoa! Mizkinak ez ziren guztiek behinik behin, arrunt gustura jan eta oso ongi aseta gelditu ziren. Aldi hartan, gainera, ama, behingoagatik, deus ere nekatu gabe. Jakina da, dagoenenean bonbon eta ez dagoenean egon! Haiek, noski, beste garai batzuk ziren oraingoekin alderatuta. Katu galaiari kukuak makur jo zion.

Manex eta kanpotarra

Katu handiaren pasadizoak beste gertaera bat ekarri zion burura Manexi. Izan ere, duela zenbait urte lehenago, ukuilua oraindik berritu gabe zutenean, gau batean, eguna argitu baino lehentxeago, mutikoak ohatzean esnatu eta egundoko estualdia sumatu zuen tripan.

Esan beharra dago, garai hartan, ukuilua zaharberritu gabe egoteaz gain, etxebizitza ere halatsu zutela, alegia, berriztatu gabe eta lehenagoko modu zaharrean. Komunik ere oraindik ez zeukaten goian, horrexegatik, etxeko guztiek ukuilura joan behar izaten zuten, lehenago edo geroago, beren gorputzeko beharrak egitera, hau da, libratzera eta pixa egitera. Halaber, komeni da azaltzea, urte haietan, Manexen baserrian, beste gehienetan bezalaxe, eta, aurreko atalean ikusi ahal izan dugun moduan, bada, oiloak ere bazituztela beren oilarrarekin.

Gurasoak beti kontu handiz eta beldurrak airean egoten ziren azeri maltzurrarekin, behin baino gehiagotan akabatu zizkielako oiloren bat, edo txitaren bat, edo oilandaren bat, edota, arrautzak gustura asko lapurtu eta jan, kanpoan harrapatuz gero. Gauzak horrela, gauean, behintzat, oilarra eta oilo guztiak ukuilura sartzen ziren beren kabuz, atean zegoen katazuloan zehar, gero beren oilategiko hagara igotzeko zurubi txiki batean gora. Katazuloa, normalean, itxi egiten zuten gauean, zer gerta ere.

Egoera hartan, bada, Manex gauean, ohatzean esnatu eta halako tripako mina sentitu zuenean, jesus batean jaiki eta ukuiluko eskaileretan jaitsi zen kaka egiten saiatzeko, egundoko kakagalea nabaritu baitzuen. Etxeko denak lo zeuden, baita ukuiluko animaliak ere; isiltasuna erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan zuen argirik ez piztu, iskanbilarik ez sortzeko aziendaren artean. Esan bezala, gaua zen eta giroa ilun zegoen, baina egunsentirako ez zen asko falta.

Mutikoa, ohiko lekutik egunkari orri batzuk hartu, kokoriko jarri eta libratzen saiatu zen. Halako batean, hantxe kanporatu zuen barruan zeukan beherako guztia; ederreko lasaitua hartu zuen gorputz osoan gizajoak! Gero, egunkari paperarekin ipurdia garbitu eta zutitu egin zen.

Baina, bat-batean, oiloak karakaka, oilarra kukurrukuka eta zalapartaka hasi ziren, eten gabe, jauzika eta izuturik. Hura entzunda, Manexek amen batean ukuiluko argia piztu zuen, ikusteko zer gertatzen ari zen han. Zer ikusiko, eta azeria oilar eta oiloen artean ez zuen topatu, ba? Ordurako oilo bat lepotik helduta zeukan eta baita itota ere.

Manex ziztu bizian hasi zen lasterka azeria zegoen aldera, oiloa askatzen saiatzeko.

–Alde hemendik, piztia madarikatua! –oihu egin zion amorrazioz.

Mutikoa hurbil ikusita ere, azeria hegaztia eramaten ahalegindu zen, baina, presarekin, katazuloa zeharkatzerakoan, hildako oiloak, izkina batean trabatu eta ahotik ihes egin zion azeriari; lurrean gelditu zen oilo gaixoa. Azeri maltzurrak Manex atzetik zeukan lasterka, eta, oso penatuta gelditu baldin bazen ere oiloa hantxe utzita, halako janari ahogozagarria, azkenean kanpora hanka egin behar izan zuen ziztu bizian, mutikoak harrapatuko ez bazuen.

Manexek oraindik adorea izan zuen ukuiluko atea ireki eta ebasle frustratuaren atzetik joateko.

–Ospa hemendik, lapur zikina, eta ez itzuli hona gehiago! –esan zion mutilak, haserre eta suturik, lauoineko buztan-luzeak alde egiten zuen bitartean. Tarteka-marteka gelditu eta baserri aldera begiratzen zuen behin eta berriz, oiloa galdu izanaren tamala adierazi nahiko balu bezala.

Ordurako eguna argitzen hasita zegoen. Ondorioz, Manexek etxera itzultzea erabaki zuen, lotan jarraitzeko, baina ukuilura sartzerakoan, hara non egin zuen topo aitarekin, une hartarako ganadua gobernatzera joana baitzen.

–Baina, Manex, ze habil hi hemen? Nondik heldu haiz orduotan? Ze gertatu da? –galdetu zion aitak harritu bezain kezkaturik.

–Begira, ba, azeria sartu eta oilo bat hil egin du; hortxe dago. Orduan ni kanpora atera eta atzetik joan naiz uxatzeko. Oraindik hantxe dago, hesi ondoan, oiloen zain, lotsagabe malapartatu hori! –bota zion aitari, urduri eta sosegurik gabe.

Hori entzun bezain laster, aitak akuilu bat hartu eta kanpora joan zen arrapaladan, azeri hiltzaileari kargu hartzeko. Bai, izan ere, oraindik hantxe jarraitzen zuen patxada ederrean, oiloren bat noiz aterako zain, baina Manexen aitak ikusi bezain azkar, biraoka eta juramentuka hasi zitzaion.

–Madarikatu alaena! Alde egin ezak hortik, demonio zerria! Ikusiko duk harrapatzen bahaut, oilobusti horrek! –mehatxu egin zion gizonak haserre bizian, eta, jarraian, akuilua jaurti zion airean, bere indar guztiekin.

Egoera hura ikusita, eta, azeri litxarreroa ohartuta une hartan ezinezkoa zela deus onuragarririk lortzea, amore eman eta joan egin zen handik, beste momentu egokiagoren bat berriz ere iritsiko zitzaion itxaropenean.

Aita-semeak ere mugitu egin ziren handik; etxe alderantz jo zuten. Ukuiluko lurrean zegoen hildako oiloa jaso eta etxebizitzara igo ziren. Manex lo pixka bat gehiago egitera joan zen ohatzera, eskolara abiatu baino lehen, eta, aita, ordea, ukuilura berriro, azienda gobernatzera.

Mutikoak, eguerdian, eskolatik etxera bazkaltzera itzuli zenean, ez zuen deus berezirik espero, baina, hara non!, gurasoengandik ustekabe goxo bezain atsegina jaso zuen, alegia, goizean zehar, amak hilda zegoen oiloa lumatu, garbitu eta gozo-gozoki apailatu egin zuen sukaldeko sutegian, Manexi deus ere esan gabe. Lehen platereko eltzekaria bukatutakoan, eta, baserritar txikiak batere susmorik izan gabe, bat-batean, amak, platerean, oiloaren izter on bat eta hegal atsegingarri bat plantatu zizkion; mutikoarentzat gustukoenak zirenak.

–Puska hauek biak hiretzat, Manex! –esan zion amak jarraian, gozoro.

–Niretzat? Baina, zer dela eta? –semeak, harrituta–. Gaur ez dugu jaieguna, ez da hala, ama?

–Ez, ez diagu, baina egunsentian ongi baino hobeki irabazi duk sari hau, azeria uxatuta, bestela, auskalo zenbat hegazti izorratuko zizkigun basapiztia maltzur horrek.

–Ze ongi! Eskerrik asko, ama! Hau poza! – mutikoak, pozkarioz beteta, segituan jateari ekin zion arrunt gogotsu eta etenik egin gabe.

–Hemendik aurrera, arreta handiagoa izan beharko diagu katazuloarekin; gauero-gauero oso ongi itxi egin beharko diagu, berriz ere ez gertatzeko egunsentian bezala, eta, gaurgero, hi izanen haiz horren arduraduna, Manex; ze iruditzen zaik? –galdetu zion aitak, alai.

–Niri primeran, aita, batez ere, honelako sari eta opariak ematen badizkidazue! –bukatu zuen txikiak, poz-pozik.

Behiak eta udaberria

Martxo bukaera aldean, normalean, udaberria etortzearekin batera, Manexen baserrian, behiak, bigak eta bigantxak etxetik kanpora ateratzen zituzten, udazkenaren bukaera, negu osoa eta udaberriaren zatitxo bat ukuiluan, ganbelaren aurrean, katez lotuta eman ondoren.

Normala den bezala, lehendabiziko ateratze hura ikaragarria izaten zen, alegia, abelgorriak ukuilutik ero moduan atera ohi ziren, pozaren pozez, ganbela ondoan katez lotuta hainbeste hilabete eman eta gero. Animalia haientzat, ia- ia berriz jaiotzea bezalakoa izaten zen, berriro kanpora atera eta izadi osoaz gustura gozatu ahal izatea: haizeaz, lurraz, belarrez, euriaz eta abarrez. Horrek guztiak berebiziko garrantzia zeukan haientzat, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, jartzen ziren hain pozik eta erdi zoratuta. Ukuilutik atera bezain azkar, lasterka, jauzika eta marruka hasten ziren, beren alaitasuna eta gozamena adierazteko.

Baserri aurrean errekasto txiki bat zuten eta aurreraxeago lizardi ederra. Baina, lizardi polit hura bukatzen zen lekuan, aldapa handi bat zegoen; oso pikoa. Amildegia zela esan ere liteke, beste erreka handiago bateraino iristen zena. Arrazoi horrexegatik, hain justu ere, urtero, egun jakin hartan, kontu handiz ibili behar izaten zuten, animalia bakar bat ere gehiegi hurbil ez zedin malda hartara.

Gauzak hala zeudela, eguerdi hartan, larunbatarekin, behiak, bigak eta bigantxak hantxe zihoazen lasterka eta brinkoka, pozarren eta marruka, larrainetik aurrera, ukuilutik ateraz bat. Erreka txikia pasatu bezain azkar lizardi ederrera iritsi ziren. Hantxe zeuden etxeko gizonezko gehienak, behien zain, amildegitik babesteko.

–Zuek jar zaitezte hor, aldapa ondoan! – esan zien irmoki aitak hiru seme zaharrenei; hirurek akuilu bana zuten eskuan. Manex, zer gerta ere, aitaren ondoan zebilen–. Ez utzi behiak ertzera hurbiltzen! –berriz ere oihu egin zien aitak mutilei.

Baina aziendak berean jarraitzen zuen, pozik eta alai, alegia, jauzika, korrika, bultzaka eta jostetan; abereek inori ez zioten jaramonik egiten.

Halako batean, ordea, rau!, tropeltxo batek amildegi piko aldera jo zuen, erdi borrokan, erdi jostaketan, eta behi handi batek, zurrunbilo hartan, adarrekin ukaldi bortitz bat eman zion bigantxa bati, asmo txarrik gabe, segur aski, baizik eta pozaren pozez zebilelako.

–Uo, uo! Esti, atzera, petral, zikin urde arraioak! Geldi hor, madarikatuak! –oihu egin zieten mutilek behin eta berriz animaliei, geldiarazteko, baita makilekin akuilatu ere, baina kukuak txit oker jo zien aldi hartan, eta bigantxa gaixoa hantxe joan zen, goitik behera, muturrez aurrera eta itzulipurdika, harkaitz, sastraka eta zuhaixken artean. Amildu egin zen zeharo. Beheko errekaraino iritsi zenerako, adar eta hezurrekin egin zituen harrabotsak ere ez ziren batere txikiak izan, alderantziz, izugarriak eta sekulakoak gertatu zitzaizkien; baserritarrak ikaratu egin ziren gertakari hura ikusi eta entzunda.

Goitik begiratuta, zalantzarako ez zegoen leku handirik: lepo hezurra eta hanka bat edo beste ere hautsita nabaritzen ziren; beren tokietatik aterata. Argi zegoen zorigaiztoko animalia bertan zerraldo gelditu zela; odolustua, besteak beste.

Eta egoera zail hartan, zer egin? Aitak zera erabaki zuen, alegia, haragia behinik behin saiatu behar zutela aprobetxatzen. Horretarako, egin zuten lehenengo gauza honako hauxe izan zen, hots, gainerako behiak pixka bat baretu zirenean, uztarria hartu eta bertan lotu zituzten hartan ibiltzen ohituta zeuden bi behiak. Amildegi ertzera eraman eta hantxe lotu zituzten uztarrian, elkarren segidan, baserrian aurkitutako kate eta soka guztiak, hildako bigantxa zegoen lekuraino iritsi ahal izateko.

Bi seme zaharrenak arduratu ziren katea eta sokak luzatu eta beherantz jaisteaz. Halarik ere, zoritxarrez, lokarriak ez ziren beheraino iristen. Hura ikusita, aitak hirugarren semea, ondoko baserrira bidali zuen, soka gehiagoren bila. Manexek arreta eta harridura handiz jarraitu zuen gertaera guztia.

Hirugarren semea soka gehiagorekin itzuli bezain laster, behera bota zizkien anaiei, maldaren bazterretik. Haiek auzokoaren lokarriak jaso eta segituan beren kate eta sokei erantsi zizkieten, korapilo sendoak eginez. Jarraian, bigantxa lotu zuten sokaren azken muturraz, bularretik pasatuta, besoen azpitik, eta, azkenean, lakio handi bat eginda.

Goian, uztarriko behiak, prest zeuden tiratzen hasteko. Aitak, abereen aurrean jarri eta akuiluarekin uztarri gainean indarrean joaz “aida, behiak, aida!” esan zien ozenki.

–Zuek gogotik akuilatu atzetik, e! –agindu zien aitak Manex eta beste semeari, sendoki. Behiak atezuan ziren.

Bien bitartean, beste bi seme zaharrenak, behean, erreka ondoan ari ziren bigantxa hila, nola edo hala, gora joan zedin laguntzen eta bideratzen. Metro batzuk gora egin zituen; denak pozten hasi ziren, nahiz eta jakin, hala eta guztiz ere, galerak ikaragarri handia izaten jarraitzen zuela.

–Segi hola, mutilak, segi! –animatu zituen aitak goitik, oihuka.

Baina, behiek egindako bat-bateko tiraldi indartsuarekin, ohartu orduko, bigantxa eta soka, harkaitz eta zuhaixka batzuen artean trabatu, eta, tamalez, lokarriak nonbaitetik, amen batean puskatu egin ziren; bigantxa, berriz ere, beherantz, errekaraino! Eta uztarriko behi parea, inertziarekin eta lurrean zegoen aldapa behera pixka baten laguntzarekin, muturrez aurrera joan zen lurreraino, halako balbearekin, non adarrak belardian sartu ondoren, biak ipurdiz gora joan eta lurrean tripaz goiti gelditu baitziren; hankaz gora, zutitu ezin zirela, uztarriak eta bere uhalek uzten ez zietelako. Aita ere larri-larri libratu zen; txiripaz ez zuten behiek zapaldu. Pasatu zuen beldurra ez zen nolanahikoa izan. Eta hura ikusita, kristorenak eta bi esaten hasi zen, amorrazio bizian:

–Zorte madarikatua! Dios, ederretik libratu nauk! Baina, baina, zer ostia gertatu da? Arraio mila demonio! –bota zituen aida batean, haserre baino haserreago–. Pikutara dena! Alukeria galanta!

Baina, lehendabiziko espantuzko uneak igaro, eta pixka bat lasaitzen hasi zenean, berehalaxe konturatu zen behiek hantxe jarraitzen zutela, beren hartan, hau da, ahoz gora, zerura begira eta zutik jarri ezin zirela. Manex zur eta lur zegoen gertaldi harekin guztiarekin. Aita istant batean mugitu zen, ordea.

–Tira, mutilok, lagundu niri! –adoretu zituen ondoan zeuzkan semeak, eta, haiek, segituan men egin.

Hiruren artean, bere-berehala askatu zituzten uztarriko hedeak, eta, orduan, behiak bertantxe ziplo joan ziren lurrera; bakoitza bere aldera. Segidan zutitu eta deus gertatu izan ez balitz bezala gelditu ziren; hausturarik ez, nahiz eta berebiziko arriskua pasatu. Gerora, handik bazter batera lekutu ziren.

Ordurako, behean, erreka ondoan ziren bi seme zaharrenek, gora egin zuten, ikusteko zer deabru gertatu ote zen han, lizardian. Azkenean, aitak, panorama etsigarri eta ezintasunezko hura ikusita, amore eman eta bigantxa erreskatatzea bertan behera uztea erabaki zuen. Denen artean, erabilitako gauzak jaso –katea, sokak, uztarria– eta baserrirantz abiatu ziren, tresna haiek beren lekuetan uztera. Jarraian, inguru haietan zebiltzan gainerako behi, biga eta bigantxak elkartu eta euntze batera sartu zituzten, bazka zitezen. Baserritarrak, bitartean, etxera, bazkaltzera, nahiz eta ordurako jateko gogoa nahiko galduta eduki.

Biharamunean, baserritarrak jaiki zirenean, berehalaxe ikusi zuten sai saldo handi bat erreka parean, hegaldatzen, gora eta behera: batzuk, aseta, alde egiten, eta, bestetzuk jaisten, beren sabelak haragi goxoz betetzera. Ordu gutxiren buruan, oso-osorik jan zuten bigantxa gaixoa, lehoiek bezalaxe. Eguerdirako hezurdura baino ez zen gelditzen han. Baserriko gizonezkoek pena eta tristezia handiz ikusi zuten espektakulu tamalgarri hura.

–Tira, mutilok, goazen hemendik lanera! – esan zien aitak semeei, atsekabez beterik.

Urte hartako udaberrian oso hasiera txarra izan zuten abereekin. Zorteak gogorki jo zituen.

Manex eta katakumea

Manex bizi zen baserrira, noizbait butano gasa ere iritsi zen sukalderaino. Baina, ohartuta batzuetan sukaldean lurruna jartzen zela, hau da, zenbait jaki egosterakoan, sukaldeko sabaia eta paretak baporez bustitzen zirela, orduan, sukaldetik ganbarara zulotxo bat eginda, hodi estu eta motz bat jarri zuten, hogeita hamar bat zentimetrokoa, gutxi gorabehera, handik lurrun gehiena gora joan zedin.

Gauzak horrela zeudela, urte bateko negu bukaera aldean, zera gertatu zen, alegia, siloko belarra ukuilura eskorgan eramaterakoan, bada, tresna haren gurpilak katakume bat harrapatu zuela, hots, gurpila gorputz erdiaren gainetik pasatu zitzaion, eta, jakina, eskorga belar astunez beteta zihoan; bizkarrezurrean kalte larriak eragin zizkion. Beraz, katakumeari ondorio txarrak ekarri zizkion istripu hark: handik aurrera ez zen normaltasunez hazi, mehe-mehe gelditu zen eta egoera makalean; hark guztiak behin betiko elbarritasuna sorrarazi zion.

Hura horrela, eta katakumea era kaskar hartan geratuta, lauoinekoak oso gustukoa izaten zuen sukaldera joatea, lagunartean sentitzeko. Egunez bai, onartu eta utzi egiten zioten hantxe egoten, sukaldean, baserritarren artean, baina, gauez ez, gauean, aterarazi eta ukuilura edota ganbarara bidaltzen zuten, han lo egin zezan.

Baina, katakume hura gorputzez makala baldin bazen ere, buruz ez, burua oso ongi hornitua zeukan, ordea, eta gau batean zerari erreparatu zion, alegia, ganbaran zegoen bitartean, konturatu zen sukaldeko hoditxo hartatik pertsonen ahotsak ateratzen zirela. Katakumeak zer eginen eta, jendearen konpainian egoteagatik, honako burutazio hau izan zuen, hau da, burua hodian sartu eta goitik behera joan zen, familiakoekin egotearren.

Hala ere, tutuak, beheko aldean, hagatxo bat zeukan, alderik alde horizontalean gurutzatzen zuena, eta, seguru asko, hartantxe egonen zen finkatua delako hodia, sabaian, horma ondoan. Kontua da, gau hartan baserriko familia afaltzen ari zen bitartean, katutxoak bere burua bota ondoren, sukaldeko sabaian agertu zela, buruz behera, hagatxo hartan trabatuta. Ateratako zaratatxoarekin, familiakoak harritu egin ziren eta berehala gora begiratu zuten. Sor eta lor ikusi zuten han agertu zena; ezusteko bisitaria!

–Hara!, begira zein den hor, alajaina! –oihu egin zuen txundituta aitak.

Esan bezala, hodi txiki hura, gas sukaldearen gainean zegoen eta handik lurreraino, bi metro pasatxoko altuera gutxienez izanen zen, hortaz, katakume elbarri harentzat ez zen azaren azpiko orria, horrexegatik, amari bururatu zitzaion lehenengo gauza zera izan zen, erratza kirtenetik hartu eta katutxoaren azpian jarri, hura hara pasa zedin, eta, halaxe gertatu zen, alegia, katakumea poliki-poliki erratzera igaro eta orduan Manexen amak, kontu handiz, lurreraino jaitsi zuen.

Halaxe sartu zen, bada, sukalderaino katutxo buruargia gau hartan. Handik aurrera, jokabide hura ohitura bihurtu zen katakumearengan, eta, etxekoek, astiro-astiro, gero eta afektu eta txera handiagoa hartu zioten animaliatxoari.

Katakumeak itxura eskas eta penagarri samarra zeukan: mehea, okerra, atzeko hanka bat erdi

arrastaka eramaten zuena, ilea kaskarra eta abar, baina, hala eta guztiz ere, baserritar haien errespetua eta maitasuna jakin izan zuen irabazten.

Egunak eta asteak aurrera zihoazen eta katuaren gaueko bisita ia-ia sistematiko bihurtu zen; etxekoek afaltiar bat gehiago bezala hartu zuten. Grazia eta dena egiten zien; sinpatiko gertatzen zitzaien, eta, gutxi baldin bazen ere, beraiekin afaltzen zuen zer edo zer; hondarren bat.

Esan bezala, katua txikia zen eta ezegokia bere itxura, baina, jakina, denbora aurrera joan ahala, pixkaka-pixkaka hazten ari zen eta baserritarrek ez zekiten ongi noiz arte jarraitu ahalko zuen pasatzen tutu estu hartan zehar, baina, bueno, dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon, pentsatzen zuten. Ikusi egin behar zer gertatzen zen aurrerago. Momentuz, gorabehera haiek ari ziren bizitzen eta gustura zeuden.

Gau jakin batean, beste askotan bezalaxe, afaltzen ari zirenean, hantxe agertu zitzaien katakumea, sabaiko zuloan, ohiko moduan, buruz behera, norbaitek lagundu ziezaion handik jaisten.

–Manex, Manex, begira, hortxe zagok katutxoa berriz ere! Hartu erratza eta jar iezaiok parean, jaisteko, ama lanpetuta dago eta! –eskatu zion aitak segituan; ama afaria zerbitzatzen ari zen.

Lehenengo aldia zen Manexek halako lana egiten zuena, baina etxekoei makina bat aldiz ikusita zegoen. Beraz, aulkitik jaiki, erratza hartu eta katakumeari jartzen hasi zen; ez zirudien hain zaila ere. Baina, katu elbarria erratzera pasatzen hasi zenean, Manexek kirtenaren oreka galdu eta animalia, aida batean, goitik behera joan zen, halako zorte txarrarekin, non txerrientzako egosten ari ziren patata zaharren pertzera bete-betean erori baitzen; oso denbora gutxian hil zen zoritxarreko katakumea, ura irakiten ari zen eta. Huraxe izan zen animaliatxo gaixoaren azken erematea. Egia esateko, behin ere ez zuen oso zorte handia izan bere bizitza laburrean. Biharamunean baratze ondoan lurperatu zuten. Denak penaturik eta atsekabetuta gelditu ziren, baina are gehiago oraindik, ahal bada, Manex, errudun sentitzen zelako.

–Nire errua izan zen, ama, erratzari behar bezala ez eusteagatik! –zioen gizajoak, negar batean, bere burua zigortuz, katutxoaren gorpu txiki eta desitxuratuari lur ematen zioten bitartean.

–Lasai, maitea, nahi gabe izan baitzen!; ez zuan hire errua izan! Halakoxe patua izanen zian gaixoak! Animo!, eta gainera, gure etxean ez duk inoiz katurik faltatuko, bihotza! –saiatu zen ama adoretsua, seme nahigabetua kontsolatzen.

–Katurik ez zaigu faltatuko, ez, baina, katutxo hau errepika ezina zen, eta hau ez da sekula santan itzuliko! –argudiatu zuen Manexek negar zotinka, eta, horretan, gainera, arrazoi osoa zuen.

Manex eta katu zaharra

Manex bizi zen baserrian, besteak beste, bazuten katu zahar bat, eskarmentu handikoa eta oso leiala zena. Asko eta askotan mutikoarekin joaten zen paseatzera, hura mugitzen zela ikusten zuen bezain laster.

Horrela, bada, ekaineko larunbat batean, eskolarik ez zuela aprobetxatuta, Manexek karabina hartu eta etxetik kanpora jo zuen, eguerdia pasatxoan. Katu zaharra ohartu eta berehalaxe joan zen mutikoarengana, lagun egitera. Segituan lizardi aldera abiatu ziren biak ala biak, oinez, noski.

Handik gutxira, harkaitz baten gainean, sugandila bat ikusi zuen mutiltxoak; eguzkitan, gorputza berotzen. Manex gelditu, karabina sorbaldatik jaitsi eta jarraian apuntatzen hasi zen. Sugandilak ez zuen zirkinik ere egin. Segundo gutxiren buruan tiro egin zion, eta baita jo ere. Katu zaharrak bere-berehala jauzi handi bat egin eta sugandila harrapatu zuen, hil baino lehen; aida batean murtxikatu eta jan egin zuen. Beste batzuetan kumeei eraman ohi zien, baina, antza denez, aldi hartan, tripa-zorriak izanen zituen.

Aurrerago jarraitu eta zozo bat ikusi zuen hegan, bidea zeharkatzen; hantxe utzi behar izan zuen joaten, agertu zen bezala, urruti baitzebilen. Geroago, belaze batean, birigarro bat edo beste ere ikusi zituen mutikoak, janari bila, baina haiek ere urrun ziren, eta, ondorioz, ez zuen batere aukera onik izan tirorik emateko. Hala ere, oraindik bazkalordurako denbora bazeukala iritzita, ehizan jarraitzea erabaki zuen; katu zaharra atzean, haren ondoan, ohi bezala. Halako batean, ordea, bideko hesian zarata azkar bat entzun zuen bere ondoan; ikaratu eta dena egin zen. Erreflexu onak izaki, jauzi handi bat egin zuen alde batera; katua erne, eta bizkarra altxatuta, zer gerta ere.

–Ze arraio izan ote da hori? –galdetu zion harrituta bere buruari; erantzunik ez, ordea.

Mutikoa, badaezpada ere, arreta osoz hasi zen begiratzen hesi aldera, baina, arrastorik ere ez!; ez zuen deus berezirik ikusi. Sor eta lor gelditu zen. Baina, katu zaharrak, ordea, zer edo zer sumatuta, aurrera egin zuen, hesi aldera, eta Manex orduan ohartu zen zer zegoan han, alegia, musker handi eta lodi bat, haren bere-berezko kolore berde biziarekin, eta, buztana, luzea. Mutikoa, berriz ere karabina hartuta, berehalaxe hasi zen apuntatzen, baina, une hartan bertan, muskerrak baserritarraren begietara begiratu, eta, aurrean zeukan arriskua asmatu izan balu bezala, istantean lekutu zen handik, bere burua gordetzeko. Mutikoak, zur eta lur, segituan ulertu zuen han ez zeukala zeregin handirik eta aurrera jarraitu zuen zorte hobeagoren bila.

Minutu batzuk oinez eman eta gero, herriko ezkila dorrean ordua entzun eta orduan konturatu zen bazkalordurako denbora gutxi falta zela, horregatik, segidan, etxe alderako bidea hartu zuen. Halako batean, sastraka baten ertzean, ziraun bat ikusi zuen sigi-sagan, sasi barnera sartzen ari zena. Mutiltxoa, ziztu bizian, berriro ere kanoi motzeko fusil arina hartu eta apuntatzen hasi zitzaion; beste behin ere ez zuen porrotik jaso nahi. Baina, tiro egin behar izan zionerako, narrastia ia-ia ezkutatuta zegoen laharren artean; apenas isatsaren azken muturra ageri zen; hortaz, tiro egin eta bai, jo zuen, isatsean, hain zuzen ere. Baina, animalia narrastari honen ezaugarri bat zera da, isatsetik helduz gero, berehala hausten zaiola, eta, aldi hartan ere berdin gertatu zen, hots, balinaren talkarekin buztana puskatu eta segituan dantzan hasi zen, gelditu gabe, jauzika, kirioen eraginez-edo. Katu zaharrak, janari ahogozagarri hura mugimenduan ikusi bezain laster, salto eginda harrapatu, ahoan sartu, eta, mauka-mauka, berehalaxe irentsi zuen. A zer pagotxa eguerdi hartakoa, katu beteranoarentzat!, lehenik, sugandilarekin, eta, gero, ziraun pintxoarekin!

Bueno, bada, gauzak horrela, eta, jadanik, baserritik hurbil zeudela, momentu hartan katu zaharra Manexen aurrean zihoan, etxera iristeko presarengatik edo auskalo zergatik, baina, langa baten ondora ailegatzear zirenean, bat-batean, katua bidezidorraren erdi-erdian gelditu eta bizkar osoa altxatu zuen, ileak tente-potente jarrita; lurrean itsatsita bezala, bidexkaren bi aldeetako belar handien artean. Mutikoa harritu egin zen.

–Tira, ba, mugitu, katua! Segi hortik aurrera! Ez izan astuna eta kendu paretik, demonio petrala! –oihu egin zion, aho bete hortz eta haserretzen hasita, ikusirik ez zela higitzen.

Baina katuak kasurik ez eta ibili nahi ere ez, ordea; hantxe zirauen irmoki. Manex urduritzen hasita zegoen, bazkaltzeko ordua iristen ari zelako. Azkenean, baina, hanka batekin katu zaharra bultzatu eta aurrerantz bota zuen, haren nahiaren aurka. Baina, une hartan, ordea, zerbait larri gertatu zen hantxe, hau da, katua aurrera joaterakoan jauzi bat egin zuen, baina, hala eta guztiz ere, sugegorri handi batek heldu eta pozoia injektatu zion gorputzean animalia txikiari.

–Puf! Miau! –oihukatu zuen lauoinekoak, putz eta purrustada bana egin ondoren, eta, jarraian, ziztu bizian atera zen iheska baserri aldera, ezkutatzera.

Mutikoa izugarri ikaratu zen sugegorri luze eta potolo hura hantxe ikusita, bere ondo- ondoan. Izerdi hotz batek, aida batean gorputz osoa zeharkatu zion, eta, segituan, Agustin morroiaren kasua etorri zitzaion burura. Nonbait, narrastia kiribilduta egonen zen bidezidor erdian, katuaren aurrean, bere burua defendatzeko prest, behar izanez gero, eta, huraxe da, hain zuzen ere, gertatu zena.

Manexek erreakzionatu ordurako, narrastaria zeharo aienatu zen hesian; bere arrastorik ere ez zen gelditzen. Haiek horrela, Manexek bazkaltzera joatea deliberatu zuen, triste eta goibel. Badaezpada ere, mutikoak jauzi handi bat eginda zehartu zuen sugegorria zegoen tokia.

–Zer moduz ehizaldia, Manex? –galdetu zion amak sukaldean ikusi bezain azkar, beste deus ere jakin gabe.

–Ongi. Hainbestean... –erantzun zion semeak, kopetilun samar, beste inolako xehetasunik azaldu gabe; beretzat gorde zuen ezbeharraren sekretua.

Bazkalondoan, ordea, segidan ekin zion katu zaharraren bilaketari: ukuiluan, ganbaran, baratzean eta abarren, baina inon ere ez zuen haren arrastorik topatu. Oso atsekabetuta gelditu zen, baina, hala ere, ez zen animatu inori kontatzera katu zaharrarekin gertatu zitzaion zorigaitza; bere kolkoan gorde zuen dena, eta, hark egonezin handia sorrarazi zion barruan.

Egunak joan eta egunak etorri, azkenean aitak topatu zuen zoritxarreko katua, hilda, ganbarako belar onduaren artean, usteltzen hasia, alegia, goiko belarra ukuilura botatzera joan zenean, usain txarra aditu zuen koltxilaren ondoan, eta, hantxe topatu zuen animaliaren gorpua, belarraren barruan. Dirudienez, haraxe joanen zen, minaren minez, babes bila, pozoiak bere eragina egiten zuen bitartean.

Azkenik, berri txar hura jakin bezain azkar, Manexi burutik pasatu zitzaion, zer gertatuko ote zatekeen, katua bere aurrean garaiz geratu izan ez balitz, auskalo!, sugegorriak agian berari eginen zion hozka; ezin jakin. Puf, zer hozkia! Nahiago izan zuen horretan ez pentsatu. Nolanahi ere, katu zaharrarekin zorretan sentitu zen.

Manex eta behiak

Manex bizi zen baserriak, belar soroak hainbat lekutan zeuzkan: etxe ondoan, etxea baino gorago eta baita beherago ere. Hori dela eta, udan, belarra goiko euntzeetatik etxera eramaten zutenean, gurdia bete-beteta jartzen zuten, behiek, nola edo hala, erraz samar garraiatzen zutelako orga goitik behera, erdipurdiko balazten laguntzarekin, zama handia baldin bazeukan ere. Beheko belardietatik igotzerakoan, aldiz, gurdia gutxiago zamatzen zuten, behien lana, ahal zen neurrian behinik behin, pixka bat errazteko.

Baina bereziki bi belardi zituzten, bidean aparteko aldapa zeukatenak, trenbide ondoan. Beren baserritik beherantz jo eta aldameneko herrira iritsi baino lehenago zegoen burdinbide hura. Manexen garairako trena dagoeneko ez zebilen, baina aurreko hamarraldietan, bai, eta hantxe ibili ohi zen alde batetik bestera, jendea hiriburu batetik beste batera eramaten eta alderantziz.

Gauzak horrela, udako egun jakin batean, baserritar haiei trenbide ondoko belazeetako belarra etxeratzea egokitu zitzaien. Horretarako, ordurako belardian ama eta gainerako seme-alabak belarra prestatzen ari ziren, hau da, mailak egiten. Bitartean, etxe- aurreko larrainean, aita behiak uztarrian ari zen lotzen, Manexen konpainian, gero, gurdia hartuta, belarraren bila joateko. Mutikoak arreta handiz ikusten zuen aitak egiten zuen guztia, erne demonio; baita haren aginduak bete ere, beharrezkoa zenean.

Horrela, bada, lehendabizi uztarria behien burugainean jarri eta hedeak lotu zizkien aitak bi animaliei, Manexen laguntza pixka batekin. Uztarri gainean ardi-larrua paratu eta jarraian endaitza gurdi-hedean sartu zuten; kabila ezarri, estekatu eta aire!

Segituan mutikoa organ eseri eta arin-arin abiatu ziren etxeko gainerakoengana, aita behi parearen aurrean zihoala, belar ondua baserrira eramateko.

–Aida, behiak, aida! –esaten zien Manexek atzetik, eta–, toz, toz, ttattarrak, toz! –aitak aurretik.

Gauzak hala, bizi-bizi joan ziren laurak – aita, semea eta bi behiak– bidean aurrera, goitik behera, harri eta lur gainean. Gurdiaren gurpilak zurezkoak ziren osorik, ardatza kenduta, bukaeran burdinazko uztai bana zutenak. Horregatik, harri eta harkaitzen gainean karranka izugarria ateratzen zuten, batez ere, orga hutsik zihoanean. Gainera, gorago esan bezala, garai hartako gurdi haiek oraindik ez zuten balazta modernorik; ez zegoen asmatuta. Malda pikoetan jaisteko, gurdia oso zamatuta baldin bazegoen, egiten zutena zera zen, gurpiletako zulo batzuetatik kate bana pasatu eta aasean –gurdi-zubian– lotu, gurpilak geldiarazteko eta behien lana errazteko; hala, jakina, bi gurpilak arrastaka jaisten ziren.

Era hartan, bada, azkar samar iritsi ziren aldapa piko bateraino; kate-aldapa esaten zioten, zeren eta handik barna gurdia zamatuta jaisteko, gurpiletan kateak lotu behar izaten baitzituzten.

Kate-aldapa handi hura jaitsi bezain laster, hantxe topatu zuten aitak eta semeak garai bateko burdinbide zaharra, dagoeneko trenarekin erabiltzen ez zena. Trenbidea, han, lubaki luze eta eskerga batean zehar pasatzen zen, mendixken maldak saihesteko, hau da, han burdinbidea lañoagoa eta zelaiagoa izan zedin. Horren ondorioz, garai batean, trena hurbiltzen ari zenean,

kanpotik ez zen ia-ia batere entzuten bere soinua, bi aldeetako ezponda erraldoi haiek hots gehiena jaten zutelako; lubakia hantxe bertan hasten zen.

Hara iritsi eta aitak zera esan zion Manexi:

–Ba al dakik zer gertatu zitzaion behin batean, hementxe bertan, goiko baserriko Pellori?

–Ez! Ideiarik ere ez! Zer gertatu zitzaion, ba? –semeak, jakin-minez.

–Ba, egun batean, gu bezalaxe honaino iritsi zuan behiekin, uztarrian lotuta, eta, trenbidea gurutzatu baino lehen, badaezpada ere, behiei "uo!" esatea bururatu zitzaioan, burdinbidea ikusi baino lehen. Behiak bat- batean gelditu zituan gurdi eta guzti, eta eskerrak horrela gertatu zela, zeren eta behiak geratu bezain laster, trena pasatu baitzen ziztu bizian. Pellok ez omen zian deus ere entzun trenaren zarata, baina beharrik burutazio ona garaiz izan zuela, bestela, hantxe joanen zituan guztiak, pertsona eta animaliak, trenaren aurrean, hankaz gora eta muturrez aurrera. Uf, ederretik libratu ziren! –bukatu zuen aitak kontakizuna.

–Benetan? Hori guztia hementxe gertatu zen? –galdetu zion Manexek harrituta aitari.

–Bai, bai, entzun duan bezala-bezalaxe! – ziurtatu zion aitak.

Pasadizo hura kontatzen bukatu bezain agudo, aurrera jarraitu, belaira ailegatu eta familiako guztien artean, azkar samar zamatu zuten gurdia: batzuek sardeekin belarra orgara bota, aitak gainean ongi ezarri, beste batzuek belar hondarrak eskuareekin bildu eta Manexek behiei euliak uxatu. Denen artean gurdia ziztu batean bete zuten belarrez; gurdikada txikia, jakina, gero behiek egundoko aldapa hura igo behar zutelako. Azkenik, belarraren gainean, ezpatatik ezpatara gurdi-haga luzea jarri eta martxa.

Honenbestez, bada, aita, bi seme zaharrenak eta Manex baserri aldera abiatu ziren, belar hura ganbarara sartu eta berriz ere beste bidaia bat egiteko; beti bezala, mutiko gazteenaren eginkizuna behiei euli arruntak, ezparak, mandeuliak eta abar aienatzea zen. Gainerakoak euntzean gelditu ziren, hurrengo bidaiarako saralea atontzen. Bide batez, atseden egin eta edariren bat hartzeko ere ohitura izaten zuten tarte hartan.

Bien bitartean gurdia kate-aldapa pikoraino iritsi zen, trenbideko tarte osoa pasatu eta gero. Huraxe zen benetan une larria; hantxe frogatu beharko zuten denek beren trebetasuna: bi animaliek eta lau gizonezkoek.

Behiak maldaren hasieran jarri gora begira, aita haien aurrean gidatzeko, bi seme zaharrenak orgaren parean lauhankakoak akuilatzeko eta Manex, zer gerta ere, denen aurrean, arriskuak saihesteko.

–Toz, ttattarrak, toz! –esan zien aitak, akuiluarekin uztarri gainean jotzen zuen bitartean.

–Aida, behiak, aida! Segi aurrera! –bi semeek atzetik, behien ipurmasailak ziztatzen zituzten momentuan.

Behiek buruak jaitsi, muturrak aurreratu, gorputzak luzatu eta apatxak lurrean ongi sartu zituzten, indar handiago eta egokiago egiteko. Gurdia berehala hasi zen mugitzen eta aurrera joaten, aldapan gora. Gurpilek sekulako kirrinkak egiten zituzten harri eta harkaitzen gainean. Animaliek segituan ekin zioten izerdi patsa eta mingainak ateratzeari, ahalegin izugarriaren ondorioz, zeharo berotuta, “aida!”, “etorri!”, “segi!” eta “toz!” oihu ugari eta ozenen artean. Manex ere estu eta larri, berarentzat lehenengo aldia baitzen halako esperientzia bat bizi izaten ari zena; ikaratuta zegoen. Ez zekien nola bukatu behar zuen igoera larri hark, ongi ala gaizki; kezkatuta sentitzen zen.

Aldapa erdira iritsi zirenerako behiak erabat jota zeuden; neka-neka eginda. Horregatik aitak bi seme zaharrenei zera esan zien:

–Aizue!, egon zaitezte erne hagak gurpiletan sartzeko, behiak gelditzen direnean!

–Konforme! –esan zion zaharrenak.

–Ou, behiak, uo! –oihukatu zien orduan aitak animaliei, atseden har zezaten.

Bi semeek, lehenago han utzitako hagak, azkar demonio lurretik jaso eta berehala sartu zuten bana gurpil bakoitzean. Era hartan, gurdia balaztatuta gelditu eta ez zeukan arriskurik goitik behera, atzeraka joateko, eta, behiek, hain beharrezkoa zuten atsedena, hantxe hartu ahal izan zuten.

Minutu batzuen buruan, aitak ikusi zuenean uztarriko behiak pixka bat lehengoratu zirela, segidan eman zien jarraitzeko agindua. Semeek gurpiletako hagak atera, akuiluak hartu eta hitzetik hortzera berriz ere hasi ziren lauoinekoak akuilatzen eta eztenkatzen. Berriro ere kalbario hutsa izan zen behi gaixo haientzat, goraino iritsi arte, alegia, bero errea, izerdia, nekea, mihia kanpoan eta abar; penagarria! Infernu bat.

Behin goian, jada bidea horizontalean zegoenean, hantxe, bai, hantxe errazago hartu ahal izan zuten berriro ere atseden animaliek, minutu batzuez. Gero, handik aurrera, bideak ez zeukan aparteko zailtasunik, eta, hortaz, etxeraino aise ailegatu ziren denak.

Gorago esan bezala, denen artean belarra ganbarara sartu –Manexek euliak haizatu–, atseden pixka bat egin, ura edan eta berriz ere trenbideko belardi hartara, gurdikada gehiagoren bila. Esan beharra dago, beraien baserria malda baten aurka zegoela eraikita, eta, horren ondorioz, ganbarako atea kanpoko lurraren parean gelditzen zen; horrek asko errazten zuen lana, belarra orgatik ganbarara sartzeko momentuan.

Bi egunez ibili ziren era hartan, burdinbideko pentzeetako belar ondu guztia etxeratu arte. Pentsa dezagun, bada, zer- nolako tratua hartu zuten zoritxarreko bi behi haiek, egun pare hartan! Manex ere konturatuta eta arduraturik zegoen behi gaixo haien egoera latz harekin.

Zorionez, handik urte gutxira, Manexen aitak hitzarmen bat egin zuen ondoko baserritarrarekin, eta, harrezkero haren belaze batean zehar ibili ziren belarra eramaten etxera, behiekin; aldapa askoz ere etzanago eta samurragoa zen, eta, behiek ez zuten pasatu behar izan gehiago halako nekaldi eta supliziorik. Lasaitu ederra hartu zuten animalia haiek eta baita Manexek ere.

Manexen anaia bat

Manexen baserrian, ekainaren bukaera aldean oraindik belar onduaren bilketarekin jarraitzen zuten urte hartan. Gehiena baturik zeukaten ordurako, baina, zer edo zer, hala ere, falta zuten etxeratzeko.

Gauzak hala zeudela, arratsalde jakin batean jo eta su aritu ziren lanean familiako guztiak, goiko aldean zeukaten euntze batean. Ohiko moduan, bakoitza bere zereginetan aritu zen, hau da, hasiera batean denek belarra iraultzen jardun bazuten ere, geroago, belarra ongi ihartutakoan, batzuk mailak egiten hasi ziren, beste batzuk belarra gurdira botatzen, aita saralea organ ongi ezartzen, Manex behien euliak-eta uxatzen, ama askaria eta edariak eramaten eta abar.

Kontua zera da, lehenengo gurdia zamatutakoan, eta, aita, beti bezalaxe, bi semerik zaharrenekin eta Manexekin baserrirantz abiatu baino lehenago, belarra eramateko, erabaki zutela orduantxe bertan askaldu behar zutela han. Hori horrela, askaltzen bukatu bezain laster, Manexen anaia bat, jostalari eta oso txantxa zalea zena, berehalaxe hasi zen bihurrikeria batzuk egiten. Horretarako sarde bat hartu eta aldamenean zegoen inurritegi baten gainean jarri zen. Berriketan hasi, eta, denak berari begira zeudela ohartu zenean, zera esateari ekin zion ozenki:

–Sugea, sugea! Lagundu!

Beste guztiak, egia-egiatan ari zelakoan, kezkatu eta asaldatu egin ziren. Segituan hasi ziren jaikitzen eta berarengana joaten, laguntza emateko, baina iritsi baino lehen, anaia txantxa zale hark hara zer egin zuen, sardea altxatu eta bat-batean goitik behera kolpe batez jaitsi, sugeari sarde-hortzen bat sartzeko imintzioa eginez. Baina ustezko sugea jo beharrean, bere oinetako batean sartu zuen sardea, eskuineko zatan, alegia. Zeharkatu eta dena egin zuen sardearen hortz batek, zataren goma, baina, zorionez, behatz potolo eta luzearen artean sartu eta ez zion batere zauririk eragin.

Bera, bai, berehalaxe konturatu zen zer gertatu zitzaion, baina gainerako guztiak ez, ordea, eta hantxe joan zitzaizkion lasterka, estu eta larri, lagundu eta artatu nahian. Gainera, anaia bihurritxo hura honelaxe hasi zen oihuka, etxekoei ziria sartu nahian:

–Ai, ai, ai, ai! Hau mina! Lagundu! –plantak eginez eta oinaze ikaragarria balu bezalako itxurakeriak erakutsiz.

Hura entzunda, familiako guztiek are eta azkarrago jarraitu zuten oraindik lasterka mutilarengana,

laguntza eman nahian.

Baina iritsi bezain agudo, guztiak ohartu ziren dena antzerki hutsa izan zela, gezurra, alegia.

–Kar-kar-kar! Inozenteak! Dena sinistu duzue, demonio txoroak! –hasi zitzaien anaia hura etxekoei barre algaraka, kar-kar eta kar- kar oilo baten antzera.

Sendikoei bat-batean aurpegien itxura aldatu zitzaien; lehengo seriotasun eta larritasuna orain haserre bizia bihurtu zitzaizkien.

–Ergela, ez bestea! Baina hi ganbaratik ongi al hago? Hoa antzarak ferratzera, motel! – hasi zitzaizkion segituan etxekoak, kolera handian, ikusita zer ziri sartu zien.

Dena den, handik gutxira, anaia hura hara non hasi zen hitzetik hortzera jauzika eta lasterka, bakerik gabe. Zer gertatuko eta, bitartean, bera ohartu orduko, inurritegiko txindurri gorri gaizto mordo handi bat hanketatik gora joan zitzaion, galtzen gainetik eta barrutik; batzuk lepo eta bururaino ere aida batean iritsi zitzaizkion. Hozkada bat edo beste ere, berandu baino lehen hasi zen sumatzen gorputzaren leku batean baino gehiagotan.

–Aluak! Madarikatuak! –oihukatu eta lasterrean hasi zen, animaliatxo amorragarri haiek pixka bat menderatu bitartean.

Azkenean familiakoek hantxe bukatu zuten denek, adarjotzaileari adarra jotzen.

–Kar-kar-kar! Oilobustia halakoa! –bota zion batek.

–Koldar alaena! Ijiji, ai ene! –beste batek.

–Beldurtia, ez bestea! –esan zion azkenak, algaraz eta karkailaz.

Hara!, berriz ere odolkiak ordainetan!

Manex eta hondartza

Manexen baserrian, urte hartan, sanferminak baino lehentxeago bukatu zituzten lehendabiziko belarren lanak, hau da, hazitako lehen belarrak ebakita, onduta eta etxeratuta zeuden, ganbaran; batzuk, ordea, etxe ondoan, belar-metatan jarriak zeuzkaten. Geroago bigarrenak iritsiko ziren, batez ere euria egiten bazuen.

Horiek horrela, baserriko gurasoek, nola edo hala, lanak aurreratu izana ospatzeko, egun batean hondartzara joatea erabaki zuten. Hala ere, familian zortzi lagun ziren eta denak joatea zaila eta garestia izanen zelakoan, bi seme gazteenekin joatea deliberatu zuten. Beste lau seme-alabak etxean geldituko ziren, nahi zutena egiten eta azienda pixka bat gobernatzen. Hasieran ez ziren batere ados egon erabaki harekin, beraiek ere joan nahi zutelako, eta protestak ez ziren inola ere gutxi eta txikiak izan, baina gurasoek hainbat eta hainbat azalpen eta arrazoi eman ondoren, badirudi azkenean ongi samar onartu zutela gurasoen ebazpena. Horretan ere amak laguntza handia eman zien, aldez aurretik bazkaria prest utziko zielako, eta, era hartan, ez zuten ibili beharko jatordu hura behintzat atontzen.

Horrenbestez eguna iritsi zenean, amak, goiz jaiki, eta denen bazkariak prestatu zituen, alegia, baserrian geldituko ziren lau haientzakoak eta baita hondartzara joan behar zuten beste laurentzakoak ere. Gauzak hala, hondartzarako hartu beharreko arropa guztiak, bazkaria eta dirua aldean jasota, ondoko herrira jaitsi ziren laurak –gurasoak eta bi seme gazteenak–, oinez, bide aldapatsu eta kaxkar hartan barna, hantxe, herri hartan, taxi bat alokatzeko.

Taxilaria gurasoen ezaguna zen. Aldez aurretik hitzartuta zeukaten egun hartako plan guztia, eta, ondorioz, dena oso azkar eta ongi joan zen; aurreikusita zegoen bezala.

–Zer, mutikoak, hondartzara joateko irrikan, ala? –galdetu zien taxilariak mutiltxoei, behin auto barruan egon eta gero.

–Bai, jakina! Oso gustura, gainera! Guk oraindik ez dugu inoiz itsasoa ikusi eta gogo handia daukagu –erantzun zion Manexen anaiak irribarre zabala erakutsiz.

Kontuan hartu behar da, beraien baserrian oraindik telebistarik gabe jarraitzen zutela, eta, zerbait ikustekotan, agian, argazki edo libururen batean ikusiko zuten itsasoa, gehiagorik ez. Hortaz, inondik inora ere ez zeukaten oso argi nolakoa zen itsaso izeneko gauza handi hura.

Hala, bada, hizketa hura bukatu bezain azkar abiatu ziren bostak itsaso aldera, ziztu bizian, denbora gehiagorik alferrik eman gabe. Bidean, denek hitz eta pitz jarraitu zuten gidariarekin, beraien pozaren erakusgarri, seguru asko, harik eta Manexek, halako batean, rau!, harriduraren harriduraz honako hauxe oihukatu zuen arte:

–Hara! Begira, begira ezazue zeinen ibai handia dagoen hor! –mutikoak, sor eta lor.

Izan ere, une hartan Tolosan barrena pasatzen ari ziren eta han ikusitako erraldoi hura, Oria ibaia zen, hain zuzen ere. Manex eta beste anaia, baserri inguruko errekak eta errekastoak zeuden ohituta ikustera, eta, arrazoi horrexegatik Oria ibaiak sorrarazi zien halako txundidura.

–Ba, ikusiko duk gero zeinen ibai handia agertu behar zaigun hondartza ondoan, Manex! – bota zion taxilariak adarra jo nahian.

Horiek horrela, Oria ibaia atzean utzi eta beste solasaldi batzuk egin ondoren, azkenean, mutikoek hain desiratua zuten hondartza parera iritsi ziren.

–Ooooo!, a zer-nolako hondar pila dagoen!

–Manexek, erdi estasiatuta.

–Hara!, eta zenbat ur itsasoan! Zeinen zabala den! –era berean anaiak.

Haiek hala, bi mutikoen lehen harridura egoera hartatik errealitatera etorri eta gero, autoa aparkatu, beribiletik atera, hondartzarako gauzak eta janaria hartu, eta itsaso aldera abiatu ziren denak, taxilaria izan ezik. Hitzartuta zeukaten bezalaxe, gidaria bere gisara ibiliko zen itzultzeko ordua iritsi arte; arratsera arte, alegia. Hortaz, elkar agurtu eta bakoitzak bere martxa hartu zuen.

Behin Kontxa hondartzan eroso kokatu bezain laster, arropa gehienak erantzi eta mutikoak ziztu bizian hasi ziren hondarrarekin jostaketan: orain zuloak egin, orain zuloak estali; orain lasterka hasi, orain gelditu; batek bestea harrapatu eta bultzada batez lurrera bota, gero alderantziz; geroxeago olatuen aldera joan eta oinak haietan sartu eta abar. Gerriraino, soil-soilik gurasoen arretapean sartu ziren; gehiago ez ziren murgildu ez zekitelako igeri egiten, baina erdi flotatze haren sentsazioak gogotik gustatu zitzaizkien, eta, beraz, era hartan jarraitu zuten bazkaltzeko ordua iritsi zen arte.

Eguraldia eguzkitsu eta bero zegoen. Hainbeste mugimendu egindakoan, Manex eta anaia zeharo gosetuta zeuden. Hortaz, gurasoen ondoan, lurrean eseri eta amak baserrian prestatutako bazkaritik oso gustura jan zuten laurek; horrela merkeago gurasoentzat. Garai hartan, gauza guztietan saiatu behar izaten zuten dirua aurrezten, beraiek ez baitziren aberatsak.

Bazkalondoan, mutikoak hondarraren gainean etzan ziren, geldialdian egon eta atseden hartzeko; gurasoek, ordea, eserita jarraitu zuten, digestioa egiteko.

Ezinbesteko atsedena egin bezain agudo, baina, mutikoak berriro goizean bezalaxe aritu ziren, txindurrien modu bertsuan, aurrera, atzera, ezker-eskuin, gora, behera, uretara sartu, handik atera, busti, lehortu, lasterka hara, korrika hona, eta bat eta beste.

Azkenean, noizbait hiperaktibitate frenetiko harekin pixka bat nekatu eta aspertu zirenean, gurasoen ondora hurbildu, baretu, eta gelditu egin ziren. Handik gutxira, eguzkia jadanik Igeldo aldean behe samarrean ikusten zenean, mutikoek gorputzeko hondarra astindu, arropak jantzi eta martxa egiteko prest zeuden. Orduan aitak, denen ustekaberako zera galdetu zuen:

–Aizue, mutikoak, nahi al duzue izozki bana?

–Izozki bana? Bai, noski! –Manexek, pozak txoratzen.

–Baaaai, bai, bai, jakina! –anaiak irribarrez, lerdea zeriola.

–Tira, ba, goazen! –ebatzi zuen aitak.

Bueno, bada, gurasoak eta bi seme gazteenak, aida batean iritsi ziren italiarren dendara. Han, norberak bere gustuko izozkia aukeratu, jaso, eta, aitak ordaindu ondoren, Bulebar izeneko hiribidera joan ziren laurak tipi-tapa, hango banku batean eserita, lasai- lasai miazkatuz, jatera eta gozatzera.

Hura bukatutakoan, ama segituan ohartu zen, taxilariarekin jarritako hitzordua berehalaxe zutela, han, hurbil-hurbilean, Donostiako Udaletxe aurrean. Luzamendutan ibili gabe, istant batean iritsi ziren laurak jarritako topalekura. Taxilaria ere handik oso gutxira agertu zen; hitzeko pertsona zela argi eta garbi erakutsi zuen.

–Eup!, hementxe naukazue, ba! –agurtu zituen baserritarrak.

–Hepa Martin, hemen al hago dagoeneko? – itzuli zion aitak.

–Bai, jauna! Eta osorik, gainera! –Martinek, umore onean.

–Bueno, eta zer moduz ibili haiz, ba, hiriburu handi honetan? Ongi bazkaldu al duk? – galdetu zion aitak, hizpidea emateagatik.

–Bai, primeran! Hortxe bertan, Parte Zaharrean; oso gustura.

Elkarrizketa bukatu, eta, behin gauza eta pertsona guztiak auto barrura sartuta, segidan abiatu ziren bostak baserri aldera; orain alderantzizko bidaia, hondartza, itsasoa eta hiriburua agurtu eta gora aldera. Itzulerako bidaia lasaiagoa eta patxadatsuagoa izan zen, goizekoarekin alderatuta. Denak sentitzen ziren nekatuta, baina, batez ere bi mutikoak esan liteke abail-abail eginda zeudela. Helduek, tarteka-marteka izan zuten elkarrizketa bat edo beste, baina txikienak alde-aldean isilik joan ziren bide gehienean.

Beraien baserri ondoko herrira iritsitakoan, autotik atera, gauza guztiak hartu, aitak taxilariari ordaindu eta elkar agurtu zuten.

–Bueno, Martin, ongi segi eta egon bizkor! – amak, denen izenean.

–Bai, eskerrik asko eta gauza bera zuentzat! –gidariak, eskuarekin keinu bat eginez.

Berriz ere etxeko aldapa gorari ekin behar lau bordariek, bide ziztrin eta kaxkar hartan barna. Eskerrak behintzat ilargi ederra zegoela hobeki ikusi eta errazago ibili ahal izateko! Baina etxe ondoan zihoazela, ordea, Manexek hauxe bota zion ziplo amari:

–Arraioa, ama, ez dakit zer dudan, baina gorputz osoan hasi naiz sumatzen egundoko erresumina! –mutikoak, kexati.

–Jo, ba, nik ere erremin ikaragarria nabaritzen dut soinean, besoetan eta hanketan! Arraiopola! – anaiak, deseroso.

–Trankil, trankil!, etxera ailegatu eta berehalaxe ikusiko diagu zer duzuen hor! – saiatu zen ama semeak lasaitzen, nahiz eta berak bazeukan bere susmoa.

Jesus batean baserrira iritsi, barrura sartu eta arropa altxatzeko eskatu zien amak mutikoei.

–Ooooo! Jesus ene bada! –deiadar egin zuen amak, ikaratuta–, gorri-gorri zaudete eta! Ea zer egiten dugun orain! –zoritxarrez, amaren errezeloa egia zen, karramarro egosiak bezain gorri baitzeuden–. Bai, zerbait jarri beharko dizuet hor. Zatozte nirekin!

Izan ere, bi mutiko haiek, egun hartan, ordu asko eta asko eman zituzten hondartzan arropa gutxi jantzita, eta orain haren ondorioak nabarmenak ziren. Garai hartan, eguzkiarekin ez zen ibiltzen gaur bezala. Bere erradiazioetatik babesteko, arropa dezente janzten zuten eta kito! Gainera, eguzkiak belztutako pertsonak ere gaizki samar ikusiak omen zeuden, baserritarrak, artzainak, arrantzaleak eta abar zirelakoan, hau da, jende txiroa, diru gutxikoak. Horrexegatik, sasoi hartan, baserrietan, normalena izaten zen inolako eguzkitako kremarik ez egotea. Hortaz, bada, amak, sukaldean irudimena martxan jarri eta ahal izan zuen moduan, saiatu behar izan zuen ukenduren bat egiten: olioa, ozpina, irina eta beste osagairen bat gehiago hartuta, berehalaxe egin zuen ore koipetsu bat, semerik gazteenei soinetan jartzeko; etxeko sendagaia, alegia.

Manexi eta anaiari bi gau eta bi egun latz samarrak pasatzea egokitu zitzaien aldi hartan; nekez ahaztuko zuten bizitza osoan, hondartzako lehendabiziko egun hura. Gozatu, bai, gogotik gozatu zuten itsasertzean hasiera batean, baina, gero, hurrengo bi egunetan gutxienez, galanki ordaindu behar izan zituzten haren ondoreak. Gauez, batez ere, ohatzean, jasangaitzak ziren erreduren suminak; maindireak ukitze hutsak enbarazu handia egiten baitzien, eta loa galarazi. Egunez ezberdina zen, azken batean, egunean zehar hamaika gauzarekin entretenitu eta aritu ahal ziren, baina, gauez, ez.

Azkenean, kalbario-egun batzuk igarotakoan, larruazalaren eragozpenak pixkanaka-pixkanaka joan zitzaizkien desagertzen, baina baita huraxe bera ere galtzen, alegia, azkenerako ia larruazal guztia ere bota eta galdu egin baitzuten; azpian berria atera zitzaien, sugeei bezala.

Uda hartan, Manexek eta anaiak ongi samar ikasi zituzten eguzkiaren onurak eta arriskuak, baina larrutik ordainduta; zerbait, behintzat, bada.

Manex eta oilarra

Uztailaren erdialdean, hondartzako gorabehera desatsegin hura pasatu eta gainditu ondoren, Manex arratsalde batean, karabina aldean hartuta, hantxe zihoan galtza eta mahuka motxak jantzita gora aldera, Pelloren baserriko eremu hartara, zer ikus eta zer suma. Larrainera iritsi baino lehen, zozo beltz bat ikusi zuen baserri atzeko aldera joaten, iheska. Larrain parera ailegatu eta han Pello topatu zuen, zer edo zer egiten.

–Kontxo, Manex, arratsalde on! Ze habil hemen orduotan? –galdetu zion baserritarrak modu atseginean.

–Ni? Hementxe, ehizan. Edo saiatzen behintzat –mutikoaren erantzuna.

–Bai?, ba, arestian zozo bat ikusi diat pasatzen horra, etxeko atzealdera –kontatu zion gizonak.

–Bai, nik ere ikusi dut, eta, horixe galdetu nahi nizun, hain zuzen ere, Pello, ea utziko zenidan barrura sartzen, harrapatzen saiatzeko – eskatu zion ehiztari gaztetxoak.

–Bai, motel, bai, sar hadi lasai eta ea harrapatzen duan! – esan zion auzoko gizonak, sega ingudean pikatzen zuen bitartean.

Pellorekin harreman ona zeukaten Manexen familiakoek eta horrexegatik, inolako eragozpenik jarri gabe, utzi zion sartzen beren soro aldera.

Manexek gustura asko aprobetxatu zuen aukera hura eta berehalaxe zeharkatu zuen han zegoen langa, barrurantz joateko. Baserri haren atzeko aldean hormatxoriak, oiloak eta abar zebiltzan, baina mutikoa zozoaren atzetik zihoan eta gainerakoei ez zien kasu handirik egin. Bila eta bila ibili ondoren, azkenean zozoa hantxe ikusi zuen, hesi bateko adar batzuen artean. Presaka, zozoak hanka egin ziezaion baino lehen, karabina hartu, apuntatu eta tiro egin zion urduri samar; ez zuen jo. Baina, bat- batean, inola ere espero ez zuena gertatu zen, hara: tiroaren zaratarekin nonbait oilarra (Manexek ikusi ez zuena) izutu, eta, oiloak babesteagatik edo auskalo zergatik, baina kontua da mutikoaren gainera egin zuela jauzi, beso batera. Besoan mokokada indartsu bat eman zion, eta, bide batez, azkazal eta ezproiarekin urratu ugari egin.

Ustekabeko gertaera haren aurrean, Manexek erreakzionatu zuen pauso bat atzera eginez. Han, atzean, belar luze eta zakar batzuk baino ez ziren ikusten, baina haien atzean, ordea, zulo handi bat zegoen, mutikoak ez zekiena, konketa erraldoi baten tankerakoa, eta, noski, gaztetxoa hantxe joan zen hankaz gora karabina eta guzti. Lurrera iristean kolpe bat bizkarrean hartu zuen, beste bat buruan, eta, azkenik, bularrean beste bat, karabinak emanda, gainera erori eta gero.

Panorama hura ikusita, baserritar gazteak handik ahalik eta azkarrena alde egitea erabaki zuen. Horretarako aida batean jaiki, kanoi motzeko fusil arina jaso eta ziztu batean atera zen konketa itxurako zulo madarikatu hartatik, baina, konturatzerako, hankak, lepoa eta besoak ziztadaz eta erresuminez beterik zituen, izan ere, zulo malapartatu hura laharrez asunez josita zegoen.

–Arranopola! Hau ere niri suertatu behar! Asunak, laharrak eta ostiak ere! –bota zituen amorru

bizian bere baitan.

Oilarra bere haremarekin hantxe utzi eta segituan egin zuen hanka handik, aldarte ozpinduan. Langaraino iritsi, gurutzatu eta hantxe egin zuen topo berriz ere Pellorekin, larrainean.

–Kontxo, Manex! Hemen al haiz berriro ere?

–Bai. Halaxe da. –Mutikoak modu lehorrean.

–Eta, ongi joan al zaik, ba, ehiza? – gizonak.

–Bai, bikain! –gaztetxoak, kopetilun.

–A!, Bai? Eta zenbat bota dituk, ba? – auzokoak.

–Bota, bota?, bat bakarra, nire burua, alegia, baina harrapatu?, harrapatu sei gutxienez! –Manexek, nazkatuta.

–Harrapatu, sei gutxienez? Ez duk egia izanen! Eta oraindik ez al hago pozik? –galdetu zion Pellok–. Ea!, erakutsi, ba, ze harrapatu duan! –eskatu zion baserritarrak nahiko harrituta.

–Bai, bai, begira ongi, Pello! –mutikoak koleraturik, eta esku batekin erakutsiz–. Buruan kolpe bat, bizkarrean beste bat, paparrean hirugarrena, beso honetan mokokada bat eta hamaika harramazka, eta, bukatzeko, hanketan, lepoan eta besoetan laharren eta asunen igurtziak eta ferekak! Ze, Pello, ze iruditzen zaizu? Nahikoa? –eta Manexek jarraian alde egin zuen handik, purrustaka eta biraoka.

Pellok orduan ulertu zuen gutxi gorabehera Manexi gertatu zitzaiona eta honelaxe agurtu zuen zorigaiztoko mutikoa:

–Ai, Manex, Manex!, ehizan egin nahi eta punteriarik ez!

Manex eta garrafoiak

Uztailaren bukaera aldean, belarrak sartuta ere, horrek ez zuen esan nahi baserrian lan guztiak bukatzen zirela, ez, alorretan, baratzean eta mendian ere beti izaten zen lan bat edo beste. Esate baterako, egun haietan jo eta su ari ziren gariarekin, banabarrekin eta babekin, besteak beste.

Egun batean, goiz osoan, etxeko denak baratzean eta alorretan aritu ziren zer edo zer egiten, batzuk, zeregin batzuetan eta beste batzuk, beste batzuetan. Ama eta alaba bakarra, baita bazkaria prestatzen ere, tarteka- marteka. Gauzak hala, jatordu nagusia iritsi zenean, denak sukaldean elkartu eta gustura bazkaldu zuten elkarren arrimuan, emakumezkoek atondutako bazkari gustagarria.

Udako egun eguzkitsu eta bero haietan, baserri hartan ohitura handia zuten, bazkalondoko kuluxka, etxe ondoko sagastiko zuhaitzen azpian egitekoa. Hori horrela, egun hartan, bazkaldu ondoren Manexek ere zamar handi eta zahar bat hartu eta hantxe joan zen, sagastiko maldatxo batean etzatera. Zamarra gainean jarri eta gozoro egin zuen bere atsedenaldia, aitak lanerako berriz ere, goizean bezalaxe, deialdia egin zuen arte. Orduan, alferkeria dezenterekin izan baldin bazen ere, mutikoa jaiki, zamarra etxean utzi eta gainerakoekin batera lanera joan zen, jakina, lana bere neurri eta tamainan egiten zuen, beti bezala, baina han ez zen inor libratzen lan egitetik: jorratzea zela, ebakitzea zela, biltzea zela, denek zer edo zer egin behar izaten zuten, auzolanean bezalaxe.

Horrenbestez, arratsalde hartako lanaldia bukatu zutenean, Manexi iruditu zitzaion afari-meriendarako oraindik denbora dezente falta zela, eta, hori dela eta, ganbarako eskaileretara joatea erabaki zuen, gose eta egarri sentitzen zelako. Izan ere, arratsalde hartan denek gogotik jardun zuten lanean, eta, Manexek, behinik behin, zulo galanta sumatzen zuen bere urdailean. Hori horrela, eta familiako gainerako guztiak, kanpoko sagarrondoen azpian, itzal goxoan, freskotasun ederra hartzen gelditu ziren bitartean, mutikoak sukaldera joan eta isil-isilik, inor ohartu gabe, labana zorrotz bat hartzeko aprobetxatu zuen. Jarraian, gorago esan bezala, handik ganbarako eskaileretara jo zuen, eskailburuan urdaiazpikoa eta ardoa edukitzen zituztelako ia-ia beti.

Hara iritsi eta kontu handiz, lehenik eta behin urdaiazpikoari ekin zion, alegia, eskailera buruko horman zintzilik zegoenari, labanarekin xerra txiki batzuk eginez, ardura oso handiz, badaezpada ere, jakina, behatzik ez ebakitzeko. Xerra batzuk egindakoan, eskaileretako maila batean eseri eta banaka-banaka hasi zen jaten, poliki-poliki, begiak itxita, zaporea hobeki dastatzeko.

–Uuuuuum! Zeinen goxoa! –pentsatu zuen bere baitan.

Baina xerra haiek jaten bukatutakoan, sabelean oraindik ere gose pixka bat sumatu zuenez gero, eskailburuan zutitu eta berriro ere ekin zion beste batzuk egiteari. Bigarrena mozten ari zenean, ordea, ahalegin bizi hartan, bat-batean labana pixka bat joan egin zitzaion bere lekutik. Beste eskuraino iritsi zitzaion irristatuta eta segituan nabaritu zuen larruazalean zerbait.

–Mila deabru! Madarikatua! –esan zuen bere baitarako Manexek estu eta larri.

Berehalaxe begiratu eta aztertu zuen eskua, baina, zorionez, ebaki txikitxo bat baino ez zen izan. Ezpainekin zauria pixka batean xurgatu eta odolak berehalaxe utzi zion jariatzeari; lasaitu ederra hartu zuen gizajoak!

Gauzak hala, baretu bezain laster, mutikoak xerra txikiak egiten jarraitu zuen inoiz baino arreta handiagorekin; hiru gehiago egin eta nahiko izanen zituela iritzita, labana utzi, eskaileretan eseri eta berriz ere jarraitu zuen gozo-gozo jaten, astiro-astiro, banaka, zaporearen azken molekularaino iristeko.

Gero, hainbeste urdaiazpiko jandakoan, egarri izugarri handia sumatu zuen mingain eta zintzurrean, horrexegatik buruan berehala piztu zitzaion bonbilla argi bat, hots, eskailera hartan beti hiru garrafoi ardo edukitzen zituzten gordeta, leku hozkirrixeagoa zelakoan. Haietatik edan ahalko zuela begitandu zitzaion. Batekin saiatu, baina erabat beteta zegoen eta ezin izan zuen altxatu. Bigarrenarekin probatu, eta berdin, pisu handia zeukan eta ezin izan zuen jaso. Ea zer gertatzen zen hirugarrenarekin. Hurbildu, hartu eta berehala ohartu zen oso pisu arina zeukala. Gehiena hutsik zegoen; hondar batzuk gelditzen ziren, besterik ez. Kortxoa atera, eskuekin helduta probatu, eta, bai, hura aida batean paparreraino igo zuen, harri jasotzailerik hoberenek bezala. Garrafoia hantxe zeukala, muturra aho aldera bideratu, gehixeago altxatu eta zanga-zanga aritu zen oso gustura edaten.

–Oooo! Ze ongi sartzen den! Zeinen gozoa, eta nola kentzen duen egarria gainera! –berriz ere esan zion bere buruari.

Hainbat segundo igaro eta gero, hurrup eta zurrut ugari irentsi ondoren, noizbait aski zuela iruditu eta edateari utzi zion. Garrafoia jaitsi, kortxoa sartzen saiatu eta bere lekuan utzi zuen txukun asko. Baina, hala ere, kortxoa sartzea ez zen batere erraza, indar handia egin behar baitzen, eta Manexek ez zeukan horrenbesterako kemenik, horrexegatik tapoia gaizki sartuta utzi zuen.

Geroago, hainbeste jan eta edan ondoren, logale eta abaildura ikaragarriak sumatu zituen hitzetik hortzera. Hantxe bertan, eskaileretako maila batean eseri, ezti-ezti uzkurtu eta luzaro baino lehen lozorroan gelditu zen, irribarretsu eta zoriontsu; aingerutxoa ematen zuen.

Bitartean, familiako gainerako guztiak afari-merienda prestatzen ari ziren jo eta ke, batzuk sukaldean eta besteak sagardian. Izan ere, baserri hartan, udako egun luze eta sargori haietan, ohitura luzea zeukaten kanpoan egiteko afari-merienda, hau da, sagarrondo batzuen azpian, itzalean, ilunabarreko hozkirrian; arrunt gustura. Denak lurrean eseri, zartagin handi bat erdi-erdian kokatu (ordurako zartaginaren lekuan belarra erreta zegoen, sukaldeko tresna hura hainbeste aldiz hantxe bero-bero jarri izanagatik) eta amak handik banatzen zituen jaki goxoak: arrautza frijituak, urdaia, urdaiazpikoa, txistorra, tomate frijitua eta abar, egokitzen zen arabera.

Baina ilunabar hartan, denak soropilaren gainean eserita eta jaten hasteko prest zeudenean, hara non ohartu ziren Manex falta zela.

–Manex falta da, ama! –seme batek.

–Manex falta dela? –amak harrituta.

–Bai! Hemen behintzat ez dago! –beste seme batek.

–Tira, ba, bilatu eta esan berehalaxe etortzeko, afari-merienda hartzen hasi behar dugu eta! –agindu zien amak.

Hala ere, mutikoa bilatu eta bilatu bai, baina agertu ez; arrastorik ere ez. Baratzean ez, ukuiluan ere ez, ezta baserri inguruan ere, bizitetxean ere aztarnarik ez. Azkenean, norbaiti ganbarara igotzea bururatu eta hantxe topatu zuen, eskaileran eserita, lo seko.
–Tira, Manex, mugitu! Denok hire zain gaudek eta! –oihukatu zion anaia batek presaka.

–Baina, baina!, ze gertatzen da hemen? – Manexek harrituta eta nahastuta, non zegoen ere ez zekiela; zeharo asaldatuta eta erdi lo.

–Afaltzera joan behar dugula, motel! Altxa eta goazemak! –anaiak.

–Baina nik ez diat batere goserik, e! Bete- beteta nagok!; enpo eginda! –mutikoak.

–Eta hori, nola, ba? –anaiak zur eta lur.

–Begira ezak horra! – eta mutikoak urdaiazpikoa seinalatu zion behatz erakuslearekin.

Manexek, eskaileran eserita, nagiak botatzen eta esnatu nahian jarraitzen zuen, besoak luzatuz eta zabalduz. Begiak ere orduantxe ari zen irekitzen edota irekitzeko desiratzen, behinik behin. Anaiak orduan Manexen begiei erreparatu eta gorri-gorriak ikusi zizkion; Olentzero begigorri zirudien. Berandu baino lehen ere ohartu zen hantxe zeudela hiru garrafoi haiek, eta, gainera, batek kortxoa gaizki sartuta zeukan. Anaiak ez zuen azalpen gehiagorik behar izan, ulertzeko Manex pixka bat berdoztuta zegoela, alegia, erdi txolinduta.

Gauzak hala, eta zer gerta ere, anaiak badaezpada ere, segituan erabaki zuen konplizitatearekin jokatzea Manexekiko, zigortu ez zezaten.

Horiek horrela, jesus batean zutik jartzen lagundu eta isil-isilik bere ohatzeraino eraman zuen, inork ikusi gabe.

–Tira, mugi! Hi azkar-azkar sar hadi ohean eta hor gelditu! Ni afaltzera noak –agindu zion anaiak.

–Eta nitaz zer esan behar diek familiakoei? – Manexek kezkatuta.

–Lasai!, utzi hori nire esku! –anaiak erantzun–. Zer edo zer bururatuko zaidak eta.

Manex ohatzean sartuta utzi eta gero, anaia sagastira itzuli zen, familiako gainerakoengana.

–Trankil, e!, Manex ohatzean topatu dut. Gorputzaldi txarra omen zeukan eta horregatik oheratu omen da, baina, orain, dagoeneko hobeki omen dago. Guk lasai afaltzeko, esan du – kontatu zien anaia gaizkide hark.

Ilunabar hartan, behintzat, Manex ongi libratu zen balizko zigor batetik, anaia baten laguntza ordainezinari esker.

Manex eta gaztak

Ardoarekin izandako ezbehar txiki hura igaro eta handik bi egunetara, beste gertaera askoz ere atseginago bat pasatu zitzaion gure mutikoari, alegia, arratsalde erdian-edo, baserri aurreko lizardian jostaketan ari zenean, hara non, bat-batean, herriko artzain bat agertu eta honelaxe mintzatu zitzaion:

–Eup, Manex! Ze moduz?

–Hepa, Sabino, ongi eta zu?

–Ongi, ongi esan beharko diagu. Begira, Manex, hementxe opari txiki bat dakarkiat, gaztatxo hau, gure ardiak zuen baserritik aurrera pasatzen utzi ez izanagatik. To!, har ezak lasai gazta txiki hau! –eta Sabinok oparia eman ondoren, honela jarraitu zuen–. Eta jakin ezak gauza bat, hau duk, berdin segitzen baldin baduk, negua baino lehen beste opari hobeago bat izanen duk. Hik badakik, hemen ikusten baduk gure artaldea, ez utzi pasatzen eta beti bidali herri aldera; konforme? Ongi ulertu al duk? –bukatu zuen artzainak bere azalpena.

–Bai, bai, Sabino, oso ongi ulertu ere!; kontuan hartuko dut! –erantzun zion baserritarrak–. A!, eta mila esker gaztarengatik, e? Estimatuta dago!

Gauzak horrela, Manex pozaren pozez segituan joan zen etxera, gertatutako guztia kontatzera, eta, bide batez, gazta erakustera.

Gurasoek, hura entzundakoan, harritu eta honako hauxe galdetu zioten:

–Baina hik noiz bidali dituk, ba, Sabinoren ardiak herri alderantz? Ba al hekien horixe nahi zuela? Inoiz eskatu al dik holakorik?

–Ba, nik dakidanez, behintzat, ez dut inoiz horrelakorik egin, eta gogoratu ere ez dut gogoratzen behin ere niri eskatu izana – erantzun zien semeak.

Gurasoek orduan ulertu zuten Sabino artzain buruargiaren trikimailua, alegia, opari haren trukean nahi zuena zen, Manexek haren artaldea ez uztea igarotzen handik aurrera, horrela berarentzat erosoagoa eta errazagoa izanen baitzen, baina, egia esateko, isilpeko tratu hura bi aldeentzat onuragarria izanen zen, mutikoa asko ohartzen ez bazen ere, eta, gauzak hala, Manex horrela jokatzera animatu zuten aita-amek.

–Oso ongi, ba, Manex!, hik egin ezak Sabinok eskatu dian bezalaxe eta geroago ikusiko diagu ze gertatzen den; ulertu al duk? – aholkatu eta galdetu zion aitak.

–Bai, bai, oso ongi ulertu dizut, aita; saiatuko naiz horrela egiten –semearen erantzuna.

Handik aurrera, bada, baserriko mutiko gazteenak halaxe jokatu zuen, hau da, etxe inguruan, herriko artzain haren ardiak ikusi bezain azkar, herri alderantz itzularazten zituen, Sabinok berak eskatu bezala. Eta, bueno, martxa hartan, bada, pixkaka-pixkaka, egunak, asteak eta hilabeteak

aurrera joan ziren iragaten, eta, konturatzerako, baserri hartako sukaldeko egutegian azaro hilabetea agertu zen. Larunbat arratsalde batean, Manex etxe inguruan jostaketan ari zenean, bat-batean, berriz ere herriko Sabino artzain argia plantatu zitzaion aurrez aurre, esku batean zorro bat zeramala.

–Kaixo, mutikoa!, zertan habil?

–Hementxe, jostetan; denbora ematen – Manexek, naturaltasunez.

–Ederki, ederki! –artzainak, lasai–. Bueno, ba, Manex, gogoratzen al duk udan nola esan nian, lan ona egiten baldin bahuen artaldearekin, opari hobeago bat jasoko huela? – artzainak, irribarrez.

–Bai, bai, gogoan daukat, Sabino– gaztetxoak, adi-adi.

–Konforme, ba. Begira, hilabete hauetan, nire ustez, oso lan ona egin duk ardiei eusten, urrutirago ez joateko, eta, horregatik, hementxe dakarkiat hik merezitako erregalua; hitzeko gizona nauk, ikusten? –esan zion artzainak, zorroa eman bitartean.

–Eskerrik asko berriz ere, Sabino! Hau poza! Mila esker! Estimatuta dago! –Manexek erantzun, aurpegi alaiz.

–Ez horregatik, motel! Dena herorrek irabazi duk eta! –Sabinok, esker onez.

–Ai!, hau ilusioa! Ikusiko al dut ze dagoen barruan? Urduri nago...! –mutikoak, irrika bizian.

–Bai, noski, bai! Ikus ezak lasai, Manex!

Mutilak begiratu bezain laster, itxura bikaineko gazta pare handi bat ikuskatu zuen. Pozak zoratu beharrean jarri zen Manex.

–Eskerrik asko, Sabino! Mila-mila esker! Ez dakit zer gehiago esan! –izan ere, mutikoak ez zekien zer gehiago bota, bere esker ona azaltzeko.

–Lasai, Manex, ez didak eskerrik eman behar, hori guztia hirea duk, herorren lanaren bitartez irabazia. Goraintziak eman gurasoei eta ikusi arte! –agurtu zuen Sabinok mutil zoriontsua.

Manexek segundorik ere galdu gabe, etxe barrurantz jo zuen ziztu bizian, gurasoei erakustera irabazitako oparia dotorea.

–Ama, aita!, begira ezazue zer eman didan berriz ere Sabino artzainak! –semeak, zorionez betea.

Hantxe bertan zoriondu zuten Manex gurasoek eta anai-arrebek. Denak pozik gelditu ziren; mutikoa harro-harro, burua tente zeukala. Bolada batean denek gazta goxoa jan zuten baserri hartan, Manexi esker.

Manex eta intxaurrak

Urte hartan, urriaren bukaera aldean, intxaurrak jada ontzen ari zirenean, igande goizerdi batean, Manexi eta herriko beste mutiko bati tokatzen zitzaien meza laguntzaile lanak egitea. Arrazoi harengatik, meza ordua baino minutu batzuk lehenago hantxe ziren Manex eta beste mutikoa, elizaren ondoan, edo hobeki esateko, apezaren etxe inguruan, zeren eta herri hartan, intxaurrik handienak eta goxoenak apezaren intxaurrondo batek ematen baitzituen. Hura dela eta, bi mutikoek gustuko zuten, meza baino zenbait minutu lehenago joatea, apezari intxaur batzuk lapurtzeko, hark jakin gabe, noski.

Gauzak hala, bada, Manex eta bere laguna gustura asko ari ziren intxaurrak hartzen: hemen bat, han hiru, hor bi... Baina, halako batean, apezak dei egin zien elizara joateko, meza prestatzen laguntzeko.

–Manex!, Alberto!, zatozte elizara azkar, ordua da eta!

–Bai, bai, bagoaz! –erantzun zioten mutikoek.

Albertok eta Manexek bazekiten elizara aida batean joan behar zutela, baina, jakina, orduan bertan ohartu ziren eskuak oso zikinak zeuzkatela, intxaurren azal berdearengatik. Halaber, jakitun ziren iturrira edo etxera eskuak garbitzera joateko, ez zutela inondik inora ere denborarik; zer egin? Nola konpondu arazo larri hura?

Estutasun handi hartan, bururatu zitzaien lehendabiziko ideia zera izan zen, bazter batera joan, bakartu, pitilinak atera eta pixa eskuetara egin. Isurkari bero harekin, eskuak elkarren aurka gogotik igurtzi eta igurtzi ondoren, intxaur azalek utzitako orban berdea, pixka bat ezkutatzea behinik behin lortu zuten; ez zen gutxi izan! Gero, ahal bezala, eskuak galtzetan pixka bat lehortu eta lasterka eliza aldera, apezak susmo txarrik har ez zezan.

Sakristian lasterka eta barre algaraka sartu ziren bi mutikoak. Apeza hantxe ari zen mezarako janzten eta bere gauzakiak prestatzen; mutikoen jokaera ez zitzaion deus ere gustatu eta honela mintzatu zitzaien:

–Iso! Errespetu pixka bat elizan, mesedez! – esan zien, haserre.

Manex eta Alberto segituan isildu eta serio jarri ziren.

–Tira, hartu kutxa horretako ostia horiek eta sartu kaliza horretan! –agindu zien apezak, txantxetarako gogorik gabe.

Bi meza mutilek elkarri begiratu eta barreka hasi ziren, gogoari eutsi ezinik, lehenagoko pasadizoa gogoratuta.

–Arraioa!, utzi txorakeriak eta mugitu e!, meza ordua berehalaxe izanen baita! –berriz ere bota zien ezten pozoitsua apezak, oso haserre.

Meza laguntzaileak bat-batean isildu eta berehalaxe bete zuten apezaren agindu zorrotza, berriketarik gabe. Meza hastear zegoenean, bi laguntzaileak apezarekin aldarera atera ziren, kaliza azken honek zeramala. Meza hasi, aurrera joan eta erdia baino gehiago igarota, Jauna emateko prest zegoenean, bi mutikoek berriz ere elkarri begiratu eta barrez ito beharrean hasi ziren, oroitu zirenean beraien eskuekin ukitu zituztela ostia sagaratu haiek.

–Isildu, alajainkoa, epelak hartu nahi ez badituzue! –esan zien ahopean inork ez entzuteko moduan, baina oso aurpegi adierazgarria jarrita–. Ongi portatu, arraiopola!

Mutilak ahal bezala, serio jarri eta zintzotu egin ziren ezinbestean, baina asko kostata. Azkenean, meza bukatu zenean –ez nahi bezain azkar–, aldareko hiru protagonistak sakristiara joan eta apezak bere haserrea eta ezinegona ezin disimulatuz, honela lehertu eta galdetu zien:

–Baina, baina, jakin al liteke zer ostia, barkatu!, zer arraio pasatzen zaizuen gaur, txoropito halakoak? Niri ez didazue adarra jo behar, e!

–Badaki berorrek, gure txorakeriak eta ergelkeriak dira! –erantzun zioten bi gaztetxoek, irribarrez oraingoan ere, egia ezkutatu nahian.

–Ez zekiat, ez zekiat nik, ba, hori egia osoa ote den! –apezak, inolako konbentzimendurik gabe.

Eta eskerrak erretore jaunak ez zuela jakin zer gertatu zen lehenago bere intxaurrekin, bestela, auskalo zer pasatuko zitzaien bi laguntzaile haiei!

(Zoazte Jainkoaren bakean! Eskerrak zuri Jauna!).

Manex eta zekorra

Azaroaren hasieran, Manexen baserrian zekor handi eta gizen bat zeukaten hiltegira eramateko. Abere lasai eta otzana zen, eta, hiltegia ondoko herrian zegoenez gero, aitak erabaki zuen berak eramanen zuela, oinez, bi kilometro pasatxoko ibilbidea; hori bai, ez oso erosoa.

Eguna iritsi zenean, Manexek aitari eskatu zion berarekin joateko, eta hark onartu. Horrenbestez, bada, aitak ukuiluan zekorrari, muturreko eraztunean soka on bat lotu eta poliki-poliki ondoko herrirantz abiatu zen, goitik behera, semerik gazteenaren laguntzarekin, aberea hiltegira eramateko.

Ukuilutik atera eta goitik behera abiatu ziren hirurak hiltegi aldera, aitak esku batean zekorraren soka eta bestean akuilu sendo bat zeramatzala, badaezpada ere. Manex atzean zihoan, behar zenean, idiskoa pixka bat akuilatzeko.

Gauzak hala, bada, batzuetan maldan behera, beste batzuetan zelaian, momentu batzuetan sokatik tiratuta eta beste batzuetan, akuiluarekin pixka bat ziztatuta, batere arazorik gabe iritsi ziren hirurak hiltegira, ordubete baino gutxiagoan. Animalia gizajoak ez zekien nora zihoan, noski, eta bide osoan noble eta otzan ibili zen, bere jabeaz erabat fidatuta; a zer-nolako ironia!

Hiltegiko atea zabalduta, pixka bat bultzatu eta gero, zezenkoak ez zuen aurkakotasun handirik egin eta berehalaxe zegoen barruan, erdian.

Harakinak zapi ilun batekin begiak estali eta segituan aizkora handi bat hartu zuen; zezen gaztea ez zen ezertaz jabetu eta bere nagusiak hitz goxoak esanda eta bizkar zabalean laztan gozoak eginez, bare eta lasai iraun zuen. Halako batean, ordea, German harakinak, aizkora-buruarekin kolpe indartsu bat eman zion kopetan eta animalia bulartsua ziplo erori zen porlanezko lurreraino; gaixoa! Hotsak zirraragarriak eta ikaragarriak izan ziren, lehena, kopetakoa, lehor eta motza, eta, bigarrena, handiagoa, aberea zerraldo erorita, zorua jotzean gorputzeko hezurrekin; latza benetan!

Segituan, Germanek ergia odolusteari ekin zionean, odola borborka agertu zen; errekatxo baten moduan joan zen isurbidean behera. Jarraian, aizkora handi harekin kolpeka, lepoa, hankak eta buztana moztu zizkion, kiski-kaska; Manex, harriturik eta hunkituta, begirik kendu gabe, oso kontraesanezko sentsazioak sumatu zituen bere barrenean.

Geroxeago, gorpua goitik behera ireki, barruki guztiak atera eta ongi garbitu zituenean, animalia

zintzilik jarri zuen goiko barra batean, txirrika baten laguntza estimagarriarekin. Horrela, harakinak zezen gaztea pisatu ahal izan zuen eta horren arabera bere nagusiari ordaindu, tratua hala egina baitzuten. Manexen aitak dirua eskuan jaso, Germanek eta berak bostekoa elkarri eman, eta irribarretsu elkar agurtu ondoren, aita eta Manex hiltegitik ateratzen hasi ziren.

Ateratzerakoan, ordea, mutikoak ikusi zuen animaliak bi bola koxkor zituela zintzilik sabel aldean, baina, hartaz ohartu eta isildu egin zen; ez zuen deus ere esan. Behin kanpoan zirenean, baina, aita eta biak baserri aldera abiatu bezain laster, semeak honako galdera hauxe egin zuen, beldur pixka batekin:

–Aizu, aita!, zer ziren zekorrak sabelean zintzilik zituen bolatxo haiek?

–Bolatxo haiek, Manex?, ba, bere barrabilak zituan. Zer, ba? –aitak, harriturik, galdera xelebre hura entzunda.

–Deus ez, baina ez nekien zer ziren eta jakin-mina sortu zait, besterik ez! –semeak, pixka bat lotsatuta eta ikaraturik; hozki antzeko zerbait ere sentitu zuen barren- barrenean.

Aita arrunt gustura itzuli zen etxera, txahal arraren diru baliotsua kobratuta, baina, semea, ordea, oso kezkati eta arduratuta gelditu zen ikusitakoak ikusita, alde batetik, harakinak animalia nola hil, odolustu eta puskatu zuen behatuta, eta, bestetik, hura guztia dela eta, barrunbean sumatu zituen hunkidurak, lazturak eta zirrara biziak sumatuta. Nahasita gelditu zen; zalantzan hasi zen jartzen, zilegi ote zen halako abere bikainak, era hartan

akabatzea, pertsonek haragia jan ahal izateko. Hura nahitaezkoa ote zen? Ezin al zen bizi animaliei hainbeste kalte egin gabe? Manexi kontraesanezko ideiez bete zitzaion burua; ez zekien ongi zer erabaki. Momentuz, halaxe jarraitu beharko zuen, zalantza-egoera hartan.

Manex eta odola

Azaroaren erdialdeko goiz hotz batean, Manex herriko eskolara zihoan txintxo-txintxo. Behin herrira sartuta, bigarren etxearen parera iristean, horma ondoan, odol putzu dezente bat ikusi zuen, baina odol berria ematen bazuen ere, baserritar txikiak ez zion aparteko garrantzirik eman, izan ere, zen garaia izanda, pentsatu zuen norbaitek txerria hilko zuela edo antzeko zerbait.

Kontua da, egun hartan eskolara berandu samar zihoala, eta, besterik gabe, aurrera jarraitzea erabaki zuen. Eskolako beheko aldera ailegatu zenerako, gainerako haurrak ikasgela barruan zeuden, eta handik entzun ahal izan zuen herriko neska-mutiko bakoitza nola ari zen ozenki irakurtzen entziklopediatik, norbera bere ikasgaia edota testua; hark oilategi hutsa ematen zuen.

Geroxeago, eskola barruan, ikasmahaiko kide zuen Albertok zera esan zion:

–Ba al dakik zer gertatu den gaur goizean herrian?

–Herrian? Gaur goizean? Ez zekiat, ba. Txerriren bat hil dutela edo? –erantzun zion Manexek odolarena gogoratuta.

–Ez, Nievesek bere buruaz beste egin dik! – lagunak.

–Bere buruaz beste egin duela? Eta hori zer da? –Manexek, harri eta zur eginik; sekula santan ez zuen halako hitzik entzun.

–Ba, bere burua hil duela, ganbarako leiho txiki batetik jauzi eginda! –azaldu zion Albertok.

–Non? Hor, Martenean? –bordariak pixka bat ulertzen hasita.

–Bai, hortxe bertan! –baserritarraren ikaskideak.

Orduan, Manexek kontatu zion, nola pasatzerakoan ikusi zuen odol putzu handi bat lurrean eta pentsatu zuen hildako animaliaren batena izanen ote zen.

Eguerdia pasatuta, goizeko eskolatik ateratakoan eta baserrira bazkaltzera zihoanean, hantxe ikusi zituen odol putzuaren arrastoak, baina, oraingoan, gainetik zerrautsa botata, tragedia pixka bat arintzeko. Horrek esan nahi du, goizean, Manex igaro zenean, ezbeharra gertatu berria zela.

Mutikoak ganbarako leihotxoa oroitu, eta, bestela bezala, ardura eta beldur handiz harantz begiratu zuen, eta, izan ere, leiho txiki bat hantxe zegoen, odol aztarnen pare-parean. Bidean gehiegi gelditu gabe, aurrera egin eta handik ordu erdira-edo baserrira iritsi zen bazkaltzeko prest. Hala eta guztiz ere, etxera ailegatu zenean, buruan zalantza eta galdera asko zebilzkion, eta horrexegatik honako itaun hau egin zuen:

–Ama, ama!, zuk ba al dakizu Nieves Martenekoak bere burua hil duela?

–Bai, bai, zoritxarrez, bazekiat, bai! Ze galera handia, Manex! –amak, tristeziaz beteta–.

Negargarria, benetan!

–Eta zergatik egin ote du hori, ama? – semeak, jakin-minez.

–Uf!, auskalo! Hori oso zail duk jakiten, maitea, berak bakarrik jakinen dik zergatik egin ote duen; besteok ez diagu erraz jakitea! – adierazi zion, nola edo hala, amak.

–Bai, baina, ze arazo ote zuen, ba, emakume horrek bere burua ganbaratik botatzeko? –berriro ere mutikoak, zerbait gehiago jakin nahian–. Azken batean, Nieves senarrarekin bizi zen, bakarrik, eta ez zuten seme-alabarik; beraz, ze arrazoi izan ahal zuen egin duena egiteko? Nik ez dut ulertzen.

–Ai, semetxo!, hik oraindik ez dakik ongi, baina, zorigaitzez, arrazoi asko eta asko egon ahal izan dituk, Nievesek egin duena egiteko, esate baterako: tratu txarrak, indarkeria matxista, depresioa, buruko gaixotasunen bat, gaitz sendaezinen bat, oinaze fisiko larria, arazo psikologikoak...! Auskalo!, joan eta bila ezak! Hainbat eta hainbat izan ahal dituk zergatikoak –amaren azalpenak, Manex baretzeko.

–Ufa!, ba, oraindik ez dut ongi ulertzen, ama! –semeak, kexati.

–Lasai!, hi oraindik txikia haiz, baina egunen batean, gehiago handitzen haizenean, orduan dena ulertuko duk!; ez izan presa handiegirik! –esan zion amak, eramanpen handiz.

Manex isilik gelditu zen, pentsakizunetan; amak zera gehitu zion:

–Dena den, holako kasuetan, gauza bat oso argi eta garbi zegok, Manex, alegia, beren buruaz beste egiten duten pertsonek, esan nahi dik, une horretan bederen, ez dutela bizitzen jarraitu nahi, ezin dutela segitu; egoera latz horretan ez ditek jasaten bizitza, eta horrexegatik nahiago izaten ditek mundu honetatik joan eta bakea beste nonbait bilatu – amaitu zuen amak, semearen hobe beharrez, bere ahalegina egin eta gero.

Argi dagoena da, norbaitek bere buruaz beste egitea aspaldiko kontua dela; ez da gaur egun asmatutako zerbait, baina bai, ordea, gero eta gehiago aurre egin beharrekoa.

Manex eta aingerutxoa

Urte hartako abenduaren hasieran, ostiral goiz hotz batean, Manex herriko eskolara iritsi zenean, ohartu zen bi neskatila falta zirela. Hasiera batean, txikikeriaren bat gertatuko zitzaiela pentsatu eta uste izan zuen geroxeago agertuko zirela, baina, ez, geroxeago ere ez ziren eskolara joan. Orduan, baserritar txikiak, jakin-nahiari gehiago ezin eutsirik, eta, gainera, ikasgelan giro atezu bat sumatzen zuelarik, mahaikide zeukan Albertori honako hauxe galdetu zion berehala:

–Hi, Alberto!, hik ba al dakik gaur Arantxa eta Garbiñe zergatik ez diren etorri eskolara?

–Bai, bai, tamalez bazekiat; anaia txikitxoa hil zaiek! –bota zion ziplo Albertok.

–Ez esan! Ez duk egia izanen! Eta ze gertatu zaio, ba? –Manexek, ahoa bete hortz.

–Begira, ze gertatu zaion ez zekiat, baina niri behinik behin, halaxe kontatu zidatek, hil egin dela, alegia! –azaldu zion ikaskideak, kopetilun.

–Aizue!, Alberto eta Manex, isildu eta ikasi, mesedez! –kargu hartu zien maistrak, berriketarako gogorik gabe.

Biharamunean, larunbatarekin, izan ziren haurtxo errugabe haren hiletak, herriko elizan, arratsaldez; hilabete gutxi batzuk baino ez zituen. Ninia besterik ez zen, mutikoa. Zergatik halako jipoia familia hari? Auskalo! Herriko jende guztia atsekabetuta eta nahigabeturik gelditu zen; inork ez zuen espero halako antzeko deus ere, baina, gertatu, gertatu egin zen, bai, zalantzarik gabe. Nola buru egin ezbehar hari? Dirudienez, bat-bateko heriotza izan omen zen; Manexek ez zuen santa sekulan jakin zer gertatu zen benetan, zein izan zen heriotzaren zioa, baina gertakari hura betiko gelditukо zitzaion grabatua garunean.

Baserritarrak herrira hurbiltzen ari ziren heinean, hil ezkilen kolpe lehor eta tristeak gero eta ozenago entzuten zituzten. Abenduko haize meheak arima eta bihotza zeharkatzen zizkien. Inguruko mendi guztiak, elur zuriaren maindire azpian. Eliza barruan, haurtxoaren kutxatxo zuria, erdian, denen begien bistan. Gurasoak eta hiru arreba, negar batean, kontsolamendurik gabe; arrebarik gazteena, ordea, laugarrena, oso txikia zen eta ez zen ongi jabetzen zer gertatzen zen han, nahiz eta oso aurpegi goibel negartiak ikusi. Manex, txunditurik eta hunkituta. Apeza behin eta berriz saiatu zen bere hitzik goxoenekin familiakoak kontsolatzen, baina ez zuen lortu; ez zegoen modurik, ezinezkoa zen.

Hileta elizkizunak bukatutakoan, hildako aingerutxoaren aitak kutxatxo zuria hartu – mendietako elurra bezain zuria–, eskuin besapean jarri eta beste besoa emaztearen sorbalda gainean bermatuta zeukala, hilerri aldera abiatu ziren denak, apezak eta meza laguntzaileak aurrean zihoazela. Familiakoak, berriro ere, negar malko batean urtzen,
aieneka, pozbiderik gabe, hilerriraino zeuden
400 metro haietan. Herritarrengan tristezia, hunkidura, mina, enpatia, errukia eta oinazea; ezin ulertua. Ezkila dorreko hil kanpaiek berriro ere etengabeko ukaldi astun eta suntsigarriak, pertsonen buru eta entzumenen gainean, tonako mailukadak balira bezala: <Berriz min hau!, berriz min hau!>, Berri Txarrak musika taldeak kantatzen zuen modu berean.

Hilerrian, Nievesen gorpuaren ondoan lurperatu zuten, biak denboran oso elkarren jarraian joan zirenak, eta, atseden hartzeko ere, biak betiko elkarren aldamenean. Zer kontatuko ote dio Nievesek aingerutxo honi, bere joatearen arrazoiei buruz? Nork daki? Jakizu!

Aingerutxoaren kutxatxo zuria lurreko zuloan sartzerakoan, berriz ere ikusi eta entzun ziren gurasoen eta hiru arreba zaharrenen negar zotinak, hasperenak, desesperazioa, etsipen kontsola gaitza, zorabioak eta abar. Amaieran, hantxe gelditu ziren bi hilotzak, izoztuta, bakar-bakarrik, maitatu zituzten pertsonen gogoan.

Manexi betiko geldituko zitzaizkion iltzatuta irudi triste eta goibel haiek burmuinean; bere bizitzan ezagutu zituen lehendabiziko bi pertsonen heriotzak izan ziren eta haiek marka sakona utzi zioten barnean. Ez zuen ongi konprenitzen zergatik eta zertarako gertatzen zen heriotza, zer esan nahi zuen; baina ederki asko zekien, ukuiluko animaliak bezalaxe, hildako pertsona haiek ez zituela
santa sekulan berriz ere ikusiko mundu honetan, eta, horrek guztiak kezka eta goibelaldia sorrarazten zizkion.

Manexek behin ere ez zuen ikasi hildako haurtxo haren izena, baina, handik aurrera, hura gogoratzen zuen bakoitzean, halaxe deitzen zion, aingerutxoa.

Harrezkero gure baserritarrak gauza bat behintzat erabat ongi ikasi zuen, alegia, bizitza guztian zehar heriotza oso presente dagoela, gurekin heldu da eskutik hartuta.

Elurtea eta ama

Ustekabeko bi heriotza haien gorabeherak igaro ondoren, Eguberriak baino lehentxeago, elur haizea sartu zuen Manex bizi zen baserrian eta bere inguru osoan. Halako egun jakin batean, ordea, elurra hasi zuen, eta hasi bazuen, hasi zuen! Zenbait egunetan bota eta bota aritu zen, ia-ia batere atertu gabe, eta, noizbait atertzen bazuen ere, berriz ere ekiten zion egiteari, amorrazioz. Era hartan, asteetan eta asteetan izan ziren; elurra egin eta izoztu, behin eta berriz, praktikoki, deus ere lurmendu gabe. Negu latza jasan behar izan zuten urte hartan, baina, Manex, ordea, pozak txoratzen.

Eskerrak udaberrian, udan eta udazkenean lanak ongi egin zituztela baserritarrek, eta, horri esker etxean bazeuzkaten era guztietako erreserbak: baba beltzak, banabarrak, gaztainak, gaztak, esnea, porruak, tipulak, baratxuriak, txerrikiak, gaztanbera, olioa, ardoa, irina, azukrea, azak eta abar. Zer edo zer funtsezko agortzen baldin bazen, orduan aita edota seme zaharrenak joaten ziren ondoko herrira erosketak egitera, beren herria baino hurbilago zegoelako, eta, gainera, dendak hantxe zeuden, beren herrian, ez. Horretarako, elur-erraketa trakets batzuk jantzi eta era hartan jaisten ziren aldameneko herrira mandatuak egitera, izoztutako elur geruza handi eta gogorraren gainean, ez noiz edo noiz ipurdiko bat edo beste hartu gabe, aldapa piko haietan; ama ez zen ausartzen, eta, horretaz gain, jakina, etxean bazeukan nahiko lan egiteko.

Baina Eguberriak pasatu, eta, gutxi gorabehera, egoera bertsuan jarraitzen zuten paraje hartan: elurra, hotza eta izotzak. Seme- alaba guztiak, Manex izan ezik, lanera edo ikastera joan ziren etxetik kanpora; honek, ordea, eskolara ez zuen bakarrik joaterik, eta, etxean, gustura, bazterrak nahasten, katuekin, ukuiluko animaliekin, elurrarekin eta bat eta beste; errepide nagusia kenduta, gainerako gehiena paralizaturik geratu zen, eta, azken hau ere, oso behin-behineko egoeran.

Egunak joan egunak etorri, amak dagoeneko hilabete osoa zeraman etxeko zulo beltz hartan, inora atera gabe, etxeko lanak gauzatu, jan, edan, lo egin eta gutxi gehiago, erosketarik egin gabe, mezatara joan gabe, auzokoekin hitz egin gabe, kalean ibili gabe eta abar. Ordurako nazka-nazka eginda zegoen etxetik ez ateratzeagatik, eta, baita gogaiturik eta aspertuta ere.

Gauzak hala, egun jakin batean amak zera esan zion aitari:

–Aizu, Joxe!, honezkero erabat nardatuta nago etxeko zulo honetan egoteaz! Zergatik ez didazu irekitzen bidexka bat ondoko herriraino, noizean behin atera ahal nadin?

Senarrak, pixka batean pentsatu, eta onartu egin zion proposamena.

–Ongi da, saiatuko naiz, baina kontu egin denbora dezente kostatuko zaidala, e!, elur geruza lodia delako, eta, gainera, oso gogortuta dago dena; hortaz landa, orain bakarrik nago, laguntzailerik gabe. Baina, lasai, ahaleginduko naiz, merezi duzu eta!; ea noiz bukatzen dudan! – erantzun zion senarrak, errukiturik.

Berehalaxe ekin zion lanari; baserriko lanek uzten zizkioten aisialdi guztiak aprobetxatzen zituen bidexka irekitzeko, pala eta aitzurra hartuta. Lan gogor eta nekeza izan zen, ia-ia metro bete elur baitzegoen, baina, ekinaren ekinez, bi egun eta erdi pasatxoan lortu zuen bide osoa irekitzea,

pertsonak oinez igaro ahal izateko; kilometro bat inguru. Benetan, akigarria izan zen! Manexen amarentzat, berriz, pizgarri handia. Aita bidezidorra irekitzen ari zen bitartean, ama behin baino gehiagotan joaten zitzaion bertara, janari edota edari beroren bat eramateko aitzakiarekin, nahiz eta kalean, ia beti, zeropeko hozbero egon.

Azkenean, larunbaterako bukatu zuen dena irekitzen, herriraino. Ama irrika bizian zegoen aldameneko herrira joan, mandatu batzuk egin eta pertsona batzuekin hitz egin ondoren, berriz ere baserrira itzultzeko, bere burua pixka bat egurastu eta gero.

Goizean, aita ukuiluan gelditu zen animaliak gobernatzen. Orduan aprobetxatu zuen amak beheko herrira joateko. Manexek ere ordurako kanpoan ibiltzeko gogo bizia zeukan, eta, amari, harekin joateko eskatu zion, axola ez bazitzaion; amak, eskaera onartu.

Behin bidean, mutikoa harrituta gelditu zen bazterretan ikusi zuen panoramarekin; zur eta lur! Izan ere, hainbeste egun, elur eta izotzaren azpian pasatu ondoren, kaleko animalia askok eta askok ez zeukaten zer jan handirik, batez ere hegaztiek, eta, horren ondorioz, edozein txokotan agertzen ziren mota askotako animaliak hilda, izoztuta, argal-argal, hezur- huts eginda; haietako batzuk, gainera, hankaz gora, bide osoan, hesietan, zuhaixketan, sasietan, hormetan eta abarretan: txantxangorriak, txepetxak, kaskabeltzak, karnabak, hormatxoriak, zozoak, birigarroak, buztanikarak, txontak eta abar, eta abar; erruz! Era horretan, herriraino.

–Begira horra, ama! Ikusi hori! Hara han! – Manexek, sinistu ezinik ikusten ari zena–. Ze pena! Hau gehiegikeria, e, amatxo! –jarraitu zuen sor eta lor.

–Bai, halaxe duk, maitea! –amak, beste zeresanik bururatzen ez zitzaiola.

Eta herri hartatik itzultzean, sufrimendu berbera. Erabateko hondamendia!; triskantza! Samindura latza sumatu zuen Manexek sabelean. Elurra oso gustukoa zeukan mutikoak, baina, aldi hartan, zera pentsatu zuen bere kautan:

–Arraioa!, oraingo honetan, arrastotik pasatzen ari haiz, elurra!

Manex eta animaliak

Urteak aurrera joan ziren pasatzen eta Manex nerabezarora ere iritsi zen, eta, horrekin batera, noski, bere ikuspuntuak, pentsamoldeak eta iritziak ere, pixkanaka- pixkanaka aldatzen joan ziren; bere nortasuna sendotzen. Lehen pentsatzen zuen guztia, gerora ez zuen dena berdin-berdin oldozten eta baloratzen; aldaketa nabarmenak izan zituen bere psikean. Formakuntzak, hezkuntzak eta ikaskuntzak eragin handia izan zuten bere buruaren garapenean eta bilakaeran.

Manexek, konparaziora, ordura arte normaltasun osoz ikusi eta onartu zituen ehiztarien, baserritarren eta arrantzaleen jokabide guztiak, txiki-txikitandik horrela ikusi baitzuen bere inguruan, normal, ohiko eta zilegi. Inoiz ez zitzaion bururatu zalantzan jartzea etxean eta ingurumari osoan ikusi eta ikasi zituen gauzak, esate baterako, ehiza, arrantza eta antzeko jarduerak.

Oroimena zuenetik gogoratzen zuen etxekoak –aita, eta anaia zaharrenak–, osabaren bat, auzokoak eta herrikoak nola aritzen ziren, batzuetan arrantzan eta beste batzuetan ehizan. Horretarako, gainera, hainbat eta hainbat tresna erabiltzen zituzten: eskopetak, karabinak, tiragomak, lika, baheak, tranpak, zepoak, lakioak, amuak, kanaberak, sareak, pozoiak eta abar. Manexentzat zeharo ohikoa izan zen ikustea, nola batzuek hala besteek ere, botatzen eta harrapatzen zituzten erbiak, basurdeak, orkatzak, azkonarrak, basahuntzak, azeriak, muxarrak, katagorriak, zozoak, usoak, kurriloak, hegaberak, eskinosoak, mikak, birigarroak, hontzak, satorrak, saguak, arratoiak, sataginak, muskerrak, sugandilak, sugeak, arrabioak, igelak, zapoak, txipak, amuarrainak, loinak, karramarroak, izokinak eta abar, eta abar, hau da, ia-ia mugitzen zen jainko guztia.

Harrapakin eta ehizaki haiek, batzuetan jateko aprobetxatzen zituzten, beste batzuetan disekatu eta etxea apaintzeko, beste kasu batzuetan dirua kobratzeko basapiztia kaltegarriak zirelakoan, beste batzuetan akabatzeko plazer hutsarengatik, eta, azkenik, beste animalia batzuk hiltzen zituzten pozoitsuak izateagatik, eta, beraz, arriskutsuak zirelako ustean.

Baina txikitan, hura guztia ikusi eta ikasi bazuen ere, hazten joan zen neurrian, Manexi, pixkaka-pixkaka, zalantza berriak hasi zitzaizkion sortzen bere baitan. Dagoeneko dena ez zitzaion iruditzen hain natural eta zilegi; pentsatzen hasi zen, beharbada, animalia gehiegi erailtzen zirela ongi justifikatu gabe, eta, agian, ez zela guztiz etikoa izanen jatea hainbeste haragi, arrain eta itsaski, munduan beste hainbat eta hainbat barazki, fruta, fruitu lehor, perretxiko, landare osasungarri eta abar egonda, eta, gainera, hain gustagarriak izanda. Beste alde batetik ere, bera ere ohartzen zen oso erakargarria zela ehizan eta arrantzan aritzea, eta, nola ez?, denetik jatea, nahiz eta horrek animalia batzuk hiltzea ekarri; tentazioa nonahi zegoen.

–Arraioa!, ez zekiat ze egin behar dudan! Hau izorratzea hau! Dios!, ze erabakiko dut nik azkenean? –ziren Manexek bere buruari sarritan egiten zizkion galderak, momentuz, erantzun garbirik aurkitu gabe.

Jakina den bezala, nerabezaroa eta pubertaroa oso garai aldakorrak eta nahasiak izaten dira, eta Manexi ere halakoxeak suertatu zitzaizkion, hots, aldaberak, korapilatsuak eta zalantzakorrak, gai gehienekin, gainera.

Manexen emantzipazioa

Unibertso osoan ez dago inor denbora geldiaraziko duenik, nahiz eta askotan horrek ez digun batere graziarik egiten, eta, Manexi ere, ezinbestean, berdin-berdin gertatu zitzaion, alegia, hazten eta heltzen joan zen. Atzean utzi zituen haurtzaroa, pubertaroa eta nerabezaroa. Gaztaroan eta adin nagusitasunaren hasieran gogoeta zorrotz eta sakon asko egin zituen bizitzari buruz, jakina, lehendabizi batxilergoak, eta geroago, karrera bat –Nekazaritza ekologikoa, bere kasuan– ikasi izanak ere, biziki lagundu zioten hausnarketa serio haiek egiteko momentuan, bizitzaren eta bizimoldearen filosofiari buruzkoak.

Urte haietan guztietan, noski, behin baino gehiagotan gogoratu zuen, adibidez, baserrian nola elikatzen ziren. Alde batetik, oso ongi, zeren eta garai hartako jaki gehienak, oraindik nahiko naturalak baitziren, etxean ekoitziak edota kanpotik ekarriak, baina oraino produktu eta gehigarri artifizial gutxi samarrekoak: barazkiak, berdurak, frutak, fruitu lehorrak, laboreak, lekariak eta abar, gehienak etxeko lurrek emandakoak, eta, bestetik, etxekoak ala kanpokoak, baina animalia osasuntsuen jatorrikoak, konparazio batera, oilakia, kapoi haragia, arkumekia, ardikia, antxumekia, untxi haragia, txerrikia, abelgorrikia eta arrainkiak (bakailaoa, hegaluzea, legatza, sardinak, bokartak eta abar). Edozein okasio aprobetxatzen zuten halako janariak hartzeko, hau da, Eguberrietan, Aste Santuan, herriko jaietan, aldameneko herrietako bestetan, urtebetetzeetan eta abarretan; edozein aukera egokia zen.

Baina karrera bukatutakoan, etxetik kanpo, hainbat lekutan aritu zen lan egiten eta trebatzen bere espezialitatean, hausnarrean jarraitzen zuen bitartean: irakurriz, hitzaldiak entzunez, adituekin hitz eginez eta bat eta beste. Denbora aurrera joan ahala, gero eta garbikiago hasi zen gauza batzuk ikusten; geroz eta zalantza gutxiago gelditzen zitzaizkion. Azkenean, argiki ikusi, eta funtsezko erabaki handi bat hartu zuen, alegia, baserrira itzuli nahi zuela bizi izatera, baina beste filosofia ezberdin batekin.

Momentuz, zenbait urtez etxetik kanpo jarraitu zuen lanean, diru puska bat aurreztu arte. Orduan etxera bueltatu eta aitari lursail handixko bat erosi zion, etxetxo bat eraikitzeko. Bizitokia altxatu ondoren, beharrezkoa zen makineria guztia lortu eta lurrak lantzen hasi zen, baina, dena, ahal zuen heinean, behinik behin, modu biologikoan, esate baterako, artoa, garia eta oloa ereiten zituen, transgenikorik gabe –hazi ekologikoak erabiliz–, eta ongarri naturalekin. Ondoren, oilategi ekologiko bat jarri zuen: oiloak beren oilarrekin. Gauez etxetxo batean egiten zuten lo, baina egunez, nahieran ibiltzen ziren kanpoan, belaze handi batean, aske, belarrak, intsektuak eta xomorroak jaten. Belar soroak, inguruan, itxitura bat zeukan, noski, hegaztiek ez ihes egiteko, eta, batez ere, azeriak ez harrapatzeko; gauean, jakina, oilategira biltzen ziren, beren kabuz joanda, leku seguruan lo egin ahal izateko. Inongo arriskurik gabe.

Manexen helburu nagusienetako bat zera zen, lurretik eta naturatik bizi ahal izatea, baina inori kalte handirik egin gabe, hau da, izadia eta bizidunak ahalik eta gehiena zaintzen, batez ere, pertsonak eta animaliak, baina, baita ama lurra ere. Horregatik, oiloei arrautza gehienak kentzen bazizkien ere, saltzeko eta baita berak jateko ere, oiloak eta oilarrak, mainatzen saiatzen zen, hots, albait ardurarik onenarekin zaintzen, batere sufri ez zezaten. Are gehiago, oiloak eta oilarrak zahartzen zirenean ere, ez zituen saltzen edo hiltzen jateko, ez, baizik eta, ordainez, elikatzen eta zaintzen jarraitzen zuen, heriotza naturalez, hau da, zaharraren zaharrez, hiltzen ziren arte, nola edo hala, ordura arte

eman zioten etekina, nolabait konpentsatzeko; animalien erretiro duinaren antzeko zerbait zen, beren biziarteko pentsio egokiarekin, eta, beharrezkoa izanez gero, baita errespetuzko eutanasiaren zerbitzuarekin ere. Animaliak erabili nahi zituen, bai, baina ahal zen begirunerik handienarekin. Hiltzen zitzaizkion oilo eta oilarrak, etxeko beste txita batzuekin ordezkatzen zituen.

Esan bezala, alor txiki batzuetan, artoa, garia eta oloa –hazi biologikoak– ereiten eta biltzen zituen, oiloak-eta elikatzeko, eta, bere buruarentzat, Manexentzat, alegia, baratze eder bat lantzen zuen. Halaber, hantxe bertan ehorzten zituen zahartasunez akabatzen zitzaizkion oiloak eta oilarrak, eta, azkenik, ongarri moduan, berriz, hegazti haien zirin naturalak erabiltzen zituen, produktu kimikorik gabe. Baratzeak, berdurak, barazkiak, lekaleak, frutak, fruitu lehorrak eta abar, modu oparoan ematen zizkion, eta, halaxe, pixkanaka- pixkanaka, eta naturaltasun handi samarrez, barazkijale joan zen bihurtzen, ez erabat zorrotza, baina, bai, behintzat, ehuneko handi batean. Arrautzak, bederen, zeharo ekologikoak jaten zituen; momentuz, ez zen animatzen begano bilakatzera, baina momentu hartako bizimoduarekin, behinik behin, oso gustura zegoen.

Aurreraxeago erlauntz ekologiko batzuk ere paratu zituen, eta, haien bitartez, etxerako eta baita saltzeko ere ezti osasungarria eskuratzen zuen; orobat, eta, aldi berean, eskualdeko polinizazioaren aferan poliki laguntzen zuen. Laburbilduz, oiloek erruten zizkioten arrautzak, erleek ekoizten zioten eztia eta baratzeak ematen zizkion produktuak janez eta salduz, momentuz, gutxienez, hasi zen bere bizimodua, era duinez, aurrera ateratzen, eta, hura ez zen gutxi! Zenbat pertsonak lortu nahiko lukete antzeko zerbait, hau da, beregain izatea? Gainera, gisa horretan jardunda, Lur planetaren garapen iraunkorraren alde jokatzen zuen, eta, aldi berean, klima aldaketaren aurka egiten zuen, tokiko produktuak eta garaian garaikoak ekoitziz eta kontsumituz.

Hala eta guztiz ere, normala den bezalaxe, belaunaldien artean beti izaten dira ezberdintasunak eta elkar ulertzeko zailtasunak. Horixe bera gertatzen zitzaion Manexi ere, garai hartan, aitarekin. Aitak, jada zahartu samar zegoelarik, sarritan egiten zizkion bisitak semeari, bertatik bertara, paseatzen zen bitartean, eta, beti, antzeko modu batez mintzatzen zitzaion:

–Baina, baina, motel!, hi ez hago ongi ganbaratik, halako arrain eta haragi goxoak egon eta ez jatea ere! Nik ez diat ulertzen, Manex! Ezta ulertuko ere! Gainera, hementxe bertan halako oilo eta oilasko bikainak edukita! – aurpegiratzen zion, harriduraz, behin baino gehiagotan aitak.

Manexek bere azalpenak eta arrazoiak ematen zizkion, baina arrakasta handirik lortu gabe; aitak berean jarraitzen zuen.

–Tira, tira!, hator etxera eta amak berehalaxe prestatuko dik haragi xerra eder bat, ikusiko duk! Bestela, nondik hartuko dituk proteinak hik? –aitak berriz ere, temati eta tenkor.

Semeak amore ematen zuen bere ahaleginean, bai baitzekien batzuetan hobe dela etsitzea.

Gisa hartan erdietsi zuen, bada, azkenean, Manexek emantzipazioa eta beregain izatea.